

HEMEN DA 22. KORRIKA!

Hitzekin lelopean martxoaren 31n Amurrión hasi eta apirilaren 10ean Donostian bukatuko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Tartean, eskualdean barna ibiliko da Korrikako lekukoa. Apirilaren 5ean Baztanen izanen da eta apirilaren 9an Leitzaldean, Malerrekan, Bortzirietan eta Xaretan. / 8

Benito Menniko langileak protestan

Elizondoko ospitale zentrotako langileak mobilizazioak egiten ari dira. Enpresaren jarrera «axolagabea» salatu dute. / 48




Ainhoa Iparragirre leitzarrak Mukwano Lagun GKE aurkeztu digu / 10



Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapa apirilaren 5ean Leitzan / 30



Xabier Ibargarai erratzuarrak pala profesionala uztea erabaki du / 51



Oier Apezetxea goizuetarra erremonte profesionalan / 59

BERA LESACA

Agenda 2022

**MARTXOA
APIRILA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

MARGO ERAKUSKETA
OAIA PERUARENA

Larunbat eta igandeetan
16:00-20:00
Ikastolako areto nagusian
Antolatzailea
Labiaga ikastola

BERA

24 | **DOKUMENTALA**
JOKO ZIKINA

ORTZEGUNA

19:00 Kultur Etxean Info + www.na21.org
Antolatzaileak NafarroaXXI

BERA

26 | **MERKATU**
TITIKIA

LARUNBATA

10:00-14:30 Beheko Plazan **LESACA**

26 | **KULTURA**
LITERATURA
GERALDIAK

LARUNBATA

JULIANA LEVEILLE-TRUDEL
NIRLIT
11:00 Arrano **LESACA**

26 | **DOKUMENTALA**
'TIPULAREN
SEHASKA KANTA',
LANDER GARRO

LARUNBATA

19:00 Harriondoa Kultur Etxea
Sarrerak 3€ | www.lesaka.eus

LESACA

27 | **KONTZERTUA**
MICE

IGANDEA

BERA

Kataku ostatuan

27 | **DANTZA**
RE-DES DANZAI,
ANDREA IRURZUN

IGANDEA

19:00 Harriondoa Kultur Etxea
Sarrerak 5€
www.lesaka.eus

LESACA

01 | **ANTZERKIA**
'APOROFOBIA STOP'
ADOS TEATROA

ORTZIRALEA

GAZTELANIAZ
19:00 Kultur Etxean
Antolatzaileak
Bakea, bizikidetzeta eta
giza eskubideak.
Sarrera doan

BERA

02 | **KONTZERTUA**
JOSEBA IRAZOKI &
LAGUNAK

LARUNBATA

19:30 Harriondoa Kultur Etxea
Sarrerak 7€
www.lesaka.eus

LESACA

03 | **KULTURA**
ZINEMA
HARRIONDOAN

IGANDEA

17:00 Harriondoa Kultur Etxea
Sarrerak 2€
Antolatzailea Irain Eskola eta
Tanturmiarua ikastolako guraso elkarteak

LESACA

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

tti-tapa

30.000 irakurle

Diario de Noticias
9.000 irakurle

Diario de Navarra
6.000 irakurle

Bertze batzuk
4.000 irakurle

Berria
3.000 irakurle

Gara
3.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

♀

%55,6

EMAKUMEAK

♂

%44,4

GIZONAK

ADINAREN ARABERA

14-19 urte	20-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	+64 urte
%7,3	%5,6	%10,7	%13,8	%25,6	%19,1	%17,9

IKASKETA MAILAREN ARABERA

%15,4

Oinarrizko batxillergoa

%36

Unibertsitatea

%15,1

Oinarrizko ikasketak

%33,5

Goi mailako batxillergoa

DATU ITURRIA: CIES, 2021eko bigarren neurketa

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

MAIALEN IANTZI DANBORIENA

Super amatxiak!

Gure amatxien eguneroko jardunak ordu anitz izaten zituen; oilarrarekin iratzarri, gosaria prestatu, haurrak zaindu, arropa garbitu (eskuz urte luzez), etxea garbitu, senarra etorri baino lehen bazkaria egin, gurasoak (bereak edo senarrarenak) zaindu, baserriko lanak, baratzeak, arropa hautsiak josi, afaria, haurrak lokartu, eta denak ohatzera joaten zirenean, biharamuneko lanak aitzinduak utzi. Diruak gidatzen duen mundu honetan, itzalpean gelditu dira etenik gabe lanean aritu baina etxera jormalik ekarri ez duten emakumeak. 24 orduz zartagina eta isatsa eskuan, denen nahiak asetzeko prest egon dira gure amatxiak eta hala ere, anitzen ahotik aditu behar izan dugu; *gure andreak ez baitzuen lanik egiten, berak egiten zituen gauza horiek*. Inork ez du ukatzen gure aitatziek ere lan anitz egin zutenik baina erretiroa ailegatu zitzairen eta geroztik beren pentsioarekin bizi dira, egingo lanaren fruitu. Baina noiz erretiratuko dira gure amatxiak? Gizarteak kontrakoa sinetsarazi nahi izan badigu ere, emakume hauek egindako ordaindu gabeko lana, balioz neurrigabea da. Hortxe gure kaparik eta dominarik gabeko super heroiak!

**«GURE AMATXIEN
ORDAINDU GABEKO
LANA BALIOZ
NEURRIGABEA DA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Kaso egin seme-alabei, portzikaso

2020 urte hasieran, Txinan birus bat zebilela eta bizpahiru hilabetetan gurera ailegatuko zela erranez etorri ziren ikastetxetik. *Lasaaaaai!* erran genien, *Txina urrun da*. Aurren, Ukrainan gerra zetorrela aipatu ziguten eta trankil egoteko erran genien berriz ere. Maiatzean meteorito batek lurra joko duela jakinarazi digute orain. Izerdi hotz hau Covida ote da?

NABARMENTZEKOAK



**NEREA
SORONDO**
BERA



**MADDI ANE
TXOPERENA**
LESAKA

Nerea Arrutirekin bikotea osatuz, Nerea Sorondo Berako aizkolariak irabazi du emakumeen binakako aizkora txapelketa. Bertze txapel bat osatzen ari den palmares ederreko...

Ez erran inori liburua argitaratu berri du Maddi Ane Txoperenak. Gai mingarria hautatu du bere bigarren eleberrian, haurra zela sexu-abusu bat pairatu zuen Lideren istorioa, hain zuzen.

ATZERA BEGIRA



2012-03-22 · TTIPI-TTAPA · 561 zk.

Almandozko eta Belateko tunelak hizpide

Duela hamar urte, Almandozko eta Belateko tunelen segurtasunaz aritu zen Jabier Ayarra Oronozko Suhiltzaileen Parkeko burua TTIPI-TTAPAREKIN. Kezkatua mintzatu zen «bi tunelek zer hobetua» bazutelako. «Instalaziorik seguruen tunelen artean bi hodi izatea» zela zioen: «bat noranzko baterako eta bertzea kontrakorako. Hartara, batean arazoren bat egonez gero, bertzea libre geldituko litzateke ebakuaziorako». Horrekin batera, «Almandozko eta Belateko tuneletan ezbeharren bat gertatuz gero, hurbilen gauden suhiltzaileok, hau da, Oronozkook, gutienez 15-20 minutu behar ditugu parketik harat ailegatzeko eta 22-23 minututan egon gaitzeko operatibo, beti ere, parkean baldin bagaude». Argi utzi zuen «jendeak ezin duela suhiltzaileek atera bitarte esperatu».



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garnio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztekoa
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte

2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerrekako 42€
Leitza 33€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 98€
Amerika eta Australia 147€





KOLABORAZIOAK

LOREA FLORES COMPAINS

Lurra defendatzeagatik epaitegietan

Zertan datoz bat Itoitzeko Solidarioak, Extinction Rebellion, Mugitu Mugimendukoak, Ende Gelände, Arozta edo Greenpeace? Batzuk lurraren defentsari lotutako tokiko herri mugimenduak dira, eta bertzeak ekologismoari lotutako eragile edo erakunde internazionalak. Nahiz helburu antzekoak izan maiz, eskala desberdinetan aritzen dira. Baina oinarrian, denek aukeratu dute desobediencia zibila borrokarako estrategia gisa, eta denek jasaten dituzte horren ondorioak. Neurri bateraino «normala» da desobediencia zibilari lotutako ekintzen ondotik, ondorio ekonomiko edo judizialak izatea. Azken finean, desobediencia zibilaren oinarrian, lege urraketa kontziente bat dago, gobernuen politika edo erabakiak aldatzeko helburuz. Oro har, ekintza hauek prestatzean, izan daitezkeen ondorio ekonomiko eta legalak aurreikusten dira, baita aurre egiteko moduak ere.

Baina, azken aldian, lurra defendatzen duten bertze eragile batzuek ere prozesu judizialei aurre egin behar diete, nahiz eta desobediencia zibila ez duten erabili. Gobernuek zein enpresek erabili duten estrategia bat da, hain zuzen euren ekintzak salatzan dituzten gizarte zibileko eragile zein pertsonak beldurtzeko erabiltzen dutena, protestak isilarazi nahian. Estrategia honi SLAPP (*strategic lawsuit against public participation*) deitzen saio, euskaraz parte hartze publikoaren aurkako auzi strategi-

«EZ DUTE HAIEN JARDUERAREN INFORMAZIOA ZABALTZEA NAHI»

koa. Auzi estrategiko hauek eragile boteretsuek gai publikoan inguruan irregulartasunen bat salatzen dutenak isilarazteko aurkeztutako salaketak dira. Salaketa horien biktima ohikoenak aktibistak, kazetari independenteak edo ikertzai-

leak dira, ezinbertzeko zaintza funtzioa betetzen dutenak.

Ba Nafarroan ez gaude salbu. Joan den irailean Nafarroako eta Soriako hainbat eragilek Caparrosoko behi ustiategiaren inguruko txosten bat eraman zuten Nafarroako Parlamentura. Eragile hauen asmoa ustiategiaren inguruan sortzen ari zen egoeraren berri ematea zen, botere politikoa duten ordezkariak beharrezko neurriak har zitzaten. Honen ondorioz, eragile horietako ordezkariak adiskidetze ekitaldi baterako hitzordua hartu dute Valle de Odietaren eskutik, Caparrosoko behitegiaren jabea den enpresaren eskutik hain zuzen. Antza denez, Valle de Odietak uste du txosten horretako informazioak bere izen ona zalantzan jarri dezakeela, eta beraz, txostenaren egileek irainak eta kalumniak egin dituztela erran eta salaketa paratu aitzinetik, hainbat herritar adiskidetze saiora deitu gaitu.

Baina kontuan hartu behar da txosten horren 178 orrialdeetatik zazpi bakarrik idatzi zituztela eragileek, eta gainontzeko 171k dokumentu ofizialak edo datu ofizialetan oinarritutako dokumentuak direla. Nola liteke hainbat eragile idatzitako zazpi orrialde horiek enpresaren jarduerak eragindako 19 zigor espedienteak baino kaltegarriagoak izatea enpresaren izen onarentzat? Enpresak herri mugimenduak isilarazteko erabili duen estrategia da. Ez dute nahi haien jardueraren inguruko informazioa zabaltzea, balitekeelako ingurumenarentzat eta inguruko pertsonentzat kaltegarria izatea.



MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

Ukraina, talibanak eta bizitzaren garestitzea

Ukrainako gerra hemen inguruan zerbait izan bada, batetik, komunikabide hegemonikoen indar erakustaldia izan da. Talibanekin egin zuten bezala, bat-batean denon ahotan jarri dute gaia. Goazen urte batzuk atzera. II. Mundu Gerra ondoren bi potentzia nagusiren artean zegoen lehia. Mendebaldeko edo Amerikako Estatu Batuen blokea batetik eta Ekialdeko edo Sobietar Batasunaren blokea bestetik. Bakoitzak bere sare militarra, estatu aliatuak eta interesak. Urteek asko egin dute aurrera, ez dago Sobietar Batasunik eta ezta (zoritarrez) komunismoaren mamu indartsurik mundu mailan. Potentzia kapitalista bakoitza bere blokea nagusitu nahian, Ukrainan, gerra langileria xeheak ordaintzen duen bitartean.

Ezin dugu ahaztu Ukrainako gobernua estatu kolpe batez ezarri zela, AEBk bultzatuta, 2014an. Estatu kolpetik ez askora, zenbait telebista eta hedabide itxi zituzten, baita 2015. urtean alderdi politiko komunistak debekatu ere. NATOk Ukrainako Donetsk eta Lughansken 14.000 hildakotik gora utzi ditu. Ez al dute haiek berdin inporta?

Gainbehera ekonomikoan da AEB orain eta ezegonkortasun sozial eta politikoa handitzen ari da. Industria militarri bultzada ematen dio gerra honek, baita egonkortasun soziala mantentzeko aukera ere, *denok Errusiaren aurka* lemapean.

«HAUXE DA KAPITALISMOA, NORBAIT HARRITZEN AL DA JADA?»

Interesen korapiloari gehiago tira gabe, gerra bezain izugarria iruditu zait

hedabide nagusiek zer indar duten nahi duten mezua zabaltzeko. Bonbardaketa etengabea egunkarietan, irratian, hainbat telebista kateetan, errusiarrenganako gorrotoa zabalduz eta interbentziara dei eginez. Twitter bezalako sare sozialak ez dira aparte geratu, errusiar aldeko edukia eta jendearen profilak zentsuratuz eta *pro yankeea* hauspotuz. Errusiar hedabideak (RT edo Sputnik) debekatu dituzte Europar Batasunean. Orain arteko «futbola ez da politikarako» (Kanouté jokalaria 3.000 euroko multa jarri zioten Palestina jartzen zuen kamiseta erakusteagatik adibidez) azkar ahaztu dute «denok Ukrainarekin» zabaltzeko.

Ustezko bakezaleak, «gerrari ez» diotenak, armak bidaltzen. Ustezko adierazpen askatasunaren defentsa egiten dutenak zentsura aplikatzen. Hauxe da kapitalismoa, norbait harritzen al da jada? Bitartean, etxeko tenperatura pare bat gradu jaisteko eskatzen digute, «gerrikoa pixka bat gehiago estutzeko» diote dirua sobera dutenek. Oinarritzko elikagaien prezioa gora, elektrizitatearena, gasolioarena... Prezio guztiak gora soldata izan ezik. Kontrol soziala gora. 2008an zera zioten: krisialdi batean gaude baina pasako da, etorriko dira garai hobeak. Pandemiarekin berdin. Gerrarekin berdin. Ez badugu dena aldatzen, ez da ezer aldatuko.

11 GALDERA LABUR

GARAZI LOIARTE VILLAR GOIZUETAKO GAZTEA

«Emakumeentzat bidea irekia da nahi duenak zahagi dantza egiteko»

Geldirik egoten ez den gaztea da Garazi Loiarte Villar goizuetarra. Dantzetan aritzen da, amarekin Txirikordak josteko proiektua sortu du, musikaren munduan murgilduta dago eta argazkilaritza ere zaletasuna du, besteak beste.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Iruñea eta Goizueta artean bizi den neska bat naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Zaletasun asko dauzkat: argazkilaritza, kirola, mendia... bidaiatzea ere asko gustatzen zait!

2019ko inauterietan Goizueta-ko lehenbiziko emakume zahagia izan zinen eta aurten ere dantzan ikusi zaitugu. Zer suposatzen du horrek zuretzako?

Zahagi dantza egitea asko gustatzen zait eta egun arrunt berezia da niretzako. Bestondo emozional handia eragiten dit.

Eta emakume guztientzako?

Lehenbiziko emakumea izateak niretzat suposatzen duen gauza bera, ez naizela azkena izanen. Orain bidea irekia da nahi duenak dantza egiteko!

Artisaua zara. Zer da Txirikordak proiektua?

Kontsumo kapitalistaren aurrean alternatiba ttiki bat.

Nola hasi zineten proiektuarekin?

Konfinamenduan hasi ginen ama eta biok, etxeko josteko makinari hautsa kentzeko asmoarekin. Orain aitak eta anaiak ere laguntzen digute.



Zer nolako produktuak ekoizten dituzue?

Denetarik egiten dugu! Poltsak, belarrirakoak, nezeserrak, turbanteak, mototsekoak...

Honez gain, argazkilaritzan ere ibiltzen zara. Noiz hasi zinen argazkiak egiten?

Ttiki-ttikitatik etxetik jaso izan dudana zaletasuna da. Argazki kamera bat oparitu zidaten orain duela urte batzuk. Hala ere, azken aldian, telefonoarekin ateratzen ditut argazkiak.

Zeri nahiago izaten duzu argazkiak egin?

Egunaren arabera izaten da. Bidaiatzea gustuko dut eta horrekin uztartzen dut argazkilaritza. Nire zakurra ere nazkatu samarra daukat, gizajoa!

Zure asmoak epe motzera?

Askapenako Brigadak martxan dira... Maleta egiten hasiko naiz badaezpada!

Eta epe luzera?

Goizuetara bueltatzea eta baserri bat eraikitzea!



Bilduma berria

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEA MINTZO

Etxebizitzaren gorabeherak

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

80ko hamarkadaren erdialde pasatxoan ginen, eta, ordu-rako, Nafarroan bazegoen foru lege bat, etxebizitzaren oztopo arkitektonikoak erregulatzen zituen. Garai hartan, arkitektoa zen lehengusu batek, jakinarazi zidan, Iturramako leku jakin batean, babes ofizialeko etxebizitzak egin behar zituztela eta orduan izena ematera animatu nintzen.

Foru lege hura zela eta, pertsona elbarriren batek eskatzen bazuen etxebizitza bat multzo hartan, eraikitzaile behartuta zegoen, bizitegi bat gutxienez, elbarrientzat egokituta egiteko.

Oker eta banago, garai hartako etxegilea San Martin enpresa izan zen. Ni oso ilusionatuta nengoen. Gainera, lehengusuak oso garaiz informatu ninduen, pentsatzen nuen aukera ona izanen nuela, nik hautatutako etxebizitza eskatzeko, hau da, solairua, orientazioa eta abar. Baina, ez, San Martin etxegileak jakinarazi zidan, beraiek etxebizitza jakin bat esleitu zutela afera harentzat eta nik ez nuela hautatzerik. Are eta gehiago oraindik, handik egun gutxira, ni presionatzeko-edo, esan zidan beste pertsona bat ere interesatuta zegoela eta hamabost eguneko epea ematen zidala nik azken hitza esateko, alegia, ea etxebizitza hartzen nuen ala ez.

Bizitetxe hura aztertzen hasita, zera ikus zitekeen,

hots, lehenengo solairuan zegoela, beraz, ikuspen gutxiago zeukan, eta, ipar-mendebalderantz zegoen orientatuta, hau da, ilunagoa, hotzagoa, hezeagoa eta bat eta beste; hitz gutxitan, elbarrientzat okerrera, eta garestiagoa, guk bero handiagoa behar dugulako. Baina, hura omen zen elbarrientzat bideratuta zegoen etxebizitza bakarra eta ez omen zegoen beste deus egiterik, hau da, onartu ala utzi. Gainera, barruko terrazara ez nuen ateratzerik, atean bertan porlaneko maila handi bat jarri zutelako, eta, zergatik?, ba, etxeko estatutuen arabera, barruko terraza hura erabilpen publikokoa zelako, (...) atari hartako, solairu guztietako pertsonen eskubidea zutela barneko terraza hura erabiltzeko, nahiz eta gero eskubide hura aurrera ez eraman, baina, hala ere, lehenengo etxebizitzan bizi direnek garbitu eta jaso behar dituzte goitrik erortzen diren gauza guztiak: zigarro muturrak, arropak, plastikoak, obra-hondakinak, zaborrak...

Azkenean, presio haren aurrean, eta, ziurgabetasun guztiaren erdian, onartu beste erremediorik ez nuen izan, (...) badaezpada ere, bere ondorio kaxkar guztiak.

Beste pertsona elbarri bati ere interesatzen ote zitzaion etxebizitza hura? Auskalo! Ez dut inoiz horren berririk izan; segur aski, ez, baina ez nuen hainbeste arriskatu nahi.

Kontua zera da, jakinarazi ziguten arabera, etxebizitza hura izan omen zen, Iruñean

BOTA BERTSOA

URKO GARTZIA ALEMAN
LEKAROZKO BERTSOLARIA

Mozorro gehiegi

Doinua: Nork bere mundu intimo



Inauteriak ez ote unea mozzoratzeko? barregarri ez direnak, irrigai bilakatzeko. Beharginak, errege, zein xeke trajeak jantzeko, edo erreprimiteuk trikornioak jartzeko. Tarte hartu bezala, aurpegiak estaltzeko, tarte hartu dezagun begi biak zabaltzeko. Antzeztu dugunez nahiko inauteriak tarteko, Pasa direnez ordua da maskarak erantzeko.

Mozorro fabrikatzaile onena da telebista NATO bilakatzeraino ekintzaile aktibista. Diktadore bat bihurtuz Lehendakari altruista egi osorik ez dator baletor behintzat erdizka... Irabazten berdin du zein potentzi inperialista irteten den langilea egongo da dindilizka. Irtenbide bakarra da bide gorri komunista helburua izan behar da iraultza sozialista.

elbarrientzat egin zuten lehenengo bizitoki egokitua; aitzakia hura atera ziguten, besterik ez bada ere. Nik ez dakit egia izanen zen ala ez, baina, (...) halaxe gertatu zen.

Hori guztia, 1986 urte inguruan jazo zen, baina, hala eta guztiz ere, badago beste xehetasun txiki bat gehiago oraindik, (...) hau da, nire logela egin behar zuten modu berean egin izan balute, kalea ezin izanen nuen ikusi urrutikoa baino gorpil aulkian eserita egonda, leihoa garai samar gelditzen zitzaidalako. Arazoa aurreikusita, etxegileari leiho hura (...) pixkatxo bat jaisteko eskatu

genion, hurbilagoko gauzak eta pertsonak ere ikusi ahal izan nitzen, baina, ez!, etxegileak ezinezkoa zela esan zigun, udalak ez zuela uzten, estetikarengatik. Orduan, nire logelako zorua hamar zentimetroz igotzea iradoki genion, (...). Hura, bai, proposamen hura, azkenean, onartu ziguten, baina gainkostua nik neronek ordainduz gero, jakina!

Argi dago San Martin enpresako nagusiak ez zezudela prest deus oparitzeko, baina, ordainetan, eta, urte mordoxka bat pasatu bada ere, hementxe dute nire mendeku txikitxo hau.

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

2022ko martxoak 24 edo 2022ko martxoaren 24a?

Euskaltzaindiaren arabera, biak zuzenak dira. Baina 2022ko martxoak 24 tituluetan eta aposizioan bakarrik erabil daiteke, alegia, deklinabide-atzizkirik erantsi gabe idaztea dagokionean bakarrik.

- a) 2022ko martxoak 24 ZUZENA DA
- b) *2022ko martxoak 24a OKERRA DA
- c) *2022ko martxoak 24an OKERRA DA
- d) *2022ko martxoak 24ko OKERRA DA
- e) *2022ko martxoak 24tik OKERRA DA
- f) 2022ko martxoaren 24a ZUZENA DA
- g) 2022ko martxoaren 24ko ZUZENA DA
- h) 2022ko martxoaren 24tik ZUZENA DA

-*Mendi lasterketak martxoak 20tik 24ra izanen dira > Mendi lasterketak martxoaren 20tik 24ra izanen dira.

-*Martxoak 24 eginen dugu bilera > Martxoaren 24an eginen dugu bilera.

Eta bertze ohar bat: aposizioan, hiru modutara eman daiteke asteko zein egun den:

-martxoaren 24an, ortzegunean

-martxoaren 24an, ortzeguna/ortzegunarekin, (...)

Hona hemen adibide gehiago:

-Zenkari bidez ere eman daiteke, dagozkien lotura-bokalak zainduz betiere: 2022/03/24; 2022-III-24; 2022-03-24tik; 2022/III/24ko...

Ez da zuzena era honetara:

-*Martxoaren 24an, ortzegunez, joanen dira.

-Gaur, martxoak 24, aldizkaria etxez etxe banatu dute.

Osatu esaera

11

11

22

BAT BERTZEAREN


2+1

G B

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Korrika, hitzetatik ekintzetara egiteko

Martxoaren 31n Amurrión hasi, eta apirilaren 10ean Donostian bukatuko da Korrikaren hogeita bigarren edizioa. 'HitzEkin leloa izango du aurtengoak, «hitzetatik ekintzetara» igarotzea aldarrikatuko dute

A. LARRETXEA

Esperotakoa baina urtebete beranduago, badator Korrika. Martxoaren 31n Laudion hasi, eta apirilaren 10ean Donostia iritsi bitartean Euskal Herriko zazpi lurralde, dozena eskualde eta ehunka herri gurutzatuko ditu euskararen aldeko lasterketa erraldoiak. *HitzEkin* izanen du leloa 22. edizioak, *HitzEkin*, hitzetatik ekintzetara igarotzeko aldarria egin nahi delako aurtengoak. Hizkuntza bat hitzekin osatzen delako, baina, ekimenek eraikitzen dutelako hizkuntza baten komunitatea. «Euskarak aitzinera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara, salto eginen dutenak». Halaxe aurkeztu du AEKK aurtengoa.

Euskal Herria gurutzatzeko bidean, gure eskualdeko lurak ere zapalduko ditu Korrikak. Apirilaren 5ean iritsiko da eskualdera, Baztanera. Baigorritik iritsiko da lekukoa Erratzun barna 05:55 aldera. Handik Arizkunera (06:15) joanen da eta gero Elizondora (06:47). Ziga (07:36), Berroeta (08:02) eta Almandoz (08:21) giblean utzita, Ultzama aldera joanen da.

Ondoko egunak eskualdetik kanpo eginen ditu Korrikak, baina apirilaren 9an, larunbatean, berriz ere bueltan izanen da. Gauerdian, Berastegitik Leitzara (00:35) sartuko da lekukoa. Handik Basakabin barna, Ezkurrara (01:53) joko du. Maldan beheiti lekukoak Zubieta (02:54) izanen

du hurrengo helmuga, handik Doneztebe aldera (03:40) joateko. Sunbillara (04:06) joanen da gero, eta handik Bortzirietara sartuko da. Bortzirietan, Igantzi (05:07), Lesaka (05:40) eta Bera (06:17) zeharkatuko ditu Korrikak eta Ibardinen barna, Lapurdirako bidea hartuko du.

Urruñatik (07:11) eta Azkainetik (07:44) pasatu ondotik, Senperen (08:23) eta Saran (09:34) barna ibiliko da eta Zugarramurdi (10:40) utzita, Ainhoarako bidea egingen du. Ondoko orduetan Lapurdin izanen da eta apirilaren 10ean Gipuzkoara sartuko da. Egun horretan, 12:30 aldera bukatuko da Donostian, eta bertan irakurriko dute eskuz esku



Hodei Buldain, Larraungo AEK.

«EUSKARARI IKUSGARRITASUNA EMATEN DIO KORRIKAK»

ibiliko den lekuko barrenean egon den mezua.

Azken edizioako trap eta doinu urbanoak alde batera utzi, eta aurtengorako pop doinuen aldeko apustua egin du AEKK. Sustrai Colinak egin ditu abestiaren hitzak, eta Nerea Urbizu arduratu da hitzei doinua jartzeaz. Urbizurekin batera, Ane Garcia eta Anarik abestu dute kanta; hiru belaunalditako hiru emakumeren ahotsek.

Prestaketa lanak

Hamaika egunetakoa izango da Korrikaren lekukoaren bidaia, baina, Korrika orduan ibili dadin, aitzinetik hilabeteetako lan handia egin behar izaten da. Estebe Apezetxe eta



Estebe Apezetxe, Baztango AEK.

«IKARAGARRIA IZAN DA KORRIKA BATZORDEEN ERANTZUNA»

Hodei Buldainei ongi dakite zer den lan hori egitea, Baztan-Bidasoko Korrikaren arduraduna da lehena, Leitzaldekoa bigarrena, eta azken hilabeteak buru-belarri darमतate egiteko horretan. Lan handia izanagatik, ordea, gogoz hartu dute Korrika antolatzekeo ardurua, eta iazkoa bertan behera utzi ondotik, «inoiz baino ilusio gehiagorekin» ari dira egiteko horretan.

Antolatzaileak ez ezik, herritarrek ere Korrika heltzeko gogoz sumatu dituzte biek, eta orain artean jasotako laguntzarekin pozik dira. «Aurtengo Korrika Batzordeen erantzuna ikaragarria izan da bertze behin ere, hunkigarria. Gero eta individualistagoak garen honetan, eskertzekoa da bere denbora librea trukean deus ere eskatu gabe ematen duen jendea egotea», azaldu du Apezetxek. Buldain bera ere «pozik eta eskertuta» dago jendeak emandako erantzunarekin, eta batez ere antolaketan lanetan duen lehen urtearekin, herritarrek eta euskalgintzako kideek eskainitako laguntzarekin. Kontatu duenez, Leitzako Batzordean denetarik jendea aurkitu du: «Aurreko urteetan batzordean ibilitako jendearekin aritu gara lanean aurrean ere: langileak, gazteak, gurasoak, eta denak oso prest egon dira laguntzeko».

Ilusioa eragiten duen ekitaldia da Korrika, eta bien ustez beharrezkoa zen azken bi urteen ondotik horrelako ekitaldi bat antolatzea. Apezetxeren hitzetan, gainera «pandemiarekin euskara bigarren mailan gelditu da erakundeetan eta euskalgintza ere ez dago momenturik onenean». Horregatik inoiz baino beharrezkoagoztat du Korrikak «beti sortzen duen ilusioa». Korrikak euskararen ikusgarritasunean duen eragin positiboa nabarmendu du Buldainei: «Euskaltegiari eta euskarari ikusgarritasuna ematen dio, eta balio du euskaltegian ere

22. korrika HITZETAKIN korrika.eus

Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Mar. 31	Amurrio-Basauri
Api. 1	Basauri-Agurain
Api. 2	Agurain-Lerin
Api. 3	Lerin-Irunberri
Api. 4	Irunberri-Donapalau
Api. 5	Donapalau-Acedo
Api. 6	Acedo-Bilbo
Api. 7	Bilbo-Mutriku
Api. 8	Mutriku-Berastegi
Api. 9	Berastegi-Urruña
Api. 10	Urruña-Donostia

APIRILAK 5, ASTEARTEA	
Erratzu	05:55
Arizkun	06:15
Elbete	06:43
Elizondo	06:47
Gartzain	06:58
Irurita	07:05
Ziga	07:36
Aniz	07:49
Berroeta	08:02
Almandoz	08:21

APIRILAK 9, LARUNBATA	
Leitza	00:35
Ezkurra	01:53
Zubieta	02:54
Ituren	03:20
Elgorriaga	03:33
Doneztebe	03:40
Sunbilla	04:06
Igantzi	05:07
Lesaka	05:40
Bera	06:17
Ibardin	07:05
Urruna	07:11
Azkaine	07:44
Senpere	08:16
Sara	09:34
Zugarramurdi	10:40

Korrikak eskualdean eginen duen ibilbidea, orduka. TTPI-TTAPA

ohiko normaltasunera itzultzen laguntzeko azken bi urteetan ondotik».

Korrika, AEK-aren sustengu garrantzitsua

Ezin da aipatu gabe utzi gainera, Korrikak finantzatzen duela hein batean AEK-ren jarduna, eta azken bi urteetan egin ahal ez izateak ere eragin ekonomikoa izan duela erakundearen finantza egoeran. Hori nabarmendu nahi izan du Baztan-Bidasoko ardura-dunak: «Gure aurrekontuen parte garrantzitsua da eta hala izaten segituko du instituzioek euskararen ikaskuntzaren aldeko apustu sendoa egiten ez duten arte, hitzetatik ekintzeta pasatzen ez diren arte».

Korrika igaro aitzinetik egin beharreko lanik garrantzitsuenetako bat izaten da kilometroen salmentarena, izan ere Korrikak bidea egiten badu, hori kilometroak erosten dituzten herritar, erakunde, eta elkarteei esker izaten da. Aurtengoan ere kilometroen salmenta martxa onean doa eskualdean. Hala kontatu dute Buldainek eta Apezetxek. «Erantzun oso positiboa jaso dugu urtero kilometroak erosten dituzten jendearen partetik: Eskola, udala, Sarrioko langileak, herriko koadrila batzuk...», nabarmendu du Buldainek. Apezetxeren hitzetan ere erantzuna «ona» izan da. Aurten, gainera, inoiz baino kilometro gehiago eginen

ditu Korrikak eskualdean eta, tartean inoiz ibili gabeko bi-deetatik ere igaroko da, Zugarramurdi eta Urdazubi inguruan, erraterako. «Bortzirietako kilometro guztiak salduak daude, eta Xareta eta Maleurrekan ere akitzen ari dira. Baztanen, kilometro aunitz izaki, gehiago kostatzen ari da; eta ohikoak diren erosleez gain talde berriengana jotzen ari gara». Horregatik, bertan kilometroren bat erosteko interesa duen orori Baztango euskaltegiarekin harremanetan jartzeko eskatu dio.

Kilometroak saltzea, Korrika Batzordeak antolatzea, Korrika Kulturalako ekitaldiak antolatuta eta kudeatzea... Denetarikoa lana egitea egokitzen

zaie biei. Apezetxek kontatu duenez «enbor nagusia lasterketa bera den arren, adar aunitz ditu Korrikak eta mugitzen duena ikaragarria da». Orain, Korrikarako egun gutxiren faltan, Korrika kulturalaren ekitaldiak antolatzeko lanetan murgilduta daude, korrika iristen denerako giroa berotu dadin. Hala, eskualdean bat baino gehiago izanen dira Korrikaren bueltan eginen dituzten ekitaldi kulturalak. *Hautsi da Anphora* ikuskizuna izan zuten Senperen, *Nekatutak* bakarrizketa Iruritan Korrika besta Baztanen, *Miñan* liburuaren aurkezpena Zugarramurdi... Hala ere, oraindik izanen dira ekitaldi gehiago ere Korrika Kulturalaren barrenean. Martxoaren 31n aurtengo ediziorako espresuki prestatutako *Uhinak* dokumentalaren emanaldia izanen da Leitza Herri Aretoan. eta ondotik Korrikak Leitza utzita irudiak erakutsi dituzte.

Korrika, baina, ez hori soilik

Korrika Kulturalaz harago, lasterketa gure eskualdetik igaroko den egunetarako ere egitaraua antolatu dute eskualdeko hainbat herritan. Batzuetan, Korrika pasatu aitzinetik izanen dira ekitaldiak. Leitza, adibidez, pintxo potea luzatu eta animazioa izanen da gaztetxean. Bertze herri batzuetan, aldiz, lasterka ondotik izanen dituzte ekintzak. Igantzin gosaria eta bertso bazkaria izanen dituzte, Beran, aldiz, Korrika Eguna antolatu dute eta bertso bazkaria, eta elektrotzaranga izanen dituzte. Horiiek guztiak batera, gainera, hainbat herritan Korrika Txikiak antolatu dituzte. Ekitaldi guzti horien informazio zehatza hurrengo aldizkarian irakurtzeko aukera izanen da.

Korrikak beraz, euskararen aldeko aldarria eta jai giroa uztartuko ditu berriz aurtengoan. Helburua argia du, ordea: hitzetatik ekintzeta igarotzea.

«Zein gutxirekin zein pozik bizi diren ikustea hunkigarria izan da»

AINHOA IPARRAGIRRE PERURENA UGANDAN IZAN DEN LEITZARRA

Mukwano Lagun Gobernu Kanpoko Erakundearen bidez, Ugandako Budhagali herrian izan da leitzarra, bere familiarekin batera. Hilabete eskas pasatu dute eta bizitakoaren berri eman dio TTIPI-TTAPARI. Argi utzi du berriz bueltatuko dela

G. PIKABEA | LEITZA

«Aspalditik oso barneratua dut egunean egunekoa bizi behar dela, gaur hemen gaudela eta bihar ez dakigula non egonen garen, baina Ugandako bidaiaren filosofia hori argiago ikusi dut». Halaxe aitortu du Ainhoa Iparragirre Perurenak (Leitza, 1973). Mukwano Lagun Gobernu Kanpoko Erakundearen bitartez, Ugandako Budhagali herrian izan da alabarekin eta senararekin batera, eta «oso esperientzia polita» izan dela dio. «Oso atzeratuak» bizi badira ere, «nik uste baino kontentua go bizi» direla kontatu du.

Zergatik Uganda?

Duela 16-17 urte, gure lagun bat Mukwano Lagun Gobernu Kanpoko Erakundearekin lanean hasi zen. Facebooken bidez erakundearen lana asko jarraitu izan dut, eta aspalditik nuen hara joateko gogoia. Alaba heldua izan arte itxaron dugu eta joan den urte bukaeran joateko aukera ikusi genuen. Abenduaren 31n ailegatu ginen Ugandara, eta urtarrilaren 26ra arte han egon ginen.

Nola prestatu zenuten bidaiak?

Egia esan nahiko azkar. Normalean, urte zaharra hemendik kanpo oporretan pasatzen dugu eta aldi honetan ere betiko tokira joateko hartua genuen. Azken momentuan, ordea, azken hasieran, Ugandara joatea erabaki genuen. GKEan ari den lagunari deitu eta berandu genbiltzala esan zigun, txerto

batetik bestera hilabete bateko epea behar izaten baita... Nahiko justu ibili ginen nazioarteko txertaketa zentrorra joan eta txertoak jartzeko egutegiarekin. Txerto asko izan ziren, eta Covidarekin egin genituen bueltak, zer esanik ez. PCR gora eta PCR behera ibili behar izan genuen. Txertaketan eta PCRren kontua estresagarria izan zen, baina

bestela ez genuen arazorik izan. Hegaldiak hartu eta GKEk aurkitu zigun lotarako tokia.

Maletan zer eraman zenuten?

Guretzat fakturatzan ez diren hiru maleta tiki eraman genituen, eta hiru maleta haundiak GKEren esku jarri genituen, haientzako materiala garraiatzeko. Josteko makina bat, eta beste material batzuk eraman



Afrikastolan ateratako argazkia, bazkalorduan ikasle bat bazkaltzen.



Iparragirrek eta bere familiak jatekoa eta arropa erosi zizkion familia honi.

genituen, tartean, arropa erosi berria, guk han erabili eta gero haiei uzteko asmotan.

Nola aurkeztuko zenuke Mukwano Lagun erakundea?

Jinjako eskualdean dagoen Budhagali herrian lanean ari da. Haien hizkuntza lusogera da eta lusogeraz *mukwanok lagun* esan nahi du. Proiektu inportanteena afrikastola da baina hortaz aparte, herriko jende askori laguntzen diete. GKEko gure lagun honek esaten duen bezala, garrantzitsua da hezkuntza ona izatea, baina oraindik garrantzitsuagoa da ongi deskantsatzea. Eta hala, GKE hau izan zen Budhagalira lehen aldiz koltxoiak eraman zituen. Orain gehienek koltxoietan lo egiten dute, oraindik oheetan ez, baina orain dela 17 urte lurrean lo egiten zuten.

Zertan aritzen da afrikastola?

Lau, bost eta sei urteko haurrak hartzen dituen ikastola da. Urte batzuek Lehen Hezkuntzakoak ere hartu zituen, baina ume gehiegi ziren. Lau, bost eta sei urtekoak 150-160 izan daitezke, hiru gelatan banatuak, eta nahiko gela tikiak dira. Hezkuntzaz gain, haurrei egunero janaria ematen diete, eta hori ere oso garrantzitsua da. Orain dela 17 urte Budhagaliko ume guztiek tripa hazia zuten, eta gaur egun, hori ia-ia desagertu da, Mukwano Laguni esker. Aipatu bezala, Haur Hezkuntzan ari da Mukwano Lagun, baina behar bereziak dituzten lehen eta bigarren hezkuntzetan ari diren familia batzuekin ere harremana mantentzen dute. Mukwano Lagunetik ateratakoan, dirulaguntzak izaten dituzte eskolan jarraitzeko, baina han dena pribatua da eta batzuek ez dute horretarako aukerarik.

Nola bizi dira?

Gu egon ginen inguruan, Mukwanok laguntza haundia eman du eta nahiko ongi daude. Beste auzo batzuetan Budhagalin baino askoz okerrago bizi dira. Dena den, ez dute pretentsio haundirik, eta egunean zehar egiten duten guztia bizitzeko da. Goizean jaiki eta, gehienbat



Afrikastolan lan egiten dutenen taldeko argazkia, tartean, Ainhoa Iparragirre bere familiarekin.

umeak eta emakumeak, putzura joaten dira ura ateratzera. Han ez dute garbigailurik, eta ura garrafoietan eramaten dute etxera, eta arropa garbitzen joaten zaie goiz erdia. Gero arropak zabaldu, eta janaria bilatu. Dirua daukanak jatekoa eros dezake, baina ez daukana lurretik hartutako azukredun makilatxo batzuk janez edo beraien lurretan dituzten bananak eta pinak janez elikatzen da. Asko dira makilatxo horiek jaten dituztenak. Eta bazkaria bukatzen dutenean, afaria lortzea da beraien hurrengo erronka. Umeak, berriz, edozein gauzarekin aritzen dira jolasean. Egunean egunekoarekin bizi dira. Jinja hiriburura joateko bodaboda taxiak erabiltzen dituzte, baina horretarako ere dirua behar dute. Dena den, osasunez ongi badaude, oso pozik bizi dira. Okerrena gaixo daudenen egoera da. Askok galdetu digute ez ote genituen ekarri nahi hona. Ongi daudenak han beraien erritmoan,

ederki bizi dira eta ez nituzke ekarriko, baina gaixorik daudenak bai; han gaixorik dauden asko hemen ez liriratekeela gaixorik egonen. Hilabete eskasean behar haundiak zituztenak ikusi genituen, baina gaixorik zegoen 14-15 urteko neska gazte batek guztiz hunkituta utzi gintuen. Beragatik ezin genuela deus egin ikustea gogorra izan zen. Hemen ez zen gaixorik egonen, eta beranduegi zen hona ekarri eta zerbait egiteko. Arantza hori hor gelditu zait.

Zertan aritu zineten?

Gure hasierako asmoa oporretan joatea zen. Hasierako lauzpabost egunetan Mukwano Lagun erakundearen laguntza aritzea pentsatua genuen, eta

«HAN GAIXORIK DAUDEN ASKO HEMEN EZ LIRIRATEKE GAIXORIK EGONEN»

gero, gure kabuz, resort batera oporretara joatea, eta bueltan beste lauzpabost egunez Budhagalira bueltatzea. Azkenean, resorteko gure oporrak hiru egunetan gelditu ziren, eta gainerako egunak eskola inguruan pasatu genituen. GKEkoek esaten zigutena egiten genuen. Behar bereziak zituzten familiengana joan, medikuarengana lagundu, haiekin egon, ikastolan zerbait egin... Ikastola bi urtez itxita eduki ondoren, urtarrean ireki zuten. Aurreneko astean ikastola garbitzen eta margotzen aritu ginen. Arropak eta janaria ere erosten genizkien, eta asko eskertzen ziguten. Oso sinestunak dira eta ia-ia egunero jaungoikoari esker joanak ginela esaten zi-

«ASKO ESKERTZEN DUTE EMANDAKO LAGUNTZA GUZTIA»

guten. Gu pasatzean belaunikatu jartzen ziren, ez jartzeko esanda ere. Hura gehiegizkoa zen. Ez genuen halakorik espero. **Ikastola bi urtez itxita egon zela aipatu duzu. Horren eragina ere sumatuko zuten, ez?**

Bai, asko. Lau, bost eta sei urterekin eskolatzen dira, eta bi urtez itxita egon ondoren, ikastolara sartu ziren ia guztiak berriak ziren, inoiz eskolatu gabekoak. Hizkuntzaren gaia ere hortxe dago. Ikastolan lusogeta mantentzen dute baina ingelesa ere erakusten diete, eta eskolara joaten ez badira, ez dute ingelesa ikasteko aukerarik. Han 52 hizkuntza daude, eta herritik 50 kilometrotara beste hizkuntza bat dute. Hortaz, oso garrantzitsua da ingelesa ikastea jendearekin komunikatu ahal izateko.

Zein dira gabeziarik haundienak?

Alde batetik, janaria aipatuko nuke, beraiantzako oso garestia delako. Merkatuan arropak eta oinetakoak erosteko moduan daude, baina supermer- →



Iparragirren alaba, Goiatz, afrikastolako patioan haurrekin jolasean.

katuan jatekoarekin karroa betetzea oso-oso garestia da. Familia batzuei laguntzeko karroak erosi genituen eta bakoitza ehun euro inguru kosta zitzaigun. Hori beraien bizimodurako oso garestia da. Horrez gain, gasolina ere bi eurotan dute, eta behar dute, besteak beste, ospitalera joateko.

Badute diru iturririk?

Luraberatsa dute. Etxetan bizi dira eta inguruan gehienek badute lurra, bananekin, pinekin... Merkatuta saltzen dituzte, baina egunerokoan ez dute dirurik erabiltzen.

Genero desberdintasuna nabaria da?

Bai, oso nabaria. Mukwano Lagun erakundearen bidez, hemengo jende asko joaten da eta Budhagalin badute gure kulturaren eta ohituren berri, baina orokorrean, emakumeen lana gogorragoa da eta neskek ez dituzte mutilek dituzten aukerak. Adibidez, semeak etxetik joaten dira, baina alabak etxean gelditzen dira.

Kanpotik laguntza handia ailegutzen zaie?

Budhagalin Mukwano Lagun elkartearen laguntza handia joan ginen batean, Unicefeko kaxa asko ikusi genituen. Askotan hemendik laguntzea kostatzen zaigu, ez dakigulako nora joaten den laguntza, eta alde horretatik, bidaia hau oso garrantzitsua izan da han utzi dugun guztia bertakoei laguntzeko izan dela ikusi dugulako. Dena den, ospitalean mafia ere sumatu genuen. Gure lagun bat aita izan zen, eta jaio eta bi egunetara, umeak bakteriatu zuela eta tratamendua beharko zuela esan zioten. Ospitaleak publikoak dira, eta esan zigitenez, gu haiekin geundelako

aipatu zieten ordaindutako tratamendua behar zuela, bazekitelako guk ez genuela arazorik izaneren eskatzen zituzten 150.000 txelinak ordaintzeko.

Pandemiak egunerokoan eragin die?

Covidarekin ez daude batere larrituak. Gu egon ginen hotolean uste dut denek harrapatu zutela, baina lanean segitu zuten. Katarro bat bezala pasatzen dute, garrantzia gehiegirik eman gabe. Malariak gehiago kezkatzen eta ikaritzen ditu.

Nolako balorazioa eginen zenuke?

Oso esperientzia ona izan da, ez nuen horrelakorik espero. Bidaia hunkigarria izan da, alde batetik, nik uste baino askoz ere atzeratuagoak bizi direlako: lurreko makilak jatea, hanka

hutsik ibiltzea, dutxatzeko aukerarik ez izatea... Baina bestetik, zein gutxirekin zein pozik bizi diren ikustea hunkigarria izan da. Nik uste baino kontentutago bizi dira. Osasuna baldin badute, ez dute gehiago behar. **Zerbait ikasteko balio izan dizu?** Aspalditik oso barneratua dut egunean eguneko bizi behar dela, orain hemen gaudela, eta ez dakigula bihar non egonen garen. Baina bidaia honekin filosofia hori argiago ikusi dut. Daukaguna eskertu behar dugu, eta osasuna izatea da garrantzitsua, bai hemen, bai Afrikan. Gero gerokoak.

Bueltatuko zinateke berriz?

Bai, bai, berriz bueltatu beharrak gara. Hitz eman diegu. Alaba 21 urteko neska baten oso laguna egin zen eta aita izan zen beste batekin harreman handia egin genuen. Oraindik ia-ia egunero GKEko telefonotik bideoak bidaltzen dizkigu eta *aita* eta *ama* deitzen digu. Alde egin behar genuenean, aireportura joan ziren gurekin, eta agurra oso traumatikoa izan zen. Hitz eman genien bueltatuko ginela, eta bueltatuko gara, seguru.

Eta noiz bueltatuko zarete?

Covidik ez dagoenean. Joan ahal izateko 330 euro ordaindu genituen PCRak egiten eta beste horrenbeste bueltatzerakoan. Han diru horrekin zenbat gauza egin daitekeen ikusita amorrua ematen du horretan gasatzeak. Covidagatik bidaiatzeko dauden exijentziak onartezinak dira. Ugandara bueltatzen garenean, ez nuke PCRak egiten horrenbeste gasatu nahi.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Alde batetik, denei hara joateko deia eginen nieke, eta bestetik, elkarteari laguntzeko poltsak ekarri ditugula aipatu nahi nuke. Mukwano Lagunen diru iturri nagusia bertako materialaren salmenta da. Helburu horrekin han egindako 200 poltsa ekarri ditugu eta hamar eurotan salgai ditugu. Poltsa horiek nire ahizpak Leitza eta nik Iruñean dauzkatz salgai. Facebooketik ere ari gara. Diru guztia elkar-tearentzat izanen da.

«GARRANTZITSUENA OSASUNA IZATEA DA, BAI AFRIKAN, BAI HEMEN»

«HITZ EMAN DIEGU BERRIZ BUELTATUKO GARELA»

Zure etxebizitza hutsa Nasuvinsari errentan emaiozu

Tramite administratibo guztiak egiten ditugu, eta zure etxebizitza hutsa Nasuvinsak kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsari uzteko beharrezko konponketez arduratzen gara.

- **Kezkarik gabe:** hilero kobratzen da, seguru.
- **Arriskurik gabe:** etxebizitza egoera onean itzuliko zaie.
- **Abantaila fiskalekin:** lortutako etekinen %40ko murriztapena PFEZean.
- **Eta eskura ezazu 1.500 eurora arteko diru-laguntza** *(Hiru hilabeteko errentaren adinakoa)



ESKATU HITZORDUA: 848 420 600
bolsaalquiler@nasuvinsa.es
www.vivienda.navarra.es

Ezustekorik gabe, kezkarik gabe eta berme osoz:

- Errentamendu **kontratua**
- NASUVINSArekin eta doako aholkularitza.
- NASUVINSAk kontratatutako etxerako arrisku aniztarako aseguru.
- Etxebizitza egoera onean itzuliko da kontratua amaitzen denean.

Abantailak

- Komunitateko **gastuen ordainketa** (gehienez ere 50 euro hilean).
- **Egokitzapen gastuen finantzaketa**, %0an eta 12.000 eurora arte.
- **Eraginkortasun energetikoko ziurtagiria** NASUVINSaren kontura.

Lan deialdia eta lan poltsa ireki ditu Sastrako enpresak

Asteburuetan lan egiteko atezain postuaren deialdia ireki du eta kirol teknikari eta bertze atezain postu baten lan poltsa

A. LARRETxea

Udal kiroldegia kudeatzen duen Sastrako Kirol Zerbitzuak enpresa publikoak asteburuetan atezain lanpostua betetzeko lan deialdi publikoa, eta atezain eta kirol teknikari lanpostuak betetzeko lan poltsak ireki ditu. Deialdian parte hartzeko eskabideak Berako kiroldegian astelehenetik ortziralerara 09:00etatik 13:00etara, edota info@sastrakokirola.eus helbidera bidali beharko dituzte martxoaren 24ko 13:00ak baino lehen. Eskaerak jasota, martxoaren 28ko astean

izanen dute proba teorikoa aukeratutako hautagaiek, eta ondotik egingen dute merezimenduen kalifikazioa eta elkarrizketa pertsonala. Asteburuetako atezainaren postuaren kasuan, aukeratutako hautagaia apirilaren 2an hasi beharko da lanean. Lan poltsaren kasuan, aldiz, etorkizunean sor daitezkeen beharrik betetzeko erabiliko da deialdian sortutako zerrenda.

Informazio gehiago, eta aurkezten beharrek eranskina Berako Udalaren webgunean daude eskuragai.

Bidasoa ibaiaren garbiketa antolatu dute ekainaren 18rako

TTIPI TTAPA

Irungo, Hondarribiko, Hendaiako, Biriaturko, Urruñako, Lesakako eta Berako udalak Bidasoa ibaiaren garbiketa erraldoia antolatzen ari dira ekainaren 18rako. Recicla-Birziklatu elkartearekin batera egingen dute garbiketa hori

herritarrekin batera auzolanean.

Asmoa errekarren bi bazterrek garbitzea da, herritarren laguntzarekin. Oraindik ere antolaketa lanetan ari dira, eta datozen asteetan emanen dituzte garbiketa horren xehetasun gehiago.



Mendi pistetan gehienez 15km/h-ko abiadura ibil daiteke. TTIPI TTAPA

Mendiko pistetako seinaleak berriro dituzte

A. LARRETxea

Berako Udalak ordenantza bidez arautua du mendi pista eta bideen erabilera, baina, horiek betetzen ez direla eta, mendi bideetan debeku eta abiadura seinaleak berriro ditu

Ordenantzaren zehaztua dago, motozikletek eta 3,5 tona baino pisu gutxiago duten ibil-

gailu motordunek ibiltzea libre izanen duten pisten zerrenda: Sarraillako pistatik Ibardineko 4. kilometroraino, Lizuniagatik Lizaietaraino, Ibardineko pistatik Intzola eta Eltzaurdiaraino, eta Kaule auzoko pista, Landagaitaraino doana.

Pista hauetan gehienezko abiadura 15 km/h-ko da.

'Arroz Urez' liburuaren aurkezpena egingen dute apirilaren 22an liburutegian

TTIPI-TTAPA

Literatur geraldia ekimenaren barrenean, Mikel Antza idazleak *Arroz urez* liburuaren aurkezpena egingen du herriko liburutegian apirilaren 22an, ortziralea.

Ekitaldi irekia da, eta edonor joan daiteke, liburua irakurria

izan edo ez. Hala ere Berako liburutegian liburuaren hainbat ale paratu dituzte eskuragarri hala nahi duenak aitzinetik irakurtzeko.

Bertzeak bertze, euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea da ekimenaren helburua.

Alberto RETEGI
abokatuak
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
Abokatuak orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaltzuguren@gmail.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
- Sagardo ekologikoa
- Sagardotegiko menua
- Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak



Martxoaren 8an karrikara ateratako emakumeak. TTPI-TTAPA

Aldarrikapen feministez bete dira karrikak

Emakumeen Nazioarteko Egurenaren harira, hainbat mobilizazio egin dituzte Goldatz Talde Feministak deituta

A. LARRETXEKA

Goldatz Talde Feministak deituta, eta Zapaltzen gaituen sistemari sua, antolakuntza feminista, gure garra lelopean, karrikak hartu zituzten andreak martxoaren 5ean, 6an eta 8an.

Larunbatean, buru beroki tailerra egin zuten, eta ondotik bertso poteo feminista izan zuten Irati Alcantarilla eta Ekhiñe Zapiain bertsolariekin. Igandean, Bortzirietako Emakumeen Mendi Martxa egin zuten goizean, eta bazkari autogestionatuaren ondotik, eskualde mailako manifestazioa izan zuten. Joaldunak

buru zirela, herriari itzulia egin zioten, eta kontzertuarekin bukatu zuten eguna.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean herriko emakumeak bildu ziren Merkatu plazan eta hurrek *Erre zenituzten* abestia dantzatu ondotik, aurtengo aldarrikapenak irakurri zituzten eta bertaratutako emakumeek argazkia atera zuten.

Ines Matxiarena Berako Goldatz talde feministako kideak, ekitaldien balorazio «hagitz balorazio positiboa» egin du, eta batez ere emakume gazteen parte hartzea nabarmendu du.



Suhiltzaileak lanean abenduko uholdeetan. TTPI TTAPA

Suhiltzaile boluntarioen parte izateko deialdia ireki du udalak

TTPI-TTAPA

Azken hilabetetan hainbat baja izan ondotik, boluntario beharrea daude Berako suhiltzaileak. Ekimen honek Nafarroako Gobernuaren, Babes Zibilaren eta Berako Udalaren babesa du, eta prestakuntza berezia jasotzen dute. Herrian gertatutako hainbat larrialdie-

tan beraiek dira tokira iristen lehenak, eta koordinazio lan garrantzitsua egiten dute larrialdi zerbitzuekin elkarlanean.

Herritarren batek Berako suhiltzaile boluntarioetan parte izan nahi badu, udalera deitu behar du, eta bertan jasoko du beharrezko informazio guztia.

Bertso bazkaria eta elektrotzaranga apirilaren 9an, Korrika Egunean

A. LARRETXEKA

Apirilaren 9an Korrika pasatuko da Beratik, eta egun horretarako Korrika Eguna antolatu dute Gure Txokoa Elkarteak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak. 06:00etan igaroko da Korrika, eta eguerdirako bertso bazka-

ria antolatu dute Saioa Alkai-zarekin eta Ekhiñe Zapiaine-kin. Ondotik, Elektrotzulara-kin poteoa izanen da.

Bazkarirako txartelak apirilaren 3a arte erosten ahal dira Berako Errekalde, Botxo, Katakua eta Lesakako Arranon 15 euroren truke.

LABEZAR
Astelehenetik ortziralerara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

ANTZUZELAI
S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Ansona ostatu · jatetxea

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 • BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

210.721 euroko aurrekontua onartu du Beti Gaztek

Joan den urtekoa baino % 62,4 handiagoa da eta 1.458 bazkide ditu elkarteak, inoiz izan duen kopururik handiena

AITOR AROTZENA

Beti Gazte elkarteak 210.721 euroko aurrekontua izan du aurten, batzarrean onartutakoaren arabera. Joan den urtekoarekin alderatuta, % 62,4 handiagoa izan da, izan ere, «jarduera aunitz egin behar dira eta aurten Covid-19aren eraginez bat bera ere bertan behera ez uztea espero dugu. Gainera, gogoratu behar da futbol talde nagusia lehen aldiz ari dela hirugarren mailan jokatzen eta horrek ahalegin ekonomiko handia eskatzen duela. 2021ean hori konpentsatu ahal izan dugu Impulso23ren laguntzarekin eta etxeko partiduetan sarrerekin, ostatuarekin edo zozketa-txarretekin lortzen denarekin».

Aipatzekoa da 2021 urtean 1.458 bazkideekin bukatu duela elkarteak, iaz baino 143 gehiago eta inoizko kopururik handiena. Horietatik 1.133 Lesakakoak bertakoak dira, baina badira Igantzikoak (75), Etxalarkoak (63), Berakoak (45), Irungoak (31), Arantzakoak (26), Doneztebekoak (15)... Batzarrean bazkideen kuotak bere horretan mantentzea erabaki zuten.

Elkartearen egoitzaren egoera ere hizpide izan zuten. Udalak Alondegia eraikinarekin zer egin nahi den erabakitzekeko prozesu parte-hartzailea ireki du. Beti Gaztek bertan gelditzeke borondatea dauka. Hori aipatu zuten batzarrean eta prozesuan parte hartuko du elkarteak.

2021eko ekitaldi berriak

Kirolarekin eta kulturarekin lotutako ohiko ekitaldiekin

batera bertze zenbait ere egin zituen iaz Beti Gaztek: herriko dantza taldeen topaketa irailan, Bortzirietako Mutxiko Topaketa maiatzean, argazkilaritza tailerra, errekararen eguna uztailean, *Lesakako Bitxikeriak* lehiaketa, sukaldaritza tailerra, errege opil tailerra, mahai joko txapelketa, familientzat mendi irteerak, multikirola campusa, *Mendian hil, hirian hil* dokumentalaren emanaldia... Bertze batzuk, aldiz, ezin izan zituzten gauzatu: irteera kulturala, Lesakako Mendi Lasterketa, Piriñotara irteera, San Antone-ra ibilaldi arautua, Lesakako Zubigaineko krosa, mendi irteerak, Neguko multikirol campusa...

2022an ekitaldi gehiago

Aurten ere ekitaldi horiekin eta gehiagorekin segitzeko asmoa du Beti Gaztek. Martxoaren 13an mendi lasterketaren hirugarren edizioa egin zuten (informazio gehiago 57. orrialdean) eta hilaren 19an hogeitaz lagunek parte hartu zuten zuhaitzen txerto eta klonazio tailerrean. Horietaz gain, jostintza tailerra eta meditazio tailerra ere egingen dituzte asteotan.


Sukaldaritza tailer gehiago, lehen sorospen eta desfibradorearen erabileraren inguruko ikastaroak, *Mendia 1976* dokumentalaren emisioa, Teruelera bidaia kulturala, *Lesakako Bitxikeriak* lehiaketako edizio gehiago, pintura tailerrak, txirrindulari gazteen topaketak eta Lesakako Mendi Itzulia antolatuko dute aurten, bertzeak bertze.



UTZITAKOA

Xulufriak Emakumearen Egunean

Xulufriak Sare Feministak deituta, belaunaldi arteko esperientziak partekatzeko parada izan zuten martxoaren 8an. Ondotik, musika izan zuten eta kontzentrazioa egin zuten *Lesaka loratuz, gora borroka feminista* lelopean. Martxoaren 11n bertso-poteoa eta afaria izan zuten.



UTZITAKOA

Julen Goia bortz urteko xakelaria bikain

Martxoaren 5ean Irunen jokaturako Bidasoaldeko xake txapelketan parte hartu zuen 5 urteko Julen Goia Mitxelenak. Ez nolahi gainera, bigarren izan baitzen bere kategorian, bera baino urtebete edo bi urte zaharragoak ziren jokalariekin. Haur, benjamin eta alebin mailako 37 jokalaria izan ziren.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.


Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Lesakako erdigunearen eraberritze plana OINEZKO ETA IBILGAILUEN ELKARBIZITZA ERDIGUNEAN

Zeintzuk izan dira aldaketa nabarmenenak?

www.lesaka.eus

Erabilera partekatuko gunea da
Oinezkoek dute lehentasuna
20 km/h abiadura muga
Tonelaje handiko ibilgailuak ibiltzea debekatua
Ezingo da espaloietan aparkatu



Arretxeako aparkalekutik Frontoi atzeko aparkalekura ailegatzeko 4 minutu baino guttiago behar dira oinez.

Usategietako XII. auto igoera egingen dute larunbatean

Joan den urtean 46 auto-gidari izan ziren eta kopuru hori gainditzea espero dute antolatzaileek

IRUNE ELIZAGOIEN

Malerreka Motorsport esku-deriak eta Etxalarko gaztik taldeak antolatuta, aurten ere usategietako igoera egingen da. Martxoaren 26an, 13:30ean izanen da errepide mozketeta eta 14:30ean hasiko da lehenengo txanda. XII. Usategietako igoerari amaiera ilunabarrean emanen zaio, herriko

plazan saridunei sariak eman- ez. Izen-ematea martxoaren 7tik aitzinera egin daiteke *fotomotor.es* webgunean.

Joan den urtean 46 auto-gidari izan ziren eta aurten kopuru hori gainditzea espero dute antolatzaileek. Era berean, ezinbertzekoak diren laguntzaile guztiei eskerrak ematen dizkiete.

Altzata eta Larraburua elkarteek urteko batzarrak

Larraburua jubilatuen elkarteak martxoaren 26an, larunbatean 17:00etan egingen du urteko batzar orokorra Larraburuan. Altzata Kultur eta Kirol Elkartearen batzar orokorra, berriz, martxoaren 27an izanen da, igandean 12:45ean Kultur Etxeko goiko aretoan. Elkarte batean nahiz bertzean bazkide guztiak gonbidatuak daude, noski, denen proposamen eta ekarpenak baliagarriak eta beharrezkoak dirrelako.

Sukaldaritza eta sendabelarren ikastaroak

Iñaki Pikabearen eskutik, sukaldaritza ikastaroa antolatu du Larraburua elkarteak. Martxoaren 18an eman zioten hasiera ikastaroari, baina oraindik izena eman daiteke. Ortziraletan da 18:30etik 20:00etara. Sendabelarrak ezagutu, bilatu edo tratamenduak prestatu nahi dituenarentzat ere zortzi saioko ikastaroa izanen da, uztailera bitarte, Laura Gurbindoren eskutik. Bietan izena emateko 664 38 73 43 telefonora deitu behar da.



IRUNE ELIZAGOIEN

Emakumearen Eguneko ekitaldiak

Martxoaren 6an egin ziren emakumearen egunaren harira prestatutako ekitaldiak. Etxalarko talde feministak antolatuta, kontzentrazioa egin zen plazan eta jarraian triki-poteoa. Arratsaldean *Zauriak* filma izan zen kultur Etxean. Ondotik, kotxeetan antolatuta, eskualdeko manifestaziora joan ziren.



AXUN MAIA

Euskal Herriko mus txapelketa

Herriko mus txapelketaren kanporaketa jokatu zen Herriko Ostatuan hilaren 12an. 15 bikotek hartu zuten parte. Iker Bizente eta Aritz Irazoki izan ziren txapeldun eta Eñaut Iparragirre eta Angel Mari Iribarren bigarren. Iruñean jokatu den kanporaketara joanen dira bi bikotek.

caser residencial
www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementsiak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

Baztan-Bidasoko 35. Bertsopaper lehiaketa abian da

Bertsok apirilaren 25etik maiatzaren 6ra aurkezten ahal dira Berako kultur etxean

TTIOI-TTAPA

Bortzirietako Bertso eskolak eta Berako kultur Batzordeak, Baztan-Bidasoko 35. Bertsopaper lehiaketa antolatu dute, Baztan-Bidasoa inguruan bizi direnentzat. Euskarazko, jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dituzte bakarrik eta norberak aukeratuko du gaia, doinua eta neurria.

Ohi bezala, parte hartzaileak lau mailatan banatu dituzte: A maila: 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi koplak osatu beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 50 euro irabazleak eta trofeoa eta 30 euro bigarrenak. B maila: (11-14 urte) Bi bertso edo lau koplak egin behar dituzte guttenez. Saria: trofeoa eta 100 euro irabazleak eta trofeoa eta 70 euro bigarrenak. C maila: (15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte guttenez. Saria: trofeoa eta 150 euro lehenbizikoak eta trofeoa eta 120 euro bigarrenak. D maila: 18 urtetik goiti. Guttenez 8 bertso egin beharko dituzte. Saria: trofeoa eta 200

euro garaileak eta trofeoa eta 150 euro bigarrenak.

Bertsok bi modutan entregatu ahal dira, apirilaren 25etik maiatzaren 6ra, paperean edo posta elektronikoz. Paperean, helbide honetara bidali behar dira: *Berako kultur etxea / Baztan-Bidasoko XXXV. Bertsopaper Lehiaketa / Eztegarra pasealekua, 11/ 31780 BERA* Posta elektronikoz *kultura@bera.eus* helbidera bidali beharko da. Artxihoak soilik PDF formatuan onartuko dira. Gaian, *Baztan-Bidasoko XXXV. Bertso Paper Lehiaketa* paratu behar da. Mezuaren gorputzean ondoko datu hauek paratu behar dira: izen-abizenak, maila, adina, bertsoaren izenburua eta telefonoa. PDF artxihoan izenburua, maila eta bertsoa azaldu behar dira soilik.

Epaimahaia Bortzirietako Bertso Eskolak izendatuko du, eta honen erabakia ezin izanen da gibelera bota. Epaimahaia sariak hutsik utzi ahalko ditu, edo aipamen bereziak eman. Sariak maiatzaren 27an 18:00etan Berako kultur etxean banatuko dituzte.

'Sendaberri, Paisaia Eszeniko Berriak' programa Berara eta Lesakara iritsiko da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Antzoki Sareak Sendaberri, Paisaia eszeniko berriak aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentuarekin lankidetzan diseinatutako erakundearen programa propioa. Nafarroako Antzoki Sa-

rearen Zirkuituaren oinarria izanik, bere bosgarren urtemugara iritsi da, zirkloaren izena eta irudia aldatzen hasi den inplementazio-aldi baten ondoren. Horrekin batera, programazio osoa kontsultatzeko webgune bat dago (www.sendaberri.com). Eskualdeari



Mukixuko aparkalekuan elkarretaratzean egin zuten Beran. UTZITAKOA



SOS deia egin zuten Lesakako plazako elkarretaratzean. UTZITAKOA

Haur eskolen duintasunaren aldeko kolore horia nagusitu da

TTIPI-TTAPA

Lan baldintza duinak aldarrikatzeko Nafarroako haur eskola andanatan mobilizazioak egin dituzte.

Beran, martxoaren 11tik 13ra txialdia egin zuten langileek. Horrez gain, ortziralear udal ordezkariekin bildu ziren, eta larunbatean familiarekin. Igande eguerdian *Baldintza duinen alde, ratioen jaitziera* lelopean

Mukixuko aparkalekuan egin dako elkarretaratzearekin borobildu zituzten mobilizazioak.

Lesakan, berriz, larunbat goizean hamaiketakoan egin zuten haur eskolan, eta horrekin batera, egoeraren berri emateko bideoa ikusteko aukera izan zuten. Horren ondoren, *Haur eskolak SOS, pertsonala bikoiztu orain eta baldintza duinak* aldarrikatu zuten plazan.

dagokionez, Berako eta Lesakako kultur etxetara ailegatu da eta bakoitzean bi emanaldi izanen dituzte.

Martxoaren 27an, igandean 19:00etan, Lesakako Harriondoak kultur etxean, Andrea Irurzun buru duen Dan-Zai konpainiaren *Re-Des* obra ikusgai izanen da. Sare sozialek gaur egungo gizartearen duten eraginean sakontzen du emanaldiak.

Apirilaren 30ean, 19:00etan, La Dramática Errante konpainiaren *Altsasu* antzezlanak ikusgai izanen da Berako Kultur Etxean.

Urriaren 29an, Inextremis Teatro eta Tanttaka Teatro taldeen *El rey tuerto* antzezlanak emanen dute Berako kultur etxean eta Estefanía de Paz Asín taldearen *La reina del Arga* antzezlanak **urriaren 30ean** Lesakako Harriondoan.

'Joko zikina' dokumentala ikusgai ortzirailean

Navarra-XXI-Nafarroa ekimenaren eskutik 19:30ean Baratzondo elkarte

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Joko zikina dokumentala ikusteko aukera izanen da, Baratzondoko martxoaren 25ean, ortzirailean 19:30ean. Dokumental hori Navarra-XXI-Nafarroa ekimenak prestatu du, aurten Nafarroako Hobekuntza edo Amejoramendu legea onartu zenetik 40 urte betetzen direla aitzaki hartuta.

Lege hori ezarri zenean, 1982an, Nafarroako herritarrek ez zuten aukerarik izan horren aldeko edo kontrako botorik emateko. Dokumentalak erakusten duenez, Nafarroak lau hamarkada horietan bere burua gobernatzeko gaitasuna galdu du. Gainera lege horrek gaur egungo egoerara egokitzeko beharra dauka.

Korrika eta gero indarberritzeko gosaria Biltokin

Apirilaren 9an Korrika ailegatu zaigu herrira, 05:00 aldera. Ordu ttikitana ailegatzaren denez, azken aldian bezala, Biltokik indarberritzeko gosaria antolatu du. Bi aukera eskainiko dituzte, gazia eta gozoa, biak ere 5 eurotan. Biltokin, Estankoa eta Bi Biden apunta daitezke. Herriko gazteek ere egun horretarako bazkaria antolatu dute. Bertso bazkaria izanen da, eta txartelak herriko Estankuan salgai egonen dira 25 eurotan.

Jubiloteka herrira ekartzeko bilera martxoaren 24an

Orain arte Beran eta Lesakan egiten den jubiloteka zerbitzua Bortzirietako herri ttiketara ere luzatu nahi du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, astean behin guttienez. Horretarako, herriko bilera informatiboa izanen da martxoaren 24an, ortzegunean 16:00etan Baratzondo elkarte. Bertan azalduko dute jubilotekaren dinamika. Ea nagusiak animatzen diren eta zerbitzu berriaz gozatzeko aukera dugun herrian.




MAITE, ANA ETA ITZIAR

Lorhazik deitura M8ko elkarretaratzea

Martxoaren 8an, Emakumeen Egunaren harira, eta Lorhaziko emakume taldeak deituta, elkarretaratzea egin zuten ilunabarrean udaletxe atarian. Ondotik musikaren laguntzarekin karraketan barna buelta eman zuten emakumeen eskubideak aldarrikatuz.

Izar Iriarte Japoniarako bidean

Aspaldiko urteetan Berako Kenpo Kai eskolan dabilen Izar Iriarte Iturbide, Japonian jokatu den munduko txapelketan parte hartzeko sailkatu da. Abuztuaren hasieran jokatu da Hamamatsu hirian. Zorte on Izar!



UTZITAKO ARGAZKIA

**PRIM, c.b.**
Fisioterapia Zentroa

 **K-STRETCH**

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina.tolosaechepare

EDERKI tailerra

 **CITRÖEN**
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea • DONEZTEBE • 948 450 525

Maiatzaren 22an mendi itzulia egingen dute

Ekitaldien antolaketa buru-belarri ari da Ekaitza Elkartea eta maiatzeko hitzordu haundiaren eguna jakinarazi du

NEREA ALZURI

Azken urteotan osasun egoeragatik egin ezin diren ekimenak bueltan dira herrian. Horietako bat, Ekaitza Elkarreak antolaturiko Arantzako Mendi Itzulia da eta data jarria dute dagoeneko: maiatzaren 22an izanen da. Oraindik informazio gehiago ematerik ez badugu ere, apuntatu zuen agendetan.

Bertze ekitaldiak ere baditu esku artean Ekaitza Elkarreak. Joan den larunbatean, gorapeko pilota txapelketa egiteko zuen estreinakoz. Informazio gehiago hurrengo aldizkarian.



2018ko itzulian Indurreneko bi anaiak.

Ortziralean dokumentala ikusgai Baskulan

Nafarroa XXI herri ekimenak *Joko zikina. 40 urteko iruzurra eta usurpazioa Nafarroako Foruaren Hobekuntzan* dokumentala prestatu du eta egunotan gure eskualdean ematen ari dira. Ortzirale honetan, 19:00etan, dokumentala ikusteko aukera izanen da Baskulan.

Arduo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lantzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

Literatura Geraldia apirilaren 28an Baskulan

Joan den otsailean Literatura Geraldia abiatu zituzten Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea eta Sakanako Mankomunitateak. Literatura solasaldiak eta lantegiak proposatzen dituen ziklo honek apirilaren 28an izanen du geldialdia herrian. Nerea Loiola idazlearen *Epizentroa* liburua gainera solasaldia izanen da, 17:30ean Baskulan. Idazlea ere bertan izanen da eta liburuari buruzko tertulia egiteko aukera izanen da.

Jose txo Ezkurra Memorialeko pilota partidak herriko frontoian

N. ALZURI

Doneztebeko Erreka Kirol Elkarreak antolatuta, XXXI. Jose txo Ezkurra Memorialeko partida batzuk herriko frontoian jokatu dituzte. Dagoeneko azken bi igande goizetan mutilen seniorren mailako partidak jokatu dituzte, eta igande

honetan ere, martxoaren 27an, 09:30etik aitzinera partidak ikusteko aukera izanen da. Seniorrek bukatzean, infantil mailako nesken partidak hasiko dira, eta horiek ere herriko frontoian jokatu dituzte. Pilotaz gozatu nahi duenak, beraz, aukera ederra du.

2023ko Bortzirietako Emakumeen Mendi Itzulia Arantzan

N. ALZURI

Emakume Langileon Egunaren harira, martxoaren 6an, Bortzirietako Emakumeen Mendi Itzulia egin zen Beran. Herriko bederatzi emakumek Santa Barbara mendira egindako ibilaldian parte hartu zuten. Horrez gain, lekuko hartu

zuten, heldu den urtean herrian izanen baita Bortzirietako Emakumeen Mendi Itzulia.

Martxoaren 8an, berriz, elkarretaratzea egin zen plazan, eta eta Emakumearen Eguneko ekitaldiak bukatzeko, martxoaren 16an Idoia Lekuerekin hitzaldia antolatu zuen udalak.



Emakumeen mendi itzuliko eta elkarretaratzeko irudiak. UTZITAKOIA ETA J.R. AMOROS

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauzena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Hondakinak, kirola eta minbiziaren inguruan ikasi dute eskolan. **ESKOLAK UTZIAK**

Minbizia, kirola eta hondakinak landu dituzte eskolan

Otsailaren 10ean hondakinaren tailerra eta emakume kirolariak izan zituzten eta 15ean minbiziaren inguruko sentsibilizazioa

MAIDER PETRIRENA

Eskolako ikasle guztiek Hondakinaren inguruko tailerra egin zuten otsailaren 10ean eta egun berean, Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailakoek, hezkidetzaren inguruan Hezkuntza Departamentutik bideratutako *Emakume kirolariak* programan parte hartu zuten. Honetan, Beti Onak eskuba-

loiko bi jokalariek bertaratu ziren kirol honen inguruan beraien esperientzia kontatzen eta ondoren beraiekin zenbait joko egiteko aukera izan zuten. Otsailaren 15ean, berriz, Minbizia duten haurren nazioarteko eguna ospatuz ADANO elkarteak luzatutako sentsibilizazio kanpainan parte hartu zuten, zenbait ekintza eginez.

Emakumearen Eguneko afaria Bustitzen

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko eguna aldarrikatzeko emakume kuadrilla eder batek Bustitz ostatuan afari eder bat eginez eguna ospatu zuen. Giro ederra izan zuten.



JOSUNE ANZIZAR



JON ANZIZAR

Euskal Herriko mus txapelketa

Euskal Herriko mus txapelketaren herriko kanporaketa Ulibeltzak elkartearen jokatu zen. 1. Eneko Herrera-Julen Juankorena, 2. Ines Obregozo-Jose Martin 3. Koro Zelaieta-Patxi Mariñelarena 4. Agurtzane Zubieta-Maria Sarratea Sanzberro. Lehen biak sailkatu dira zazpi finalerako.

Nahia Bertiz txapeldun eta txapeldunorde

Malerrekako eskuz banakako txapelketan, Nahia Bertizek finala irabazi zion Mattin Madariagari eta txapela herrira ekartzea lortu zuen. Binaka txapeldunorde izan zen Nahia, Arantzako Kattin Madariagarekin bikote eginez.



LOREA BABACE



Gutxienez 30 urte zituzten Labaiengo plazan laxoa ikusi gabe. ARANTXA ITURRALDE

Desafioarekin laxoa bueltatu da Beintzako plazara

Baztan eta Malerrekaren arteko laxoa partida ikusi ahal izan zuten herritarrek Labaiengo plazan, 30 bat urte eta gero

ARANTXA ITURRALDE

Azken bi asteburutan jokatu dituzte Laxoa Elkarteak antolatutako Baztan eta Malerrekaren arteko laxoa-paxaka desafioa. Lehen jardunaldian, larunbat arratsaldean Oizen jokutako laxoa partidaren Errekak 9 eta 7 irabazi zion Baztani.

Igandean, berriz, Laxoa Motza eta Paxakako partidak jokatu zituzten Labaienen eta Erratzun. Labaienen, goizean aritzekoa zen partidua arratsaldera pasa zen bezperan egindako euria zela eta, plaza bustirik zegoelako. Arratsal-

dean arazorik gabe jokatu zuten partida eta oraingoan, baztandarrak izan ziren nagusi. Berriz ere markagailu estu batekin, 6-9.

Laxoa Motza partida akitu eta berehala, Erratzun paxaka partida hasi zen. Oraingoan ere Baztanek irabazi zuen, 9-7.

Beraz, desafioko lehen jardunaldiko partidak eta gero, Baztan aitzinetik zen, 5-4.

Joan den asteburuan itzulerako partidak jokatzeak zituzten Legasa, Irurita eta Arizkunen eta bertan erabaki izanen da nork irabazi duen desafioa.



ARANTXA ITURRALDE

Emakumearen Eguna Beintza-Labaienen

Emakumeen Nazioarteko Eguna bikainki ospatzeko aukera izan zuten martxoaren 12an Beintza-Labaienen ere. Larunbat horretan, hainbat adinetako herritarrek, Labaiengo ostatuan, afari eder bat eginaz. Jai giro polita izan zuten eta gauari musikarekin eman zioten amaiera.

Erreka eskubaloi taldea txapeldunen fasean

Joan den larunbatean jokatzeak zuen Doneztebeko Erreka eskubaloi talde nagusiak txapeldunen faseko lehen partida Ardoiren kontra. Zortzi taldeko multzoan daude eta lau lehenbizikoez izanen dute *final four* edo lauko finala jokatzeak aukera. Ez da lan erraza izanen Errekarentzat, lehen faseko puntuak ere kontuan hartzen baitira eta hiru bertzerik ez baitzuten lortu. Honela, fase hau zazpigarren postuan hasi du. Zaila izanen da baina horretan saiatuko dira.

XXXI. Josteko Ezkurra Memoriala abiatu da

Josteko Ezkurra zenaren omezez hogeita hamaikagarren urtez pilota txapelketa antolatu du Doneztebeko Erreka elkarteak buruz buru. Martxoaren 13an jokatu zituzten lehen partidak, sei kategoriatan banatuak. Lehen kanporaketa hauetan Legasan benjamin mailako pilotariak ari dira, Iruritan alebin mailakoak, Donezteben infantil mailakoak, Lesakan kadete mailakoak, Beran jubenil mailakoak eta Arantzan seniorrak. Igande honetan ere halaxe ariko dira.



IDIAZABAL

Lizun

GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862





Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 · MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 · carnessein@bordako.com

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA





Bosgarren mailako ikasleek beraien amatxien biografiak aurkeztu zituzten. PULUNPA ESKOLAK UTZITAKOAK

Emakumearen Eguna ospatu dute eskolan ere

Naroa Elizalde pilotariaren eta Laura Elizalde autobus gidariaren bisita izan dute

ARKAITZ MINDEGIA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu eta parte hartze handia izan zen herrian.

Eskualdeko emakumeen elkarretaratzean herritarrek parte hartu zuten. Manifestazioa irekitzen Zubietako joaldunekin batera Ituren eta Aurtizko emakumeak aritu ziren beraien joare soinuak zabaltzen.

Doneztebeko kontzentrazioan ere herritarrak hantxe izan ziren eta egun hau borobiltzeko afari baten bueltan elkartu ziren martxoaren 11n



Naroa Elizalde pilotariarekin.



Laura Elizalde autobus gidariarekin.

Aurtizko emakumeak eta 12an Iturengo emakumeak.

Pulunpa eskolan

Pulunpa eskolan ere martxoaren 8an egun borobila ospatu zuten. Alde batetik, Laura Elizalde autobus gidaria eta, bertzetik, Naroa Elizalde pilotari profesionala eta Ados pilota elkarteko kidea gerturatu ziren eskolara. Beraien egunerokoaren inguruan eta ikasleen galderak erantzuten aritu ziren. Naroarekin pilotan ere aritu ziren taldeka.

Bertze aldetik, bosgarren mailako ikasleek beraien amatxien biografiak aurkeztu zituzten. Bertzeak bertze, lehen eta oraingo gizartearen zein izan den beraien egoera ikusi eta berdintasunean oinarritzeko nola jokatu beharko luketen aztertze aukera izan zuten.

Halaber, egunean Bertan kantu kolore taldearen *Nire gorputza* abesten egin zuten bideoazabaldu zuten, gurasoek ikusteko.

Talo jatea eta diskofesta Aurtitzen ortzirale honetan

Pulunpa eskolako jantoki gestoreak ortziralerako plana antolatu du. 18:00etan haur jokoak izanen dituzte, ondotik talo jatea eta akitzeko diskofesta izanen dute, denak kantuan eta dantzari aritzeko. Besta honekin jantokiaren alde sos batzuk atera nahi dituzte.

Iturengo bestak prestatzen hasteko lehen bilera

Iturengo bestak uztailean izaten badira ere, ideiak hausnartzen eta partekatzen hasiak dira udala eta herritarrak. Jendea gogotsu elkartu zen lehenbiziko bileran, bi urteren ondotik berriz ere elkarteko eta bestak ospatzeko irrikitan baitaude herritarrak.

Malerrekan txapeldun eta txapeldunorde

Malerrekako pilota txapelketako elite mailako finala galdu zuen Ugaitz Elizaldek. Mattin Leiza eta Mikel Ezkurra bikoteak, aldiz, txapela lortu zuen alebin mailan. Banaka ere txapeldun izan zen Mattin Leiza eta txapeldunorde Iñaki Leiza.

hotel-balneario
elgorriaga
hotel-bainuetxea

Ospatu zure jaunartze besta leku berezi batean. Jantoki pribatuak eta menu aukera zabala.

Errotaldea z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa) | T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com



Iñaki Perurena, bere emanaldian. UTZIAKOA

Korrikaren bueltan Iñaki Perurena izanen da herrian

Apirilaren 9an igaroko da herritik eta aurretik afaria eta harri-jasotzailearen ikuskizuna antolatzen ari dira

FERMIN ETXEKOLONEA

Basakabitik beheiti, apirilaren 9an, larunbatean 02:54 alde-
ra igarotzekoa da aurtengo Korrika herritik. Ordu txikiak dira, baina hori girotzeko os-
tiral gauerako zerbait antolatze-
ko asmotan dabilta. Oraindik egitaraua eta ordu-
tegiak zehazteke badaude ere,
gazteek afariren bat plantatu
nahi dute. Horretaz gain, Iña-
ki Perurena harrijasotzaile
leitzarraren *Harria Maitasun
istorioa* ikuskizuna ere ekarri
nahi dute. Herri kirolak, poe-
sia eta hausnarketa nahasten
dituen Iñaki Perurenaren

proposamen eszenikoa da.
2021eko irailetik 2022ko mar-
txora arte, Madril, Burgos,
Zaragoza, Bilbo, Bartzelona,
Santander, Valentzia, Logroño,
Barakaldo, Gasteiz eta Vallad-
oliden eskaini du emanaldia
Perurenak, Nafarroako Zentro
bat duten hirietan, hain zuzen.
Orain, Zubietan ere ikusteko
aukera izanen da.

Mus txapelketa

Donezteben jokaturako Euskal
Herriko mus txapelketako
kanporaketan Jexux Santes-
teban eta Josetxo Elizalde
herritarak nagusitu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Emakumeen Eguneko afaria

Emakumearen Eguneko seinalea egin zuten herrian ere eta 26 emakume elkartu ziren estalpean egindako afarian. Giro ederra izan zuten eta otorduaren inguruan, emakumeen egoeraren inguruko hausnarketak eta aldarrikapenak parte-
katzeko aukera ere izan zuten.

Malerrekako txapelketan txapeldunak

Malerrekako eskuz banakako txapelketatik uzta polita lortu dute herriko pilotariek. 3. mailako benjaminetan txapeldun izan zen Enaitz Elizalde (argazkian) eta Mattin eta Aitor Agesta ere txapeldun izan ziren beraien mailetan.



LEIRE MARIEZKURENA

Baztango
Inmobiliaria agentzia - API 358
Herentzian espezializatutako abokatua

San Esteban 11 behea
BERA (31780)
Nafarroa

620 028 625
www.baztango.com

Askatasunaren Hirib. 17-2*
DONOSTIA (20004)
Gipuzkoa

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoko sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212



Karta onekin edo txarrekin, lortutako tantoak ongi kontatu. JAIONE ZABALO

Giro bikaina izan da Euskal Herriko mus txapelketako lehian

Juan Sagastibeltza eta Miguel Baleztenak irabazi zieten finalean Leire Mariezkurrena eta Pili Telletxeari

JAIONE ZABALO

Euskal Herriko Mus txapelketako kanporaketa jokatu zuten martxoaren 12an, larunbat arratsaldean Ezkurrako Barrankaneko ostatuan. Giro bikainean aritu ziren muslariak mahai inguruan.

Txapeldunek, Juan Sagastibeltzak eta Miguel Baleztenak, herrialdeko finalerako sarrera irabazteaz gain, afari eder bat ere irabazi zuten jatetxe berean. Bigarren sailkatu zen bikoteak, berriz, Leire Mariezkurrenak eta Pili Telletxeak, bi txuleta eta bi botil ardo irabazi zituzten.



Emozioa izan zen hainbat partidatan.



Baina umorerik galdu gabe.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JAIONE ZABALO

Inauteriak martxoko lehen larunbatean

Martxoaren 5ean, eguerditik aurrera besta giroa nagusitu zen Ezkurrari. Batzuk mozorrotuta eta besteak ez, bazkari ederra egin zuten Barrankan bildu zirenek. Jexux Mari Irazu eta Julio Soto bertsolarien saioaz ere gozatu zuten, eta trikitilarien doinuekin dantzan borobildu zuten inauterietako eguna.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JAIONE ZABALO

Emakumearen Eguneko mendi itzulia

Martxoaren 8ko Emakume Langilearen Eguna gogoan, mendi itzulia egin zuten Ezkurrari aurreko larunbatean, martxoaren 5ean. Plazatik abiatu eta buelta polita egin zuten, bandera morea hartu eta emakumeen aldarrikapenak alde batera utzi gabe.



Elizagibela Promociones S.L.

ETXEBIZITZA PROMOIOA
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com

T. 643 466 998



ERAIKINA EGITEN HASIA!

- 2 (80 m²), 3 (90 m²) eta 4 (100 m²) logelako etxebizitzak trasteroarekin
- Doneztebeko Elizagibela karrikan
- Lokal komertzialak

Lehen Arreta sustatzeko plana aurkeztu dute

Lesaka, Doneztebe, Baztan, Ultzama eta Leitzako alkateekin bildu ziren osasun departamentuko ordezkariak Donezteben

TTIPI-TTAPA

Santos Indurain Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak eta Carlos Artundo Osasuneko zuzendari nagusiak, bilera izan zuten martxoaren 14an Doneztebeko zineman Lesaka, Doneztebe, Baztan, Ultzama eta Leitzako alkateekin. Bertan, Nafarroako Lehen Arretaren egoera partekatu zuten eta *Lehen Arretaren Erroka* dokumentuan bildu duten datoen hilabeteetarako prestatutako ekintza plana aurkeztu zuten.

Era berean, Yolanda Martinez Lehen Mailako Arretako gerenteak parte hartu zuen bileran. Eskualdeko osasun-jarduera batzuk aipatu zituen, hala nola erretinografia, errehabilitazio- eta ekografia-zerbitzuak, arazo horiek moldatzeko gaitasuna handitzea eta joan-etorriak murriztea dakartenak, edo haurren obesitateari aurre eginez osasuna sustatzeko lana, eta pertsonalaren baliabideak egonkortzeko estrategia, LEPan bildutako zortzi plazeekin.

Osasun arloko arduradunen eta oinarritzko bost eskualdeak osatzen dituzten 31 udalerrien ordezkarien arteko topaketak balio izan zuen plan honetako neurri nagusiak azaltzeko eta Nafarroako toki administrazioekin entzute aktiboan sartzeko. Fase honetako bosgarren geldialdia izan zen herriekin, Erriberabeitiko, Erriberagoieneko, Lizarrako eta Erdialdeko udalerriekin egindako bileren ondotik.

Zehazki, bileran ordezkutako oinarritzko bost eremutan Lan Eskaintza Publikoan

bidez lantaldeak fidelizatzeko eta egonkortzeko estrategiak (LEP) Lehen Mailako Arretako Medikuaren, Landa Larrialdietako Zerbitzuaren (SUR) eta Pediatriaren eskaintzan zortzi lanpostu sartzen ditu osasun maila horretarako.

Bertzalde, eskualdeko osasun zentroen ebazpen-gaitasuna eta horrek biztanleengan izan dezakeen eragina nabarmendu zituzten topaketan, osasun-zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko saihas daitezken joan-etorri aurrea hartzeko. Ekintza horien artean, ekografiak eta kirurgia txikia egin dituzte oinarritzko eremu horietan.

Ildo horretatik, Doneztebeko osasun zentroan erretinografia- eta erradiografia-zerbitzua ere nabarmentzen da, oinarritzko eremuko udalerriz guztietako biztanleentzat; gauza bera gertatzen da Lesakako osasun etxeko errehabilitazio zerbitzuarekin ere, eta Osasun Sexualari eta Ugalteari Laguntzeko Zentro bat (Cassyr) ere badu.

Era berean, Elizondok Errehabilitazio Zerbitzua du. Eremu horretan, bertzalde, erizaintzako langileei prestakuntza eman zieten, larrialdiak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko.

Bertzalde, arreta espezializatuari dagokionez, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) arteko lankidetzaren hitzarmenak erkidego batean zein bertzean arreta jasotzeko aukera eskaintzen die inguruko herri-tarrei, irisgarritasuna hobetze aldera.



Carlos Artundo eta Santos Indurain Doneztebeko zineman. UTZITAKOIA

Haurren obesitateari buruzko proiektuak

Osasun Publikoaren Institutuko Osasuna Sustatzeko Atal-lak haurren obesitateari aurre egiteko hainbat proiektu lagundu die, hala nola, Doneztebeko Haur Eskolan egindako ekintzei, eremuetako osasun zerbitzuen kontsultei eta Leitzako Kikili-Salda haurren obesitatea prebenitzeko komunitate-proiektuari. Ildo horretatik, Osasun Publikoa


Doneztebeko Ikastetxe Publikoekin lanean ari da, ikasleei ekonomikoki laguntzeko eta igerilekuko jarduerara ezartzeko.

Era berean, osasun programetarako dirulaguntzen deialdiaren bidez, Malerreka, Ultzama eta Leitzako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak aurkeztutako proiektuak finantzatu dituzte eta horietan osasun zerbitzuek lagundu dute.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Mendian larrialdiak nola artatu ere ikasiko dute. PABLO IRASTORTZA

Lehen sorospen ikastaroak bazkideentzat

Gurutze Gorriko kideek eskainiko dituzte lehen sorospen ikastaroak Donezteben, Elizondon eta Leitzan

P. IRASTORTZA

Aldizkari honen aurreko aleetan aipatu bezala, elkarteak lehen sorospen ikastaroak antolatu ditu hainbat herritan, eta dagoeneko zehaztu dituzte herri bakoitzean ikastaroa eskainiko duten ordutegia eta lekua.

Elizondon Arizkunenean izanen da martxoaren 28tik apirilaren 1era 09:30etik 11:30era. **Donezteben**, apirilaren 4tik 8ra emanen dute elkartearen egoitzan 09:30etik 11:30era.

Ikastaro horiekin batera, ikastaro bereziak ere emango dituzte naturan, mendian, eta

baserrietan gerta daitezkeen ezbeharrak nola artatu ikasteko.

Ikastaro horietan lehena **Donezteben** izanen da apirilaren 4tik 11ra, 11:30etik 13:30era elkartearen egoitzan bertan. **Leitzan** ere emanen dute ikastaro berbera, baina oraindik ez dago zehaztua data eta ordutegia. Datorren aldizkariarekin batera emango dute horren berri, horregatik interesatuei adi egoteko eskatu diete

Ikastaro guztiak Gurutze Gorria osasun erakundeko profesionalak emango dituzte.

Zarautzera eta Oriora joanen dira bazkideak apirilaren 28an

P. IRASTORTZA

Orain dela bi aste azaldu bezala, azkenean apirilaren 28ko irteera lekuz aldatu, eta Zarautzera joango dira. 11:00 aldera ailegatuko dira Zarautzera eta bertan herriko alde zaharra, baserriarren merkata, hondartza eta Argiñano

hotela bisitatuko dituzte. 13:30ean bazkaria izanen dute Zarautz hoteleko Santa Barbara jatetxean. Bazkaldu ondotik Oriora joanen dira eta denbora libre izanen dute bertan.

Martxoaren 21ean, 22an eta 23an eman behar da izena.

75 bazkide Xabierko gazteluan izan dira egun pasa

P. IRASTORTZA

Itzultzen ari dira pixkanaka elkarteak antolatzen dituen urteroko ohiturak. Otsailean sagardotegiko bestaren ondotik, martxoan Nafarroako zaindariari bisita egin zioten. Eguraldi euritsua izan bazuten ere, 75 bazkideak gogotsu joan ziren Xabierko gaztelura.

Liedenan indarrak berritu ondotik, Xabierrera ailegatu ziren, eta han, Doneztebeko apaiza den Juanek ohitura den meza eman zuen 12:00etan. Meza bukatu orduko Xabier jatetxean prest zeukaten baz-

karia. Bazkari ondotik, ekitaldi desiratua izaten da dantza saioarena, eta, horretarako, han zen Jose Anjel baztandarra bertako gorputzak dantzan paratzeko prest.

Batzuk dantzan ziren bitartean, 17:00etan bazkide talde bat elkartu zen ohitura den bederatziurren elizkizunera joateko.

18:30ean bukatu zuten egun osoko festa, eta bakoitza bere etxera itzuli zen autobusean. Hurrengo urtean ere berriz Xabierrera joateko gogoz itzuli ziren.

Martxoko galdera

Idatzi itzazu Nafarroako txapeldun izan diren bi bertsolariren izen-abizenak ☎ 618 56 78 37.

Zilarraren bidea egiteko lehen urratsak egin dituzte


P. IRASTORTZA

Elkarteko hainbat bazkidek behin baino gehigotan egina dute Done Jakue bidea. Orain, Sevillatik hasi eta Santiago de Compostelara doan Zilarraren bidea egitekotan dira. Aitzineko ale batzuetan aipatu genuen berria, eta otsailaren 28rako hamalau laguneko taldea bildu zen.

Elkarteko koordinatzaileak martxoaren 8rako elkartu ziotuen apuntatutakoak, eta dagoeneko hasi dira martxan. Hiru kideko talde bat hasi da antolaketa lanarekin, eta ondotik hauek emanen diete gainontzeko parte hartzaileei egin beharreko bidearen berri. Hala ere erabaki denak taldean hartuko dituzte



Zarautz eta Oriora bisitatuko dituzte apirilko irteeran. PABLO IRASTORTZA



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



ESTHER BURLADA AROTZENA
BURLADA JATETXEA – ARANTZA

«Etxeko janaria da gure berezitasuna, amak horrela egiten zuen eta guk ere bai»

1966an ireki zuen Arantzako Burlada jatetxea Esther Burladaren aitak. Orain berak eramaten du jatetxea, bertako langileekin eta Ibai eta Oihana seme-alabekin. «Hemengo janaria» da etxeko berezitasuna; «bildotsa, ilar gorriak, aratxe azpizuna, entrekota, entsaladak... etxeko janaria, betikoa». Mendizaleentzako eta taldeentzako menuak izaten dituzte asteburuetan, eta dastatzeko menuak aste tarteaz «bi lehenbiziko plater, bi bigarren, postre eta kafearekin. Amak egunean

prestatzen zuena ateratzen zuen, eta guk ere bai». Kanpotik «jende dezente» joaten da, «baina pandemian konturatu ginen bertako jendearekin salbatu ginela». Apirilaren 9an besta eginen dute eta sarrerak salgai dituzte; «Beñat eta Fernando-ekin musika, bazkaria eta merienda-afaria izanen dugu».



IÑAKI ETXEBERE FERNANDEZ
BIDEGAIN AZOKA – ELIZONDO

«Arrain freskoa, bertako barazki eta frutak eta Nafarroako kontserbak ditugu»

2016an ireki zuten Bidegain merkatua, baina Bidegain arraindendak 50 urte baino gehiago ditu Elizondon. Iñaki Etxebereren biramatxi hasi zen, «gero aitaxi eta amatxi, gero aita eta ama eta orain ni». Baztanen lehenbiziko aldia da horrelako proiektua egiten dela, hainbat denda merkatu berean sartuz, eta «ongi funtzionatzen du. Arrain freskoa ekartzen dugu egunero, fruta eta barazkiak beti bertakoak eta kalitatezkoak izatea saiatzen gara, eta kontserbak Nafarroakoak». Etxera-

ko zerbitzua ere badute, «telefonoz egiten dizkigute eskariak eta astean bi egunetan egiten dugu banaketa, asteazken eta ortziraletan, normalean Urdezubi aldera, baita Baztango herrietara ere. Elizondo mailan, egunero egiten dugu banaketa».



IRATXE CELAYETA MARTINEZ
AUZOA JATETXEA – BERA

«Jatetxea leku enblematiko batean dago eta terraza nabarmentzen da»

2016an ireki zuen Auzoa jatetxea Iratxe Celayetak. «Berako leku enblematiko batean dago eta pena ematen zidan itxita ikustek. Terraza da gehien nabarmentzen dena, erreka ondoan». Etxeko berezitasuna «Galiziako behi txuletarekin egindako hanburgesak» dira, «baina errazioak eta plater bereziak ere baditugu». Horrez gain, Auzoa Go webgunetik etxerako zerbitzua eskaintzen dute beratarrentzako, «eskatu eta 30 minututan etxean izanen duzu janaria». Pandemia garaian

«Berako jendea iri esker biziraun genuen. Hunkigarria izan zen, etxerako eskari aunitz izan ginen, herriak salbatu gintuen». Martxoan azken berrikuntza sartu dute jatetxean; «BellaBot robot zerbitzaria. Mundu mailako berrikuntza da».




SANDRINE GOIENETXE
SARAKO LEZEAK – SARA

«Historia, geologia eta animaliei buruzko azalpenak ematen ditugu»

Historiaurreak eta geologiak bat egiten dute Sarako Lezeetan. 1858an hasi ziren lehenbiziko bisitak bertara, Napoleon III.a enperadorearen bisitarekin. Geroztik, Sarako herria antolatzen joan zen, eta «1988an gaur egun ezagutzen ditugun bisitak hasi zituzten». 35 laguneko taldeekin egiten dituzte bisitak, neguan arratsaldean, «baina apirilean egun osoz hasten gara, eta bisita aunitz izaten ditugu urrira arte». Beharrezkoa da Internet bidez erreserba egitea. Lezeez gain, museoa eta parkea ere badute

bertan, lezeetan aurkitutako lanabesekin eta arrastoeekin. Euskal Herriko megalitismoaren inguruko azalpenak ematen dituzte, «jendea aunitz gustatzen zaio, gehienek ez dakite aunitz gaiari buruz eta polita izaten da ikusteko».



Dena prest apirilaren 5ean Itzulia hartzeko

Itzuliaren harira, hainbat hitzordu antolatu dituzte udalak, Aurrera elkarteak eta Anikote kiroldegiak

TTIPI-TTAPA

Badator txirringularitza zaleen hitzordu handia, badator Euskal Herriko Itzulia; Eta nora? Leitza. Leitza eta Viana lotuko ditu aurtengo Euskal Herriko Itzuliaren bigarren etapak. Apirilaren 5ean izanen da, eta itzuliko etaparikluzeena izanen da, 207,92 kilometro egin beharoko baitituzte txirringulariek. Antolatzaileek dagoeneko aurreratatu dute «irteera gogorra» izanen dela, «orografiagatik».

12:00etan hasiko da etapa plazaatik, baina goizean txirringulari taldeen sinadura kon-

trola eginen dute. Handik Uitzirako bidea hartuko du.

Ekitaldi gehiago

Hitzordu handiaren bueltan, aurreko egunetan ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte udalak, Aurrera elkarteak eta Anikote kiroldegiak. Martxoaren 18an, esaterako, Aurrerako txirringularitza taldea aurkezteko zuten. Martxoaren 28an, astelehena, Herri Aretoan mahai ingurua izanen da 19:00etan eta apirilaren 2an, larunbatarekin, 11:30ean, haurrentzako ekintzak plazan.



SAIOA SAGASTIBELTZA, AINARA SARALEGI ETA AMAIA PAZ.

Antolakuntza feministaren aldeko deia

Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan zoru pelbikoa lantzeko tailerra, manifestazioa, apirilaren 4an segida izanen duen autodefentsa feminista tailerra, antzerkia... izan ziren. Irudia Lañaidex neska* gazteen taldeak deitutako manifestazioa da. Hainbat herritarrek bat egin zuten mobilizazioarekin.



Haur eskolen alde elkarretaratzea egin zuten plazan. SAIOA SAGASTIBELTZA

Haur eskola publikoa eta kalitatezkoa aldarrikatu dute

JUAN MARI BARRIOLA

«0-3 zikloa babestea eta 0-2 egiteko tentazioari uko egitea, irizpide ekonomikoetan oinarritu beharrean pedagogikoetan egitea, zaintzak erdigunean jartzea...». Hala aldarrikatu zuten martxoaren 13an Itzaire Haur Eskolak egindako elkarretaratzean. Itzaireko hezitzaile-

leak udal langileak izanda, «gure baldintza duinen alde udalak egindako apustu garbia» nabarmendu zuten, eta erantzukizuna Nafarroako Gobernua dela gogorarazi zuten. «Premiazkoa da hezitzaile kopurua bikoiztea eta finantziarioa igotzea langileok lan baldintza duinak izateko».



Martxoko saioa Tardoa baserriko sagastian egin zuten. JUAN MARI BARRIOLA

Sagarrondoei buruzko formazioko hurrengo saioa apirilaren 8an eta 9an

JUAN MARI BARRIOLA

Elikagaien Mahaia antolatu-ta, sagarrondoei buruzko ikastaroaren lehengo saioa egin zuten martxoaren 11n eta 12an, eta 40 lagundik gora parte hartu zuten.

Bertako eta inguruetako herrietatik bertaratu zen jendea ikasteko gogoz. Lehenik alde

teorikoa azaldu zuten eta ondoren, hurrengo egunean, praktikak Tardoa baserriko sagastian egin zituzten. Carlos Marzon INTIAko adituak inausketei buruzko hainbat xehetasun eta jakintza azaldu zituen.

Hurrengo saioa apirilaren 8an eta 9an eginen dute gaitzen osasun kudeaketa lantzeko.

Apirilaren 9an ailegatuko da Korrikaren lekukoa

Apirilaren 8an Korrika Ttikia egingen da herrian barna eta Korrika festa gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 8tik 9rako gauerdian hartuko dute herritarrek Korrikaren lekuko nagusia, herri sarrerako fabrika abandonatuaren parean, eta hortik aurrera, Basakabira bidean eskuz esku ibiliko da ezkutuko mezua daraman lekukoa.

Herriko hainbat erakundek, taldek eta eragilek erosi dituzte kilometroak. Lerro hauek idazterakoan, Kaxkabeltza elkarteak, Aurrera Kirol Elkarteak, Torraspapelek, Ziratekuadrillak, Abordatzerakuadrillak, udalak, Amazabal institutuak, Erleta eskolak eta Atekabeltz Herri-guneak bat eginga zuten ekimenarekin, baina seguru geroztik gehiago izanen direla.

Baina hori baino lehen, giro-tzeko beste hainbat hitzordu prestatu ditu Leitzako Korrika Batzordeak. Martxoaren 31n,



21. Korrikan Andone Salbarredi.

Uhinak dokumentala ikusteko aukera izanen da 19:00etan Herri Aretoan, eta horrekin batera, hainbat urtetako Korrikaren Leitzako argazkiak ikusgai jarriko dituzte.

Apirilaren 8a, berriz, 10:30ean Korrika Ttikia egingen dute, eta iluntzean Korrika Festa hasiko da Atekabeltz gaztetxean. 20:00etan pintxo-potea egingen dute, 21:30ean musika eta bideo *herrimema* eta 23:30ean Korrikako beroketekin hasiko dira.

Film emanaldiak eta antzerkia apiril hasieran

TTIPI-TTAPA

Herri Aretoan prest dute apiril hasierako kultur agenda. Apirilaren 2an eta 3an, haurrentzako *Ainbo* pelikula pantailaratu dute, 16:30ean, eta gainerakoentzat *Competencia Oficial* filma, 19:00etan. Apirilaren 10ean, Axut! konpainiaren eskutik *Amua* antzezlanak ikusteko aukera izanen da. Apirilaren 17an eta 18an berriz, Aste Santua denez, igandean eta astelehenean. *Flee* eta *El triunfo* izanen dira ikusgai. Palomitak erosteko aukera ere izanen da Herri Aretoan.

Covid txertoaren inguruan beste begirada bat

JUAN MARI BARRIOLA

Bigarren urtez Arturo Vinuesa medikuak Covid gaitzaren pandemia dela eta jarri dituzten txertoen inguruan beste ikuspegi bat azaldu zuen Atekabeltz Herrigunean. Martxoaren 3an eman zuen hitzaldia eta hainbat herritar bertaratu ziren. 2020ko azarotik 2021eko otsailera bitarte, *Osasunaz beste begirada bat* izenburupean lau saioko formakuntza zikloa antolatu zuten Leitza, eta formazio ziklo horren barnean etorri zen aurreneko Vinuesa Leitza, 2020an.

Greba mugagabea utzita lanera bueltan dira Torraspapel lantegian

TTIPI-TTAPA

Lan hitzarmen duinaren alde 22 egunez greba egin dute Torraspapel lantegian, ilbeltz bukaeran eta otsail hasieran bost egunez, eta otsailaren 23tik martxoaren 11ra greba berriz. Martxoaren 12an itzuli ziren lanera, bezperan bozketa bidez langileen gehiengoak enpresaren proposamena onartu ondoren: 213 langilek aldeko botoa eman zuten, 70ek kontra eta 7k boto zuria.

LABek (bederatzi ordezkari) zein ELAk (lau ordezkari) biek txalotu dute langileen borroka. LABek langileak eta herri osoa zoriondu ditu. «Guztion esfortzurik gabe ezinezkoa izanen zen halako akordioa erdieste. 22 eguneko grebak, alegia, langileen borroka, lortu du akordioa aurrera ateratzea. Testuinguru konplexu batean, garai hauetan lortutako akordio hau eta erabilitako moldeak erreferentzia izan behar dira Nafarroako langile guztientzat. Enegarren aldez frogatu da borroka merezi duela».

ELAk ere «zorionak» eman dizkie langileei, «hitzarmenaren negoziazio prozesu osoan egingako borrokagatik eta greba arrakastatsuegatik. Hori da lan baldintzak eta bizi baldintzak hobetzeko bidea».

LAB alde, ELA kontra

Baina edukiaren harira bi sindikatuen iritzia oso bestelakoa izan da. LABek «oso ontzat» jo du eta bere ustez, «onartutako proposamena blindatuta dago Rajoyren reformaren aurrean».

ELAren hitzetan, ordea, «hitzarmen hobea lortzeko aukera galdu» dute lantegian. «Grebaren esker hasi zen enpresa negoziatzen. Baina zuzendaritzaren proposamena ez da nahikoa izatera ailegatu, eta batzordearen plataformatik oso urrun dago». Gaineratu duenez, «grebaren ondoren langileek ikusiko duten aurrerapen ba-



Otsailaren 26ko manifestazioko irudia.

karra KPIaren eguneratzea izanen da».

Akordioaren puntu batzuk

Soldata igoera: 2021ean 500 euro; 2022an KPI (% 6,5) eta 2023an KPI. (Baina KPI %6,5etik behera geratuko balitz, KPI 2022 < %3 baldin bada, 1.000 euroko bermea; %3 < KPI 2022 < %4,5 baldin bada, 2022ko KPI + %2,5 eta 2022ko KPI > %4,5 baldin bada 2022ko KPI).

Orduen murrizketa: 12 orduko lanaldi murrizketa jasotzen du akordioak, lau ordu 2022rako eta 8 ordu 2023rako (2021ean 1.704 ordu; 2022an 1.700 ordu eta 2023an 1.692 ordu).

ABLE Aldi Baterako Lan Enpresen muga absentismo-porzentajera eta oporretara mugatzen da. Nolanahi ere, ABLE bidezko kontratazio hori ezin izanen da sei hilabetetik gorakoa izan.

Gizon eta emakumeen arteko **soldata arrakala** murrizten da 1.1 kategoria kenduta. Emakume langile gehienak kategoria horretan zeuden eta goragoko kategoria batera pasatuko dituzte.

Lizentziak eta horien erabilpena hobetzen dira.

Ultraktibitatea jasotzen du; hitzarmena indarrean egonen da beste bat izan arte.

ezkontza

GEHIGARRIA 2022

Ezkontzak inoiz baino gogo gehiagorekin ospatzeko ordua

Heldu da udaberria, eguraldi ona eta ospakizunen garaia. Pixkanaka normaltasunera bueltatzen ari garela dirudi, eta aspalditik ezkontzea pentsatua zutenek orain dute aukera paregabea.

Gaur egun, mila modutan ospatu daiteke egun berezi hau; zeremonia intimoak, ospakizun handiak, besta tematikoak, ezkontza eleganteak... Zure aukera edozein dela ere, ezinbertzekoa da prestaketak denborarekin egitea eta eguna ongi ateratzeko beharrezkoa den guztia kontuan hartzea: lekua, gonbidatuak, arropa, orrazkera, musika, loreak... gauza aunitz dira, bai, baina lasai, aholkuz eta ideia berriez beteta daukagulako aurtengo ezkontza gehigarria, eguna ahal bezain berezia izan dadin eta den-dena behar bezala atera dadin.



TERESA BAHILLO T. 696-59 87 18 ELBETE
Ehoziri-lanak | Tul brodatzea
Ezkontza, jaunartze eta bataioetarako zapiak,
eskularruak...
Ezkontza kuxinak eta ligak

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ZU

loredenda
dekorazioa
osagarriak

Altzate, 33 31780 BERA
zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

ESTHER

Hitzordua
eskatu behar da
T. 948 59 22 00
NARBARTE



Andregaien erramuak • Eliza edo zibilezko dekorazioa
Autoko dekorazioa • Ilerako apaingarriak
Ligak • Tartak apaintzeko figurak

www.gardenesther.com • f



URGAIN HOTELEAN zure ezkontza
zure gustura diseinatuko dugu!



Ezkontza zibila ekitaldirako leku berexia



Bazkaria Urgain Hoteleko sala handian

Toki paregabea, Bertiz Natur Parkearen sarreran.

Bertan dena egiteko aukera: ezkontza ekitaldia, luntxa, bazkaria, dantzaldia, logelak...

- 300 pertsonentzako tokia
- Dekorazio pertsonalizatua
- Mahai borobilak eta luzeak
- Karta aukera zabala
- Mahai goxoa...

Deitu eta informa zaitez inolako konpromisorik gabe.

948 59 20 63
reservas@hotelurgain.com
www.hotelurgain.com



Ezkontza batean pentsatzean, jantzi eleganteak dira burura etortzen zaigun lehenbiziko gauza. Armairuan dauzkagun arroparik hobereak ateratzeko eguna da, edo beharbada soineko edo traje berri bat erosteko aitzakia. Baina tradizioak hausteko garaia da, dotoretasuna mila modutan uler daiteke eta beraz, janzteko mila modu daude. Boda pertsonalizatuak dira azken joera, ezkongaien nahierara, ospatzeko eguna baita eta garrantzitsua da eroso egotea.

EZKONGAIEN ESTETIKA

Estetika naturala da azken urteetako joera nagusia, makillaje sotilak eta serioak ez diren orrazkerak.

Larruzal osasuntsu eta distiratsuen ordua da, *nude* koloreko makillajearekin. Naturaltasunaren edertsuna nabarmendu nahi da, larrua sobera estali gabe. Krema argitzaileak, koloretea eta ezpain-distira izanen dira aurtengo ezkontzetako izarrak.

Ileari dagokionez, kolore naturalak eta orrazkera informalak izanen dira nagusi. Ez dugu aldaketa erradikalik bilatuko, daukaguna hobetzea baizik, puntak moztuta adibidez. Apaingarriak ere aukera ona izan daitezke; loreak, koloretako harribitxiak, diademak edo ezkontza-belo tradizionalak.

OSPAKIZUNAREN LEKUA

Ezkontza non ospatuko den erabakitzea ez da beti erraza, gonbidatu guztiak sartzeko lekua bilatu behar baita. Zorionez, gure eskualdean baditugu jatetxe handiak, jangela zabalekin, bazkaltzeko, dantzatzeko eta besta egiteko lekuarekin. Gomendagarria da denborarekin erreserbatzea, lekua lortuko dugula ziurtatzeko.

Aire zabalean nahiz terrazetan, kanpoan egindako ezkontzak gero eta

ugariagoak dira, eta eguraldia lagun baldin badugu, kontuan hartzeko aukera ona dira. Estetika naturalago bat bilatzen dute aunitzek, fibra naturalako ehunekin egindako mahai-oihal, ahozapi eta dekorazioarekin. Gainera, kanpoan argazkiak ikusgarriagoak izan daitezke, paisaia onarekin, hobeki. Hala ere, komeni da karpa edo aterperen bat edukitzea, eginen duen eguraldia asmatzea ez baita beti posible.

LORE KOLORETSUAK

Loreek beti izan dute garrantzi handia ezkontzetan, eta azken urteetako joera naturalekin, gehiago. Elementu sinple eta politak dira, kolore eta forma guztietan eskuragarri. Aurtengo joerak koloretsuak dira, lorategi estetika eman eta udaberriarekin bat egiteko; urrebotoi laranja, hori, more eta arrosak, adibidez. Gorria maite dutenentzako, mitxoleta aukera ederra da, landare altua baita, lore-sortaren planoekin jolasteko. Testura eta bolumena emateko, aldiz, alliuma da landare aukeratuenetakoa. Loreak nahasiz sorta ederrak sor daitezke, koloretsuak eta era guztietako formekin.

Arma ESTETIKA

- Aurpegiako tratamenduak
- Gorputzerako tratamenduak
- Erlaxatzeo masajeak
- Depilazioak
- Manikura
- Makillajea

Altzate 33 BERA · Tel.: 948 63 09 04

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

ANDREGAIENTZAKO ZERBITZU OSOA

- Ile-apaindegia -
- Aurpegi tratamenduak -
- Gorputz tratamenduak -
- Makillajea -
- Manikura -
- Pedikura -

Amezitia · DONEZTEBE · 948 450 163 · f · @amayacentro

TXOKOA

Ile-apaindegia

Estitxu Mikelperizena
644 94 11 55

Pedro M^a Hualde, 38 behea | 31730 Irurita

Gizonentzako eta emakumeentzako tratamendu pertsonalizatuak, mozketak, koloreak, orrazkerak... produktu onenekin!





AXUN VIELA | ileArt estilistak

Bizitza osoa estiloari eskainia, ilerako tratamendu eta zaintza eksklusiboekin

30 urte daramatzat estilismoaren munduan murgilduta, bai irakasketan baita nire apaindegian lanean ere, teknika berritzaileak erabiliz. **Horrek esperientzia eta merkatuaren bilakaera ulertzeko gaitasuna eman dizkit**, eta horregatik erabaki dut **ezkontzetarako zerbitzua eskaintzea**.



Tel.: **679191974**

Saskaitz Plaza, 1-behea.
ELIZONDO
axunviela@gmail.com

Gaur egun, ezkontza ez da zeremonian hasten, prestaketekin baizik, goiz-goizetik etxekoekin momentu horiek partekatzean. Zeremoniak aunitz aldatu dira azken urteotan, eta bakoitzak bere modura sentitzen ditu. Gainera, hemengo gastronomiarekin eta ingurune ederrarekin liluratuak, geroz eta gehiago dira gure eskualdera ezkontzera etortzen direnak.

Horregatik pentsatu dugu **PREMIUM** zerbitzu honek garrantzi handia izan dezakeela momentu hauetan. Pertsonalizatutako zerbitzua eman nahi dugu: gurekin harremanetan jartzen zareten guztien kasuak guztiz doan aztertuko ditugu. Elkarrizketa bat egin dezakegu, online edo presentzialki, zure gustu eta beharrak ezagutzeko eta zure neurrira zerbitzua prestatuko da. Baita kosmetika eta nutrikosmetikako produktu au-

rreratu, fresko eta beganoa erabiliz. Gero, zure kasua baloratu eta txosten bat eginen dugu beharrezko zerbitzu guztiekin, zuretzako eta nahi izanez gero, zure ingurukoentzako.

Zerbitzu honekin zurekin egonen gara zeremoniara arte. Azken orduko ustekaberik gertatzen bada, ez arduratu, gure esperientziari esker dena ongi aterako baita.

Zure bertsiorik onena bilatuko dugu?



HEMEN DAGO ZUEN AMETSETAKO BIDAIA



bidaiak

Eztegara pasealekua, 30 A
31780 BERA (Nafarroa)
Tels.: 948 630 451 / 948 630 641
info@takatukabidaia.com
www.takatukabidaia.com



GONBIDAPENEN GARRANTZIA

Ezkontzen prestakuntzaren zati garrantzitsu bat gonbidatuen zerrenda egitea eta gonbidapenak bidaltzea da. Gonbidapenaren diseinu on batek ezkontza nolakoa izanen den irudikatzen du; tradizionala, informala, modernoa... eta informazio baliagarri guztia biltzen du, gonbidatuek data, ordua, lekua eta beharrezko bertze edozein datu izan dezaten (autobus zerbitzurik izanen den, adibidez). Paperezko gonbidapenek badute Internet bidezkoak ez duten xarma, eta pertsonalagoak dira. Ingurumenarekin kezkatzen direnentzako, paper birziklatuz egindako gonbidapenak aukera ona izan daitezke.

GIROA ALAITZEKO MUSIKA

Ezkontzako giroa ezin hobea izateko, musika ezinbertzekoa da. Musika talde batek edo DJ batek alaitasuna emanen diote ospakizunari. Gaur egun, geroz eta ohikoagoa da ezkongaien nahi dituzten kantuen zerrenda prestatzea; dantzatzeko, tarta banatzeko, gonbidatu bereziren bat agurtzeko... musikariarekin aitzinetik solastatzea eta argibide zehatzak ematea garrantzitsua da, ezkontzaren egunean horretaz kezkatu behar ez izateko.

BETIKO OROITZAPENAK

Sakelatik mugikorra atera eta edonor argazkilari bihurtu daitezkeen garai honetan, aunitzetan atzentzen duguzen garrantzitsua den argazkilari profesional bat edukitzea. Bizitzan (seguruenik) behin bakarrik biziko dugun eguna izanen da hau, betiko gogoratu nahiko duguna, eta horretarako hobe da argazkilari profesional baten eskuetan uztea oroitzapen hauen sorrera. Gainera, gaur egun ohikoa da eguneko prozesu guztia, ezkongaien prestakuntzatik azken dantzaraino, biltzen duen bideo bat egitea, egun osoko oroigarri eder bat izateko.

DENA ATZENTZEKO BIDAIAK

Behar bezalako ezkontza bat ez da zeremoniarekin edo ospakizunekin bukatzen, bidaia batekin baizik. Ezkontza prestatzeak ekartzen duen estres guztia ahazteko unea da eztei-bidaia; paradisuak hondartza tropikalak, leku exotikoak, bertze kulturak... Baina eztei-bidaia ez du halabeharrez gastu handi bat izan beharrik, aukerak infinituak dira, eta asteburua mendian, herri txiki batean edo landetxean pasatzeak ere badu bere xarma. Erlaxatzea da kontua!

ZURE EZKONTZA GONBIDAPENA PERTSONALIZATUA!!

Une berezi horretarako, ezkontza gonbidapen berezia lortu ezazu pertsonalizatutako gonbidapenak aurkeratuz, zure argazki eta testuarekin.

Hitzordua hartzeko
NARBARTE



686 74 77 13
648 84 71 67

Mailpostak
publizitate banaketak inprimategia



Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com



EZKONTZA ZIBILAK

ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU



EGUN OSOA, INORA MUGITU GABE, BERTAN PASA DEZAKEZUE: ZEREMONIA, BANKETEA ETA DANTZALDIA

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- **SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN**





ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...


- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela •
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera •
- Auto eta autobusendako aparkalekua •
 - Haurrendako jolasparkea •
 - Koktelarako leku aproposa •

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

T. 948 625 472 | Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com



Zaldúa argazkilariak
Elizondo - Doneztebe
948 580 491 948 450 364



ZURE MUSIKA
Ezkontzak,
Ekitaldiak,
Bestak...

Info gehiago: 605 762 880
www.endaradeejays.com

EDUKI BABESTUA

Ekhi Gold, eguzkia gure ezkontzako mahaian eskuragarri

2018an ireki zuen Juan Mari Iriarte Baleztena beratarrak Ekhi Gold txokolategia. «Masterclass aunitz egin nituen Frantzian, Katalunian, Madril... eta ohartu nintzen ikasle guztiek maisuak egiten zuenaren kopia bat egiten zutela. Nik zerbait desberdina egin nahi nuen. Behin, Hendaietan paseatzen ari nintzela, eguzkia sartzen ikusi nuen, eta urrezko bonboi bat zirudiela pentsatu nuen. Momentu hori irudikatzen zuen bonboi bat egitea okurritu zitzaidan». Orduan sortu zituen urre jangarriaz estalitako bonboiak.

KALITATEA ETA JASANGARRITASUNA

Txokolatearen jatorriari garrantzia handia ematen diote; «proiektuarekin hasi nintzenean, hain eskusiboa izanda, nire txokolatea egitea bururatu zitzaidan. Parisko laborategi batera joan nintzen nire proiektua aurkeztera eta txokolate propioa sortzea erabaki genuen. Bi plantazioetatik ekartzen dugu kakaoa; Afrikatik eta

Perutik. Mundu mailan hiru kakao barietate daude; arrotza, munduko ekoizpeneko % 80a dena, trinitarioa, % 18a dena eta kreola, munduko kakao ekoizpeneko % 2a. Kakao hagitz berezia da kreola, eta hori da guk erabiltzen duguna.

TXOKOLATEA, BITXIEN PARE

Ezkontzetarako txokolate bereziak egiten dituzte Ekhi Golden, bitxiak balira kaxa dotoreetan aurkeztuak. «Urrea eta txokolatea beti identifikatu dira maitasunarekin, eta bi altxor hauek mokadu batean fusionatu nahi nituen». Gonbidatuentzat Infinity bonboiak egiten dituzte, bihotz formarekin. Horizon txokolatek lagun artean jateko bonboi tikiak dira. Ezkonberrientzat, berriz, Sunset bonboiak daude; «Eguzkia irudikatzen dute, hagitz intimo eta bereziak dira. Ezkondu aitzineko egunerako edo ezteigauerako, momentu berezi batean jateko dira». Ohiz kanpoko bonboiak dira hauek, gonbidatu edo ezkonberriei sorpresa goxo bat emateko.



Maitasuna ospatzeko bitxi jangarriak

Heldu dira ezkontzak eta
Ekhi Gold-ek proposamen
berezi bat du zuentzat:



Munduko bi altxor desiratuenak, urrea eta txokolatea, mokadu goxo batean.
Beran egindako bitxi jangarri hauek amodioa ospatzeko ezin hobek dira.

Hainbat formatu momentu bakoitzerako:

- **INFINITY:** Gonbidatuentzako detaileak, ezin hobek zuen arteko amodio mugagabea oparitzeko.
- **HORIZON:** Luxuzko mokadutxoak mahai erdian utzi eta lagun artean partekatze-ko, xanpain edo kafearekin bikainak.
- **SUNSET:** Ezkonberrientzako oparia, oparirik original eta goxoa ezkon eguneko protagonistentzako...

Ekhi Gold-ek ZIWA ezkontzetarako nazioarteko sariaren babesa du, mundu mailan bakarrak baika-
ra ezkonberri edo gonbidatuei esperientzia berri eskusibo hau eskaintzen.

Gora maitasuna!



 **Ekhi Gold**

«Etorkizunean pilotari izatea da nire ametsa»

GOIURI ZABALETA RODRIGUEZ LEITZAKO PILOTARIA

Leitzako aurrelariak Adosen Binakako Txapelketa irabazi du promozio mailan. Hamabi urterekin, txapelketako pilotaririk gazteena izan da eta «oso pozik» dago lortu duenarekin

G. PIKABEA | LEITZA

Hamabi urte besterik ez ditu, hamahiru datorren hilabetean bete beharrak, eta dagoeneko nabarmentzen hasia da Goiuri Zabaleta Rodriguez (Leitza, 2009). Pilota du pasio, bere hitzak eta bere emaitzak dira horren lekuko eta etorkizunean bide horretan jarraitu nahi du; bere ametsa pilotari izatea baita. Ados pilota klubak antolatutako Binakako Pilota Txapelketan jantzi du bere azken txapela, eta «oso pozik» dago.

Noiz hasi zinen pilotan?

Bederatzi urterekin hasinintzen. Gelako mutil batzuk pilotan hasi ziren, eta haiek ikusita, probatzea erabaki nuen. Aurrea Pilota Eskolan apuntatu nintzen eta geroztik hemen nago.

Berriki, Adosen Binakako Pilota Txapelketan txapela jantzi duzu promozio mailan. Espero zenuen?

Leirek [Galeano Mondragon] eta biok hasieratik nahiko txapelketa ona egin genuen, eta bagenuen finalean irabazteko aukera. Finalean nahiko ongi hasi ginen, baina gero kontrarioak tantoak egiten hasi ziren eta pixka bat urduri jartzen hasi nintzen. Hala ere, partidak aurrera egin ahala, lasaitu eta dakidana eman nuen. Azkenean irabazi genuen eta oso pozik nago. 12 urterekin hau dena lortzea handia eta oso pozgarria izan da niretzat.

Txapelketako gazteena zinen...

Bai, nire bikotekidea eta biok izan ginen gazteenak. Nik 12 urte ditut eta berak 14 urte.



Leitzarra Adosen Binakako Pilota Txapelketan.

Labur-labur

Pilotari bat? Joseba Ezkurdia eta Olatz Arrizabalaga.

Frontoi bat? Leitzakoa.

Noren aurka jokatu zenuke gustura pilotan?

Maddi Barrokalen aurka.

Pilota ez den beste kirol bat? Futbola.

Baduzu maniarik pilotan? Beti koilare bat janztea gustatzen zait, suerte emateko.

Musika talde bat? Gatibu.

Eskolako irakasgai bat? Soinketa edo matematika.

Leitzako txokorik gustukoena? Frontoia.

Zaharragoei irabaztea ikaragarria izan zen.

Ez da jantzi duzun txapel bakarra, baina hau bereziena izan da?

Iaz jantzi nituen Nafarroako txapelketakoa eta Josetxo Ez-

kurra Memorialekoa ere aipatuko nituzke, baina bereziena Adosek antolatutako txapelketako txapela izan da. Behar bada gehien gozatu dudana txapelketa izan da eta txapel honek

ilusio berezia egin dit. Txapelketa bera ere oso polita izan da eta alde horretatik, Ados pilota klubari eskerrak eman nahi dizkiot txapelketa zoragarri hau antolatzeagatik. Ea hurrengo urtean ere horrelako txapelketak izaten ditugun. Oso garrantzitsua da Adosek egiten duen lana, profesional izateko bide bat da.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Astelehenetan eta asteazkenean Aurrerarekin aritzen naiz, eta hamabost egunetik behin Maite Ruiz de Larramendi eta besteekin entrenatzera joaten naiz. Asteburuetan partidarik ez badut, batzuetan, aitarekin Ezkurrako frontoira edo Leitzako plazara joaten naiz pilotan aritzera. Ia-ia egunero aritzen naiz pilotan. Errekreo denboran ere pilotan ibiltzen gara, eta arratsalde batzuetan, lagun batzuekin ere bai.

Zure zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Nire gustukoena dekadak dira.

Hobetzekotan zer aipatuko zenuke?

Aireko jokoak. Orain hasi naiz airez jokatu ikasten, eta ea hemendik aurrera gehiago ikasten dudana.

Nola moldatzen zara ikasketak eta entrenamenduak bateratzeko?

Amazabal Institutuan 1. DBH egiten ari naiz. Oraingoz ongi moldatzen naiz. Azterketa asko ditugunean, pilota pixka bat aparte uzten dut, lehenasuna eskolak duelako. Baina ahal dudana guztietan pilotan jarraitzen dut.

Etorkizunean ikasten segitu nahi duzu?

Nik pilotari izan nahi dut. Oraingoz, ikasten jarraitu behar dut, eta ikastekotan segur aski kirolarekin lotutako zerbait ikasiko dut, baina nire ametsa pilotari izatea da.

Nola ikusten dituzu emakumezkoak pilota munduan? Gizonezkoen parekoa izanen da?

Asko indartzen ari da. Pilotari asko heldu dira, batzuk oso onak, eta ea baduten etorkizuna. Ez dut uste pare-parean egonen denik, baina ondoan bai.

Idazkari berria apiril hasieran hasiko da lanean

Azken aldian idazkari izan den Inge Zelaiaren ordeztu Garazi Lopezek hartuko du kargua

TTIPI-TTAPA

Azken urtebete eta erdi baino gehiagoan idazkari lanetan aritu den Inge Zelaiak hilabete honen bukaeran utziko du kargua, eta bere tokia idazkari posturako egin ziren frogetan bigarren postuan geldituz hautagaiak hartuko du: Garazi Lopez Villanueva iruñearrak.

Udaletxean eta mankomunitateetan

Joxe Otermin alkateak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, Lopez apiril hasieran hasiko da lanean

eta, orain arte bezala, bere lanaldiaren % 70 Aresoko Udaletxean egingo du, eta gainerako % 30a Mendialdea Mankomunitateko eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan.

Astelehenetan egun osoan Aresoko Udaletxean ariko da; asteartetan Mendialdea Mankomunitatean; asteazkenetan eta ostegunetan ere udaletxean izango da eta ostiralean goizaren lehen zatian gizarte zerbitzuen bulegoan eta ondoren Areson.

Txirindulariei herrira ez sartzeko eskaera

Hainbat herritarrek jo dute udalera txirindulariak herrian sartzeko, oinezko eta txirindularientzat, sortzen duen arriskuaren aurrean zerbait egiteko eskatuz. Hala, Aresora joan-etorrian ibiltzen diren txirindulariei herrira sartu gabe buelta emateko eskatu die udalak.



Herrira ez sartzeko eskatu du udalak.



Kuadrilla ederra bildu ziren zuhaitz landaketan. A. URRETA, B. MURO ETA M. ELUSTONDO

Haurrek eta gurasoek 60 haritz landatu dituzte Elutseder inguruan

TTIPI-TTAPA

Martxoan aitzurrak eta palak hartu eta mendiak biziberitzeko hitzordua izaten da eta aurten ere ez dute hutsik egin herritarrek.

Guraso Elkarteak antolatuta, martxoaren 9ko arratsaldean zuhaitz landaketa egin zuten. Plaza zaharrean elkar-

tu ziren eta handik Elutseder ingurura igo ziren. Haurrek eta gurasoek gogoz ekin zioten lanari eta denen artean 60 haritz landatu zituzten.

Mendiko lanak bukatuta herrira jaitsi ziren eta eguna behar bezala borobiltzeko ongi irabazitako arratsaldekoa izan zuten.



NAZABAL ESKOLA ETA ENERITZ IRAOLA

Kolore morea nagusitu da martxoaren 8an

Egun seinalatua izan zen Emakumeen Nazioarteko Eguna. Goizean, eskolakoek besteak beste, Otxoneko Mila eta Koro medikuei bisita egin zieten eta ondoren, herriko plazan bildu dira olerki bat irakurri eta dantzan aritzeko. Arratsaldean, berriz, elkarretaratzea eta herrian barna itzulia egin zuten.



KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com











Katarrapikaka-ttiki lehiaketa ostiral honetan

Eskolako DBHko ikasleek osatutako lau laukotek Goizuetari buruzko galderak erantzun beharko dituzte

TTIPI-TTAPA

Hemen da Katarrapikaka-ttiki lehiaketa. Helduak izan dira orain arte 2017an eta 2018an egin diren Katarrapikaka lehiaketetan parte hartu dutenak, baina aldi honetan, lehenbiziko aldiz, haurrentzat izanen da. Euskara zerbitzuak eta udalak antolatu dute, eskolaren laguntzarekin.

Ostiral honetan, martxoaren 25ean, egingen dute, udaletxeko ganbaran, 18:30etik aurrera. Eskolako ikasleak izanen dira protagonistak, eta taldeka banatuta, Goizuetari bu-

ruzko galderak erantzun beharko dituzte.

Lehiaketa ikusi nahi dutenek aurretik sarrera eskuratu beharko dute, estankotan eta arropa dendan. 14 urte artekoek doan izanen dute eta 15etik gorakoek bi euro ordaindu beharko dituzte.

Antolatzaileek bi ohar egin dituzte. Alde batetik, «isiltasuna behar denez, umeez gurasoen zaintzapean egon beharko dutela» adierazi dute. Eta bestetik, «garaiz joateko» aholkatu dute, lehiaketa hasitakoan atea itxiko dutelako.



FELIX LOIARTE

Emakumearen Egunean kalejira morea

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, kalejira antolatu zuen emakume taldeak martxoaren 8an. Hitzorduarekin hainbat herritarrek bat egin zuten eta zapi eta jantzi moreak soinean, plazatik abiatuta itzulia egin zuten herrian barna.

'Joko zikina, 40 urteko iruzurra eta usurpazioa' ikusgai

Nafarroako Foruaren Hobekuntzaren 40. urteurrenaren harira, *Joko zikina, 40 urteko iruzurra eta usurpazioa* dokumentala egin du Nafarroa XXI ekimenak, eta larunbat honetan, martxoaren 26an, 18:30ean, dokumental hori ikusteko aukera izanen da udaletxeko ganbaran.

Korrikaren lekukoa herritarren eskuetan

Aurten ere ez dute hutsik egin herritarrek Korrikarekin, eta apirilaren 9an, gauerdian, Korrika Leitzatik Ezkurrara bidean doanean, Basakabiko hotela baino aurrerago dauden kilometroetan hartuko dute lekukoa. Herritarrek elkarlanean eta udalakerosi dituzte kilometroak.



Arainburu Mendi Taldeko ordezkariak. UTZITAKOIA.

Arduradun berriak izendatu dituzte Arainburu Mendi Taldean

TTIPI-TTAPA

Arainburu Mendi Taldeak aldatetekin hasi du urtea. Sorreratik lehendakaria izan den Olatz Zabalak urte hasieran utzi zuen taldea, eta bere lekukoa Patxi Etxeberriak hartu du. Igaratza Apezetxea, berriz, idazkaria izanen da aurrerantzean.

Zabalari «urte pare hauetan egindako lana eskertu» nahi izan diote taldekideek. Hain zuzen, bera joan ondoren egin zuten taldean sartzeko gonbita eta mendi taldeak jakinarazi duenez, bost partaide berri sartu dira: Jose Jabier Etxeberria, Eder Huizi, Alvaro Legarreta, Miel Joxe Lekuona eta Ibai Zugarramurdi.

Bi urteko bidea

2020 hasieran sortu zen Arainburu Mendi Taldea, udalak bultzatuta. Hernani-Goizueta

bide zaharraren zati bat ezagutzeko mendi ibilaldi bat antolatu zuten eta orduan ikusi zuten mendian taldean ibiltzeko grina. Halaxe hasi zuten bidea herriko mendirik altuenaren izena daraman taldeak. Geroztik hainbat eta hainbat txoko ezagutzeko aukera eman du, eta hemendik aurrera ere emanen du.

Aranolara irteera

Apirileko aurreneko larunbatean, apirilaren 2an, egingen du hurrengo hitzordua Arainburuk, Aranolara mendi irteera antolatu baitu. 08:30ean herriko plazatik abiatuko dira eta 12,05 kilometro eta 590 metroko malda duen ibilbide «erraza» izanen dela aurreratu dute. 12:30erako bueltan izanen dira eta norberak bere jatekoa eta edatekoa eraman beharko ditu.

Pediatra euskalduna lanean hasia da

Egunaren arabera, Leitza, Goizueta eta Lekunberriko osasun zentroetan aritzen da

TTIPI-TTAPA

Denbora luzez egon dira pediatarik gabe, baina berri ere martxan da zerbitzua, eta dirudienez, epe luzerako izanen da.

Sandra Gurutxarri pediatra, euskalduna, hilabete hasieran hasi zen lanean. Gaur-gaurkoz

astelehenetan eta asteazkenetan Leitzan eta Lekunberri egoten da; asteartetan Goizuetan eta Leitzan eta ostegunetan eta ostiraletan Leitzan. Dena den, Leitzako Osasun Zentroak TTIPI-TTAPAri jakinarazi dionez, antolaketa hori behin-behinekoa da.

Haurrentzako masaje tailerra martxoan eta apirilean Leitzan

TTIPI-TTAPA

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Adin txikikoen tratuen Sareak antolatuta, martxoan eta apirilean 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzako masaje tailerra izanen da. Umeei masajeak ematen ikasteaz gain, beraiekin denbora gustura pasatzea da tailerraren helburua eta bide batez, etxeko ttikiaren zainketari eta heziketari buruzko gaiak, zailak eta kezak partekatu nahi dituzte.

Tailerra dohainik izanen da baina parte hartzeko aurretik

izena ematea beharrezkoa zen. Martxoaren 23an bukatzeko zen izena emateko epea.

Lau saio izanen dira eta Leitzako udaletxeko lehenbiziko solairuan bilduko dira. Martxoaren 25ean 10:00etatik 11:00etara egingen dute lehenbiziko saioa; bigarrena martxoaren 31n, 10:00etatik 11:00etara; apirilaren 6an 12:30etik 13:30era bilduko dira eta apirilaren 8an 10:00etatik 11:00etara.

Informazio gehiagorako osasun etxera edo gizarte zerbitzuetara deitzen ahal da.

Artikutzan burdinolen bidea egiteko bisita gidatua larunbatean

TTIPI-TTAPA | GOIZUETA

Donostiako Udalak hainbat bisita gidatu antolatzen ditu Artikutzako txokoak ezagutzeko. Horietako bat larunbat honetan, martxoaren 26an, egingen dute. Arriurdinetatik aterako dira eta Elama eta Goizarinen barrena burdino-

len bidea egingen dute. Bisita gidatu horiek segituan betetzen direla ikusita, goizuetarrentzako 15 toki gorde dituzte. Interesatuak 687 83 23 86 zenbakira mezua bidal dezakete apuntatzeko. Ea ez den beranduegi lerro hauek irakurtzerako...



AMAIA PAZEK UTZITAKOAK

Martxoaren 8a Aranon

Emakumearen Egunarekin bat eginez, hainbat herritarrek martxoaren 8an elkarretaratzea egin zuten Kontsejuko atarian, eta ondoren, mahaiaren bueltan elkartu ziren, bakoitzak etxetik eramandakoarekin afari-merienda ederra egiteko.

22. korrika
HITZ EKIN
Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

MATERIALA HEMEN SALGAI:
Korrika dendetan, AEKren euskaltegietan eta www.korrika.eus atarian.

korrika.eus

10.076.434 euroko aurrekontua onartu du udalak 2022rako

EH Bilduk, Ezkerrak eta Gero Baik aurrekontuaren alde bozkatu dute, Navarra Sumak kontra

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 10ean egindako bilkuran, Baztango Udalak 2022ko aurrekontuak onartu zituen. Udalaren, ikastolaren, zahar etxearen eta Lixuraren aurrekontuak biltzen ditu, 10.076.434 euro guztira. Udalaren aurrekontua 9.099.962 eurokoa izanen da, ikastolarena 948.700 eurokoa, zahar etxearena 142.772 eurokoa eta Baztan Lixura udal garbiketa enpresarena 229.723,82 eurokoa. Horretaz gain, Giltxaundi enpresa publikoaren aurrekontua 427.501,55 eurokoa izanen da, baina merkatuko enpresa denez, ez da aurrekontu orokorrean sartzen.

Aipagarria da argiteria publikoaren aurreikuspenean izandako handitzea, iazko 150.000 eurotatik aurtengo 285.000 eurotara, baita udal eraikinetako aurrekontua, iazko 85.570 eurotik aurtengo 141.500 eurotara. Nafarroako Gobernuaren ekarpena ere nabarmentzekoa da, 500.000 eurotan handitu baita.

Inbertsioei dagokienez, 1.573.436 euro bideratuko

dituzte, horietatik 991.001 Nafarroako eta Estatuako Gobernuaren gain eta gainerakoa, 582.435 euro, udalaren kontura. Inbertsio nagusia karriketako argiteriaren aurrezpen energetiko eta ekonomikoarena da, 550.000 euroko aurrekontuarekin. Europako Next Generation funtsak % 85ean finantzatuko du. Azpimarratzekoak dira joan den urteko abenduko erauntsiekin sortutako kalteak ere, emergentziako konponketek 288.694 euroko inbertsioa ekarri baitute, horren % 70,25 Nafarroako Gobernuak diruz lagundua.

Brtze hainbat inbertsio ere egitekoak dituzte aurten: herri lurralde digitalizatzeko 5.000 euro, haur eskolako konponketak 15.000, Arizkungo komunak 33.500, Erratzuko edateko uraren sistemaren berritzea 33.500, eskoletako inbertsioak 63.500, Elizondoko eskolako eta Gartzaingo eskolako jolastokiak 40.000, nekazaritzako azpiegiturak 58.200, oihanetako lanak 143.200...



Ahetzeko Udaleko ordezkariak bildu ziren taldekideak. TALDE EKOSOZIALA

Ahetzera ateraldia egin du Baztango Talde Ekosozialak

BAZTANGO TALDE EKOSOZIALA

Baztango Talde Ekosozialak bisita bat antolatu zuen martxoaren 5ean, larunbata, Ahetzera. Helburua argiteria publikoaren itzaltze neurriak ezagutzeko proiektu bat bisitatzea zen, herri izartsuen proiektua ezagutzeko. Lapurdiko herria proiektu horren partaide da, eta ondorioz, 00:00etatik 06:00etara farola eta argi publiko guztiak itzaltzen ditu.

Proiektuak argi kutsadura murriztea du helburu eta honek, zeharka, bertze onura hauek dakartza: jendearen loa errazten du, gauko animalien bizitzan gutiago eragiten du izarrak argiago eta gehiago ikusten dira... «Argia ez xahutzeak onura ekonomikoak ere badakartzen arren, garrantzitsuenak zerrendan aipatutako horiek dira».

Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko Ahetzeko udalbatzaren izenean zenbait ordezkari taldean bisitan joandakoei harrera egin, proiektua xehetasunez azaldu, galderak erantzun eta herrian barna bisita bat antolatu zuten, egitasmoaren eraginak azaldu asmoz. Baztandarren balorazioa arras positiboa izan zenez, «baliteke etorkizun hurbil batean bizi garen bailaran ere Iparraldeko bizilagunen eredu kopiatzea, ez duzu uste?».

Erreak solasgai

Martxoaren 17an, berriz, Miel Mari Elozegi mendizain eta biologoarekin bildu ziren Arizkunenean. «Azkeneko urteetan erreka eta iturburuei buruzko piztutako kezka» eta «erreken ekosistemak bizitzarendako duten garrantzia» izan zuten hizpide.

Husqvarna
DISTRIBUIDOR OFICIAL

BB BLOK BAT
TALLERES biokbat.com
C/ Santiago 85 ELIZONDO 948 580 898

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



UTZITAKOAK

Emakumeen aldeko aldarrikapenak eta mobilizazioak Baztanen martxoaren 8an

TTIPI-TTAPA

Emakumearen Nazioarteko Egunean eragile feministak karraketara atera ziren. Plazan elkarretaratzea egin zuten arratsaldean eta zaintza lanen garrantzia azpimarratu zuten, eta aunitzetan «doakoa, ikusezina, prekarioa eta feminizatua» izaten segitzen duela salatu zuten. Gero, dantza egiteko eta kalejirarako tartea

izan zuten eta gaztetxean akitu zuten jardunaldia, norberak eramandako merienda-afariarekin.

Honez gain, Lanbide eskolan, ikastolan, jubilotekan, komertzioetan... ere emakumearen eguneko aldarrikapenekin bat egin nahi izan zuten eta elkarretaratzeak egiteaz gain, morez apaindu zituzten Baztan-go karririkak.

Baserriko Uzta jardunaldia egingen dute Anizen apirilaren 2an

MAITANE MARITORENA

Orain dela bi urte bertan behera gelditu zen Baserriko Uzta aurten egingen da, Anizen apirilaren 2an. EHKolektiboa, Euskal Herrian agroekologia lantzen duen baserriar eta herritarren kolektiboa da antolatzailea. Anizko Jauregia bertako kide izanik, aurten Nafarroako baserriko uzta bertan egingen da.

Egitarau zabala

10:30ean hasiko dute jardunaldia ongi etorriarekin eta herriko musikari herritik bar-

na ibiliko dira. 10:50ean kiroketa emanaldia Jo ala jo elkartearen eskutik eta 11:00etan aurkezpena. Ondotik bisita egingen dute Jauregi-ko etxalderat. 12:30ean luntxa izanen dute eta 13:00etan Pettiren kontzertua. 14:00etan bazkalduko dute eta bazkalondotik kantaldi eta dantzaldia izanen da Hauspolarien eskutik. Sarrerak www.ehkolektiboa.eus webgunean daude eskuragarri 30 eurotan. 0-6 urteko haurrak doan izanen dute eta 6-12 urte bitartekoek 15 eurotan.



ARTXIBOTIK

Oinezkoendako zubia Lekarozen

Nafarroako Gobernuak saihezbidea gurutzatzeko pasabide bat egiteko proiektua onartu du. Metalezko zubia errepidetik sei metroko altueran egonen da eta 30 metroko luzera izanen duela aurreikusi dute. Oinezkoendako eta bizikletendako prestatu egonen da.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Arizkundarrak plazan bildu ziren otsailaren 26an harrobiaren kontra. ONDIKOL

Bi kontseilariekin bildu ziren Baztango ordezkariak harrobien kontra

TTIPI-TTAPA

Pello Sarratea (Almandozko alkatea), Imanol Etxeberria (Arizkongo alkatea), Joseba Otondo (Baztango alkatea), Florentino Goñi (Baztango udal zinegotzia), Jeronimo Jauregui (Almandozko herritarra) eta Mitxel Etxenike (Arizkongo herritarra) Baztango ordezkariak Nafarroako Gobernuako Mikel Irujo eta Jose Maria Aierdi kontseilariekin bildu ziren martxoaren 9an.

Canteras Achak Almandozen eta Arizkunen egin nahi duen zundaketei buruz «herritarrok dugun kontrako jarrera ezagutarazi» zieten eta «sartu diren helegiteak kontuan hartzeko» eskatu zieten. Gainera, Imanol Etxeberriak gutun bat helarazi zien bi kontseilariei bilkuraz baliatuz.

Arizkongo alkatearen gutuna kontseilariendako

«Arizkongo herriaren ize-
nean zuzentzen naiz zuen-
gana.

Estatuko aldizkari ofizialaren (BOE) bidez jakin genuen Aintzialde eta Bergara auzoetan zundaketak egin nahi dituela Canteras Acha SA enpresak, burdin-harria dagoen edo ez jakiteko eta hala bada, harrobi bat egiteko.

Hori jakin bezain fite herriko batzarra egin genuen herritarrek informatzeko, genekien gutti horren berri emateko eta aldi berean herritarren iritzia biltzeko. Horretarako bertze batzar bat deitu genuen jendeak bere iritzia bozaren bidez eman ahal izateko. Bigarren batzar horretan Arizkunek argi utzi zuen: ez dugu harrobirik nahi, ezta zundaketarik ere.

155 herritar bildu ginen eta bakar batek ere ez zuen dudarik izan harrobiaren kontra egiteko. Arizkongo batzarren %100ak ez du Aintzialde eta Bergara auzoetan harrobi bat egoki ikusten. Honez gain, herritarren eroldaren gehiengoak ere proiektuaren aurkako helegiteak sinatu ditu. Gure herria proiektu honen aurka egoteko arrazoiak aunitz dira: inguru horretan 12 etxebizitza eta familia dau-
de, hainbat abeltzaintza-ustiategi, mahasti ekologikoak, lanpostu ugari, Principe de Vianak babestutako Bergarako Jauregia, borda aunitz, iturriak eta auzoa hornitzen duten ur-biltegiak, basoak eta abar.

Herritarren iritzi irmoa ikusirik, Baztango Batzar Nagusiari ere babesa eskatu genion. Hemen ere, aho batez onartu zen Arizkongo herriari babesa emanez, zundaketa eta harrobia egitearen proiektuari ezezkoa ematea.

Arizkundarrak beraz, gure lana egiten ari gara nekazal, lan eta bizitoki eremua den hori dagoen bezala uzteko eta defendatzeko. Orain sortu den arazo honekin akitzeko eskatu nahi dugu.

Idatzi honen bidez beraz, Arizkongo herritar guztien izenean, herritarroi babesa emanez, zundaketa zein harrobiaren proiektu hau ez babestea eskatzen dizuegu, baita gure hitza eta erabakia errespetatzea ere».

Ikasketa akaberako lanendako beka deialdia ireki dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak bailara iker-gai duten Gradu eta Master Amaierako Lanak diruz laguntzeko deialdi berria ireki du. Deialdiari 2.000 euro esleitu-ko zaizkio eta lan edo proiektu bakoitza 500 euroz lagunduko dute gehienez, beraz, 4 proiektuk lortzen ahalko dute dirulaguntza.

Izena emateko, partaideek Baztanen erroldatuak egon beharko dute, edo bertze udal-erri batean koiunturalki erroldatuak egon arazoa ikasketak kanpoan egitea dela justifikatuz eta aitzineko errolda Baztanen edukita. Gainera, 2021/2022ko ikasturtean azkeneko kurtsoan egon beharko dute matrikulatuak eta ezin dute Baztango Udalarekin zorrik izan.

Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek Baztango Udaleko erregistroan egin beharko dute eskaria proiektu edo lanaren memoria aurkeztuz, lau orrikoa gehienez. Eskaria egiteko izanen eguna apirilaren 9a izanen da eta aurkeztutako proposamenak horretarako sortutako ebaluazio batzorde batek baloratuko ditu.

Deialdiaren baldintzak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren informazioa www.baztan.eus webgunean daude eskuragarri.



ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Ohariz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE




Presta zaitez negurako ... Berritu zure leihoak

Aprobetxatu dauden diru-laguntzak,
gestioekin lagunduko dizugu!

THERMOFIBRA
by deceuninck

Uf 0.88 (W/m² K)



Energia-eraginkortasun handiko leihoak

deceuninck





Benito Menniko langileek elkarretaratzeak eginen dituzte asteazkenero zentroko atean lan hitzarmena lortu arte. UTZITAKOIA

«Zerbitzu ona emateko lan baldintza duinak behar ditugu»

GEMMA MARTIRENA HUALDE BENITO MENNIKO LANGILEEN KOMITEKO KIDEA

Enpresarekin lan hitzarmena sinatu nahi dute Benito Menniko langileek, baina «orain arte ez dugu deus lortu, eta enpresaren jarrera guztiz axolagabea da». Bertako «lan baldintza txarrak» eta «plantillaren arazoak» salatu dituzte

R. OSKARIZ | ELIZONDO

Elizondoko Benito Menni ospitale zentroko langileek, ELA sindikatuaren bidez, mobilizazioetara deitu dute, «lan baldintza txarrak eta plantillako arazoak» salatuz, eta enpresari «jarrera axolagabea» leporatuz. Gemma Martirena Hualdek, langileen komiteko kidea, arazo horiek azaldu dizkio ТTIPI-ТТАРАИ.

Zergatik egin dituzue mobilizazio deialdiak?

Enpresarekin hiru bilera eduki ondotik, haien jarrera axolagabe hutsa dela ikusi dugu. Guk azaroan plataforma bat aurkeztu genuen 17 punturekin, eta bakar bat ere bide-

ragarria ez zela erantzun ziguten. Haiek, aldiz, ez ziguten proposamenik aurkeztu. Negoziatzen hasteko dirurik ez zutela bertzerik ez ziguten erran. Hori ez zaigu inoiz gertatu, 20 urte daramatzat komitean eta negoziazioak beti berdina izan dira; guk plataforma bat aurkeztu genuen, haiek bertze bat, eta negoziaketekin akordio batera ailegatu ginen. Baina honetan ez dute deus proposatu, eta hor ikusten da haien utzikeria. **Zer eskatzen duzue plataforma horretan?**

Hainbat eskari ditugu, baina soldaten igoera eta orduen murrizketa dira bi puntu ga-

rantzitsuenak. Lan baldintzak hobetzeko bertze hainbat proposamen ere egin ditugu; jardunaldi murriztagoak, konpainiarako ordu gehiagoko baimenak... diruarekin zerikusirik ez dutenak, baina denei ezetz erran diete. 2020an sinatu genuen azken hitzarmena, urte baterako, beraz 2021etik hitzarmenik gabe gaude.

Soldaten igoera eta lanorduen murrizketa azpimarratu dituzu...

Alde batetik, urteko 18.200 euroko gutieneko soldata eskatzen dugu, batez ere zaintza sektoreko eta zentro soziosanitarioetako soldatetara gehiago hurbiltzeko. Izan ere,

desgaitasunak dituzten pazienteekin lan egiten duten Nafarroako gainerako zentroekin, alde handia dago. Urteak daramatzagu soldaten igoerarik gabe. Gainera, arrisku-plus bat eskatzen dugu, inoiz kontuan hartu ez dutena. Bertze aldetik, astean gehieneko 35 orduko lanaldiak ditugu, baina kopuru hori 100 ordutan gainditzen dugu urtean. Langile gehiago behar ditugu, gure segurtasun eta ongizatea bermatzeko. Pazienteen profila aldatzen hasi da, eta erasoak gero eta mai-zagoak eta larriagoak dira. **Zenbat pertsona egiten duzue lan gaur egun?**

164 langile gara Benito Menni. Plantillaren % 83k lanpostu finkoa dugu, eta gehienak lanaldi osoan aritzen gara, baina badaude jardunaldi murriztua duten zenbait ama. Hala ere, denak gaude guti goiti-beheiti egoera berean lan baldintzei dagokienez.

Noiztik dituzue arazo hauek?

Arazoak azken aldian areagotu dira. Enpresak beti erran digu ez zekiela zenbateko aurrekontua izanen zuten zentroarekin segitzeko, zentroa pribatua bada ere, itunpekoak direlako lanpostu gehienak. Nafarroako Gobernuarekin ituna sinatzeko esperoan egon ginen langileak, eta 2021eko ekainean sinatu zuten. Bederatzi urteko hitzarmena egin zuten, Elizondoko zentroko 108 plazendako. Orduan hasi ginen negoziazioekin, baina gaur arte ez dugu deus lortu.

Aldaketa posible ikusten duzue?

Aldaketa posible ikusten dugu, bai, Nafarroako Gobernuak dirua eman duelako. Enpresak ez badu diru hori ongi kudeatzen, noski ez dugula dirurik izanen, baina hor dago arazoak. Komiteak antolaketa eta kudeaketa hobea eskatu dio enpresari. Nafarroako Gobernuko ordezkariekin ere bildu gara, baina haien erantzukizuna saihesten dute. Haien erantzun bakarra izan

da enpresarekin hitzarmena sinatu eta dirua eman diotela, eta enpresaren ardura dela hori kudeatzea.

Eskualdeko haur eskolak eta zahar etxeak ere haien eskubi-deen alde borrokan ari dira. Zaintza lanak behar bezala baloratzen dira?

Ez. Gizarteak konturatu behar-ko luke sektore honetan arrakala handia dugula bertze zerbitzuekin konparatuta. Egunero ikusten ditugu zahar etxeetan eta gurea bezalako zentro soziosanitarioetan elkarretaratzeak eta mobilizazioak. Arras sektore gogorra da, eta gurea oraindik gehiago, osasun mentarekin lan egiten dugulako. Nafarroan, adibidez, desgaitasuneko zentroetarako hitzarmen kolektiboa arras ona dago, baina kontua da arras zentro guti hartuak dituztela desgaitasun zentrotzat, desgaitasuna zentro aunitzetan dagoen arren, baita gurean ere. Gutxietsiak

gaude, eta gure egoera arras prekarioa da zentzu guzietan. Horregatik borrokatu behar dugu, eta denok elkarrekin eginen bagenu, aunitzez hobea. **Lan feminizatua da?**

Bai, gure zentroan gizonekoak % 10 bertzerik ez dira, historikoki zaintza lanak emakumeek egin dituztelako. Hala ere, egia da gizon eta emakumeak postu guzietan daudela: zuzendaritzakoak, medikuak, laguntzaileak... eta arlo honetan aunitz aitzinatu da, haurdunendako arrisku baimenak emanez, adibidez. Pasa den urtean berdintasun batzorde bat sortu genuen eta hiru hilabetero biltzen gara hainbat egoera aztertzeko;

«OSASUN MENTALAREN SEKTOREA ARRAS GOGORRA DA»

berdintasuna soldatekin, eskubideekin... eta formazio ikastaroak egiten ari gara.

Hau emakumeen borroka dela erranen zenuke?

Momentu honetan, ez. Horrelako arazoak izan genituen, baita auzitara eraman ere, emakume bat kanporatu nahi izan zutelako emakume izateagatik; gaztea zela, haurdun gelditu zitekeela... eta epaiketa irabazi genuen. Baina gaur egun borroka hau ez da emakumea bakarrik, langile guziena baizik.

Mobilizazioak egiteko asmoa duzue. Noiz?

Langileak asteazkenero bilduko gara zentroko atean, 14:30etik 15:30era. Egoeraren bilakaera ikusita erabakiko dugu noiz arte, baina argi dugu enpresarekin negoziazioa lortu arte borrokan segituko dugula. Martxoaren 25ean Elizondoko plazan manifestazioa eginen dugu 18:00etan, gure aldarrikapena gizarte-

ratzeko eta jendeak honen berri izateko. Herriari eta bailara osoari eskatu nahiko genioke gure borrokarekin bat egitea.

Arazoa konpontzen ez bada, greba egitea planteatu duzue?

Egindako azken asanbladan grebaz aritu ginen, eta kontuan hartzeko aukera bat da, bai. Langileak elkartuak gaude honetan.

Zerbait gehitu nahi duzu?

Hitzarmen kolektiboa lortzeko borrokan ariko gara, langile prekarioak izateari uzteko eta zerbitzu hobea emateko. Ezin dugu atzendu pertsonekin egiten dugula lan eta haien ongizatea ere bermatu nahi dugu. Zentro honetan urte aunitzez lanean aritu garenendako gure bizi-tza da hau, eta noski zentroa bideragarria izatea nahi dugula, zerbitzu eta kudeaketa onarekin. Baina horretarako, gure lan baldintzek ere onak izan behar dute.



- Kristalak tindatzea
- Eranskailuak eta kartelak pertsonalizatzea
- Publizitate-olanak
- Autoak errotulatzea
- Lokalak errotulatzea
- Bisita-txartelak, albaranak, etab.
- Inprimatze digitala
- Kanpoko seinaleak
- 3Dko kartel argidunak

Errotulazioan eta diseinuan aritzen gara. Egin nahi duzun proiekturako hainbat proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori gauzatzen lagunduko dizugu.

Tel.: 948 58 09 77 - 647 00 63 36
Pol. Ind. Zaldubia, 1
31730 Irurita (Nafarroa)





UTZITAKOA

Haur eskolen borroka plazara

0-3 zikloko langileak mobilizatu egin dira eta aldarrikapenak gizarteratu dituzte Elizondon. Martxoaren 11n pankartaz bete zuten herria eta informazioa banatu zuten. Gero, itxialdia egin zuten zentroan asteburu osoan. Igandean plazara atera ziren eta elkarretaratze jendetsua egin zuten.

Gazte martxako egitaraua argitaratu du Ernaik eta sarrerak salgai daude

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 14tik 17ra izanen da aurtengo Gazte martxa. Zugarramurditik abiatuko da Erratzura lehenbiziko egunean eta harrera ekitaldia izanen dute. Bigarren egunean Elizondora joanen dira eta han kontzertu, tailer eta solasaldiak

eginen dituzte ortziraletan eta larunbatean. Igandean, Aberri eguna, Iruñera joanen dira. Eguneko sarrerak eta ekitaldi osokoak salgai daude *bibe.me* webgunean eta Elizondoko Intza, Erratzuko Zubipunta eta Lesakako Arrano ostatueta.



UTZITAKOA

Zuhaitz eguna ospatu dute Lekarozen

AINHOA ASTIZ

Hilabete honetan, herriko guraso elkartearen eskutik, gaugerero urteroko ohitura bilakatu den Zuhaitz Eguna

ospatu dute lekaroztarrek. Loialde inguruan zenbat zuhaitz landatu dituzte hainbat herritarren laguntzarekin.



UTZITAKOA

Landare berriak Iruritako plazan

Iruritako haur, alkate eta herritarrek landare eta zuhaitz berriak paratu zituzten herriko plazan Orakunde egunean. Martxoaren lehenbiziko egunetan landatu dituzte azkeneko arbolak, eta itxura berria eman diote plazari orain landare berriekin.

ZIGA
ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean





Hamalau urte «zorionsu» eman ondotik pala profesionala utzi du Ibarraik. OSKAR MARTINEZ (DEIA)

«Nire ametsa bete eta irabaz daitekeen guztia irabazi dut palan»

XABIER IBARGARAI IRIBARREN ERRATZUKO PALISTA OHIA

Hamalau urte profesioaletan eman ondotik, hatz ttikian izandako kolpe baten ondorioz utzi behar izan du pala Xabier Ibarraik. Josetxo Huarterekin batera pala eskola sortu nahi du

AITOR AROTZENA ERRATZU

Pala profesioalean ari zen nafar bakarra zen Xabier Ibarraik Iribarren (Erratzu 1985/10/09). Baina 2021eko ilbeltzean hatz ttikian izandako lesio baten ondorioz ez zuen jokatzeko eta pala uztea erabaki du. «Profesional gisa 14 urte zorionsu izan dira, nire maila erakutsi dut, irabaz daitekeen guztia irabazi dut eta, batez ere, nire ametsa bete dut» aipatu du. «Azken batean nire *hobby* batetik bizimodua atera ahal izan dut eta, alde horretatik, pribilegiatua sentitzen naiz».

2021eko ilbeltzaren 8an jokatu zuen bere azken pala partida Ibarraik. Aste batzuk

beranduago etxean ari zela mailuarekin hatz ttikia kolpatu eta geroztik, han eta hemen lesioa sendatzen saiatu arren, ez du palan jokatzeko izan. Innpala enpresarekin akordio batera ailegatu eta pala profesionala uztea erabaki du, 2008an debutatu zuenetik palmarekin polita osatu ondotik: binakako hiru txapel, buruz buruko bi (bigarren mailakoa eta txapel nagusia) eta nazioarteko hiru *open* irabazi ditu, baina batez ere, buruz buruko final gehien jokatu dituen atzelaria izan da: sei, guztira. «Juan Pablok ere sei jokatu ditu, baina ez du txapela lortzerik izan, nik bat badut», aipatu digu.

Horien artean, bereziki 2019ko buruz buruko gogoan du: «Hainbertze sakrifizioaren ondorioa izan zen. Gainera, 2018an lesioa izan nuen eta maila onean bueltatu eta irabazi nuen». Momenturik txarrena 2011 izan zela ere gogoan du, «enpresa desagertu eta urtebete egon ginen jokatu gabe eta diru-sarrerarik gabe».

Profesioaletan aritzeari utziko badio ere, ez du erabat

«PALAZ ARITZEKO AUKERA EMAN NAHI DIEGU GURE NESKA-MUTIKOEI»

pala bazterrean utzi nahi erratzuarrak. «Harrak hor segitzen du eta posible dudan bitartean, denbora baldin badut hor segituko dut. Donostiako Real Sociedad taldekoekin solastatu dut eta beraiekin entrenatzeko asmoa badut eta maila hartzen badut, beraiekin jokatu nuke».

Munduko txapelketa urrian Biarritzen

Munduko pilota txapelketa urrian jokatzeko da Biarritzen eta zail ikusten badu ere, ez du erabat baztertzeko bertan jokatu ahal izatea. «Profesional eta afizionatu mailan gehiena irabazi dut, baina irabazteko falta zaidan bakarra munduko txapelketa da. 22 urtez beheitikoan aritu nintzen, baina Munduko txapelketa nagusia falta zait. Pastelaren ginda izanen litzateke eta munduko txapelketa irabazteko erronka da niretzat, baina ez dut nire burua estutu nahi, mantso-mantso. Entrenamenduak maiatz bukaeran hasiko direla aipatu dit hautatzaileak eta ikusiko dugu. Lehenik maila berreskuratu beharko nuke. Denbora bada, etortzen bada ongi eta ez bada etortzen ere segi aitzinera, gauza garrantzitsuagoak ere badituz, familia hori dut, 5 eta 3 urteko seme-alabak eta hor ere bada lana...», dio Ibarraik.

Pala eskola sortzeko nahia

Josetxo Huarterekin batera Baztanen pala eskola sortzeko nahian ere badabil Xabier Ibarraik. «Jendea falta dugu... hiruzpalau lagun ari gara lanean eta kluba sortzeko jende gehiago behar da. Ea denen artean zerbait egiten dugun. Gure inguruan eskuz aritzeko afizio handia dago, baina gero, 15-16 urterekin eskuak hondatzen zaizkien pilotari horiek ez dute bertez aukerarik. Pala aritzeko aukera hori eman nahi diegu inguruko neska-mutikoei. Norbait animatzen bada aski du gurekin harremanean jartzea».

Geolokalizaziorako HelpBidea proiektua aurkeztu dute

Etxe bakoitzean plaka bat ezarriko da eta larrialdi kasuetan geolokalizazioa erraztuko du

ARANTXA ETA IRAIA

Urdazubi, bertze hainbat herriekin batera, HelpBidea izeneko proiektuan sartu zen duela hilabete batzuk. Hone-la, etxe bakoitzean plaka bat ezarriko da, osasun larrialdietan etxearen geolokalizazioa erraztuko duena. Proiektu

honen aurkezpena martxoaren 17an egin zen herriko kultur etxean. Bertara, Euskarabidea, Oronoz eta Senpereko suhiltzaileak eta dirulaguntza eman duen enpresa gerturatu ziren. Honetaz gain, Xaretako alka-teak eta herritarrak gonbidatuak izan ziren.

'Herriari kantuz' bideoklipa aurkeztuko dute

Apirilaren 9an 22. Korrika herritik pasako da eta Zugarramurdirekin batera korrika kulturala antolatzen ari da. *Herriari kantuz* bideokliparen aurkezpena egingen da apirilaren 1ean Urdazubiko kultur etxean. Horrez gain, bertze hainbat ekitaldi ere egingen dira.

Donejakue Bideko aterpea ireki dute martxoaren 15ean

Udaberriarekin batera aurtengo denboraldia hasirik, Urdazubiko Donejakue bideko aterpea ireki zuten martxoaren 15ean, asteartean. Honela, herrira hurbiltzen diren erromesendako lo egiteko lekua eskaintzen dute herriko plazako aterpean.



ARANTXA ETA IRAIA

Martxoaren 8ko elkarretaratzea

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Egunaren kari, herrian ere egun honen aldeko ekimena egin nahi izan zuten. Ugarana elkarteak antolaturik elkarretaratzea egin zen arratsaldean herriko etxearen aitzinean. Jende andana bildu zen emakumeen eskubideen alde aldarrian.



Harakin ikastaroan parte hartzen ari direnak, kontseilariarekin. UTZITAKOA

Harategiko eta ostalaritzako prestakuntza egiten ari dira

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek bultzatuta, langabetuendako harakin ikastaro praktikoa ari dira ematen Dantxarinereko Venta Peion. Ikastaroko praktiken hasiera aitzaki hartuta, Carmen Maeztu Eskubide Sozialetako kontseilaria eta Miriam Martón Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea Dantxarinerean egon dira ikastaroan ari direnak bisitatzen.

Harakin-ikastaro honetan 12 langabe ari dira parte-hartzen, erdiak emakumeak, Nafarroako iparraldeko hainbat herri-takoak eta Iruñekoak. Lehen asteetan ikastaroaren alde teorikoa hartu dute eta gero hasi dira haragi-piezen manipulazioari buruzko alderdi praktikoa ikasten.

Kontseilariak bere bisitan nabarmendu duenez, «bi hila-

bete baino gehiagoko ikastaroa izanen da, eta parte-hartzaileak profesionalki kualifikatuko eta prestatuko dituzte enplegarritasuna hobetzeko. Izan ere, oraingoz, guztiek lortuko dute profesionaltasun-ziurtagiria prestatuntza ikastaro horretatik igaro ondotik».

Gainera, «proiektu honek enpresen beharretara egokitutako prestakuntza espezializatua eta langabetuen enplegua uztartzen ditu. Izan ere, parte-hartzaileen % 40k, gutienez, Venta Peion bertan lan-kontratu bat izateko aukera izanen du, eta hori pizgarri bikaina da haientzat», laburbildu du kontseilariak.

Martxoaren 10ean salako zerbitzariak prestatzeko ikastaroa hasi da, eta ikastaro horretan bertze 15 lagun ariko dira apirilaren 29ra arte.

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Margari Etxenike, Agurtzane Andueza eta Marifa Irazoki aurkezpenean.

Agurtzane Anduezak 'XXI. mendeko sorginak' idatzi du

Martxoaren 12an egin zuen aurkezpena museoan eta hiru herritarren testigantza ere biltzen du liburuan

MARIFA ETA KORO

Agurtzane Anduezak XXI. mendeko sorginak liburua aurkeztu zuen martxoaren 12an museoan. Sorginen Artean bildumako liburu honetan, Agurtzane, idazteaz gain, munduko hainbat tokitako bertze hamasei lagunek ere parte hartu dute, horien artean, hiru herritarrek.

Agurtzane 30 urte ditu Zugarramurdira bizitzen, eta denbora honetan sorginen inguruko hausnarketak egin ditu, denbora honetan konzeptu hori zenbat eta zenbat aldatu den konturatu baita.

Hori dela eta, "sorgina" hitzak zenbat erran nahi edo irudi dituen bildu nahi izan du liburu honetan.

Sorginen Museoan erosi daiteke liburua edo www.zugarramurdi.eu webgunean, 18 euroren truke.

Korrika kulturala

Korrika bera oraindik ez, baina Korrika kulturala pasatu da dagoeneko gure herritik: martxoaren 18an Amets Arzallusek aurkeztu zuen *Miñan* bereliburua, eta biharamunean *Irudika* antzezlan eskaini zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Martxoaren 8ko seinalea jubilotekan

Aurten martxoaren 8ko konzentrazioa Saran egin zen, baina hala ere, horren seinale ttiki bat egin zuten jubilotekako kideek: Azketa jatetxera joan ziren, beraiek egindako apaigari more bat hango sarreran eman zuten, eta hamabi lagun elkartu ziren bazkaltzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aho zakil konekxion taldearen diskoa

2019 urtean sortu zen herrian Aho zakil konekxion punk taldea eta Kisulabe beraien lehenbiziko diskoa atera dute. Uztairitzeko Tribal Studioan grabatu dute eta martxoaren 25ean, ortziralean 21:00etan Sarako Keinu gelan aurkeztuko dute, Kamuts eta Goroldio taldeekin batera.

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 31^aan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Turismo Bulegoko zenbait kide bileran. GANEX

Lehenagoko bidera dator turismoa herrian pittanaka

Leizeak bisitatzeko aitzinetik erreserba egin behar da eta hamabortz minutuko bisitak egiten dituzte

GANEX

Sarako Turismo bulegoak bilkura egin zuen martxoaren 2an leizeetako gelan. Turismoan lanean ari diren denak ez ziren joan, bainan halere gauza batzuk ikusi zituzten bildutakoekin. «Nola bi urtez pandemia izan dugun, orduan manifestazione guziak ezeztatuak izan dira, orai iduri du lehengo posturat etorriak gairela», aipatu dute.

Hain zuzen, horretarako zen bilkura hori, komertziantek, lantegiak eta bertzeak nola diren jakiteko. Erraterako, Maritxular ama alabek diote

Euskal Biskotxaren Museoak lehen bezala hartuko dituela bisitak. Dauxek ere sasoineko gelak eta De Halper jaun-andereek sasoineko bizitzak ere eskainiko dituzte.

Ez ditugu ahantzi behar leizeak. Orai 35 pertsona bakarrik sar daitezke hamabortz minutuko bisita bakoitzeko. Jende gutiagorekin bisitak hobe egiten ahal dituzte, xehetasunak ongi emanez. Jateko eta edateko manera izanen da, usaian bezala. Bisita guziak aitzinetik erreserbatu behar dira. Maskara ez da obligatua baina txertoaren agiria beharrezkoa da.

Beti Gazte elkartearen urteko biltzar nagusia apirilaren 2an eginen dute

GANEX

Beti Gazte erretretatuen elkarte urteko biltzar nagusia apirilaren 2an eginen du Lur Berri gelan, 12:30ean eta «handik landa bazkaria zerbitzatu dute Sage jaun-andereek artoski apailaturik. Bazkariaren eta kide txartelen prezioa

33 eurokoa izanen da (bazkaria 25 euro eta txartela 8 euro).

Martxoaren 29a baino lehen eman behar da izena 05 59 54 21 34 (Jeannot Etxeberrigarai), 06 28 28 09 24 (Anita Bats) edo 06 31 62 90 66 (Maite Imaz) telefonoetan.



85 erretretatu bildu ziren Lur Berriko tripotx bazkarian. GANEX

Aurten bai, tripotx bazkaria egin dute herriko erretretatuek

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 5ean, larunbat eguerditan Sarako erretretatuek izan dute tripotx bazkaria Lur Berri gelan. 2021ean ezeztatua izan zen herriko kontseiluak eskaintzen duen oturuntza, baina aurten 85 erretretatuk usaia bazkaria izan dute.

Haragitegiko Tristan eta Mariane Sagek prestatu dituzte tripotx goxoak eta bero beroak zerbitzatu gainera. Kontseiluko hamar hautetsi ere bazkarian izan ziren. Battite Laborde auzapezak, ordea, ezin izan zuen joan, bertze

zereginetan zelako eta barkamena eskatu zuen.

Antzerkia ere

Bazkaria ongi pasatu da. Sophie Garbiso sozialeko axuantak deneri ongi etorria egin zien. Erretretatuek ere eskerrak eman zizkieten kontseiluari eta sukaldariei, Eguna ongi bukatzeko, Les Mailles antzerki taldeak antzezlan eskaini zuen. Arratsaldeko bortzak inguruan, estomaka ongi beteta, denak etxera joan dira, heldu den urtean bertze horrelako bat izanen duten esperantzan.



GANEX

Larhongo trenbidea berritzeko gaiak

Larhongo trenbidea berritzeko behar den materiala trenbide bazterrera ekartzeko baliatu dute negua. Honela, aurtengo buruiletik 2023ko uztailean lanak egin ahal izateko materiala hor berean izanen dute. Aurten, apirilaren 14a hasiko da Larhongo trenaren sasoi berria.



Orkestrak bi aldiz agurtu behar izan zituen entzuleak txalo artean. JL BESSONART



Ruper Ordorikak bere lehen emanaldia eskaini zuen Larrekon. JL BESSONART


Iparraldeko orkestra eta Ruper Ordorika martxoko izarrak

Vivaldiren 'Lau sasoiak' bibolin eta euskal tresnekin jo zuen lehenak eta 'Hautsi da Anphora' aurkeztu zuen abeslariak

JL BESSONART

Martxoaren lehen asteburuan, bi hitzordu bihotz altxagarriak eskainiak izan zauzku Larreko aretoan. Ostiral arratsean, Vivaldiren *Lau sasoiak* Iparraldeko orkestraren bibolinekin eta euskal musika tresna bereziekin. Marina Beheretche biolinistak arramoldaturik, uztarketa eder batekin lotu ditu musika klasikoa musika tradizionalarekin, Ziberuko bertso batzuek alaiturik. Erronka ez zen erraza, alabaina, sekulako arrakasta ukan du Senperen, Hendaian eta Hiriburun. Igande arratsaldean, aldiz, Ruper Ordorikak bere musi-

kariekin egin du agerraldia, *Hautsi da Anphora* diskoa aurkeztuz. AEK-Korrika 22, antolatu ikusgarriak jendalde polita bildu du Larrekon. Aitortzekoa da, lehenbizikoz aldiz agertzen zela senpertarren aitzinean. Adiskide baten bitartez gure herriko Mirandako bordako bidea ongi ezagutzen zuela salatu gaitu. Kantu bakoitza baino lehen, Bernardo Atxagak hitzaldi umoretsuetan aurkeztu zuen historikoa. Hemen ere gozaldi ederra hartu zuen publikoak, nahiz Ruperren fan delakoak urrundik jinak ziren, gehienendako deskubritze paregabea izan da.



Mendi Maratoiaren abiatzea martxoaren 12an. JL BESSONART

Bi mila korrikalari baino gehiago izan dira Senpereko Traileko asteburuan

TTIPI-TTAPA

Senpereko Trail arrakastatsua egin dute martxoaren 12-13ko asteburuan. Lau lehiaketa izan zituzten larunbat eta igandean, SPUC lasterka taldeak antolatua. Larunbatean, Ultra-trail delakoan (Tontorrez-Tontor), 82 kilometroko proban 300 korrikalari atera ziren. Horietan lehena Arkaitz Aizkorreta Galindez bizkaitarra izan zen (10 ordu eta 22 minutu), bigarrena Sylvain Mendez Bordelekoa. Lehen emaztea (orotan 9.) Jocelyne Pauly izan zen.

Maratoian (Gotorlekuen Itzulia), 42 kilometroko las-

terketan 600 lasterkari izan ziren. Faboritoa izan zen irabazle, Maxime Cazajous biarriena (4 ordu eta 24 minutu), bigarren Romain Lacaste.

Ibar Run Trail. 10 kilometroko proban Christopher Vaquero izan zen bizkorrena, Chris Matñe eta Thomas Bourdillaten aitzinetik. Emazteetan, Liloï Aguerre lehena, Paula Marcos bigarren eta Raphaële Souavin hirugarren.

Igandeko Senpereko Trail ezagunean (21 km), 900 korrikalari bildu ziren. Ziburuko Jérôme Camacho eta Rebecca Torrado izan ziren garaileak.

Errespetua eskatuz martxoaren 8ko ekitaldietan

Martxoaren 8an, Euskal Hiri Elkargoak ekimen berezi bat bideratu du komunikazio kanpaina baten bitartez *Respectées* izenburuarekin. Hitz erdaldun hunek denak gonbidatzen gaitu emazte guzietan, eta alor guzietan, errespetua zor diegula. Herri asko partzuer jarri dira ekitaldi honetan, beren aldetik kanpaina hori suspertuko dute, hauetan dudarik gabe Senpereko herria. Badakigu zorigaitzez, orainokoan ere, emazteen eskubideak ez direla betirako erdietsiak. Berditasunerako bada bide, ez dezagun etsi.

Arranoen begia argazki erakusketak ikusmina piztu du

Argazkiak aurkezten dituen Arranoen Begia elkarteak sekulako erakusketak antolatua zuen martxoaren 1etik 15era bitartean, Larreko kulturguneko harrera gelan. Artista bakoitzak, lema berezi baten inguruan aurkezten zitue borts argazki. Ikusle anitz hurbildu dira, batzuk beren baitarik, bertze batzuk aldiz kontzertuetara etorritik ukan baitute erakusketak horren deskubritzeko parada. Ikusmin handia sortu du, elkarteak pozik gelditu da eta laster bertze ekitaldi bat nahi lukete aurkeztu.



Mikel Arregi, Ana Ollo eta Oskar Zapata hitzarmena sinatu ondotik. UTZITAKOIA

Aurten Euskaraldia gauzatzeko hitzarmena berritua

Euskaltzaleen Topaguneak eta Nafarroako Gobernuak sinatu dute martxoaren 7an

TTIPI-TTAPA

Oskar Zapata, Nafarroako Topaguneko zuzendaria, eta Ana Ollo, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetarako kontseilaria bildu ziren martxoaren 7an Nafarroan Euskaraldia egitasmoa gauzatzeko hitzarmena sinatzeko.

Hitzarmen horren baitan, Euskaraldiak, proposamen berriak eginen dizkie partaideei, orain arteko *ahobizi* eta *belarriprest* rolei eutsita, landu nahi dituzten hizkuntza portaerak errazago eta jantziago burutu ditzaten. Era berean, bigarren edizioan berrikuntza nabarmena izan ziren ariguneak finkatzeko urtea izanen da hurrengoan.

Zapatak gogora ekarri zenez, «Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Izan ere, egitasmoak helduen aktibazioa du oinarri, eta gutxieneko baldintza euskara ulertzea da».

Aurtengolelari aipua eginez, Zapatak hitzez ekiteko garaia dela azpimarratu zuen. «Euskaraz hitz egitea errazago izan

dadin kaleak eta plazak betetzeko garaia heldu da, ilusioz, arduraz, gogoz, emozioz...». Hirugarren edizioan *belarriprestek* eta *ahobiziek* aukera berriak izan ditzaten bermatzeko elkarlana nabarmendu du, auzoz auzo, herriz herri eta arigunez arigune.

Olok azpimarratu zenez, «euskara batez ere, komunikaziorako tresna bizia da. Horregatik, hiztun berriekin dugun konpromisoa defendatzen dugun bezala, haien prestigioa eta sustapena bultzatzeko egunez egun lan eginez, Euskaraldia bezalako ekimen garrantzitsuak babesten ditugu, non herritarrek erakusten diguten ekintza kolektiboa gai dela topiko interesatuak gainditzeko eta hizkuntzaren inguruan aukera eta balio positiboan mundu bat zabaltzeko».

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra eginen da Euskaraldiaren hirugarren edizioa Euskal Herri osoan, *Hitzetz ekiteko garaia* lelopean. Helburua: Euskararen erabilera areagotzea hiztunen hizkuntza ohituratan eraginez eta euskaraz aritzeko guneak zabaltzea eta areagotuz.

Euskararen aldeko tokiko xarta izenpetu dute Ipar Euskal Herriko 49 herrik

TTIPI-TTAPA

Itsasuko herriak eta Euskal Konfederazioa elkarrekin antolatuz martxoaren 11n, iragan zen euskararen aldeko tokiko itunen izenpetze ekitaldia Itsasun. Lurralde hizkuntzen eta hizkuntza gutituen aldeko Eurokartako tokiko deklabinabidea den tokiko xarta hau Ipar Euskal Herriko 49 herrik izenpetu dute momentoko, horien artean Azkaine, Itsasu, Sara eta Senperekin.

Lehen herri izenpetzailetako ordezkariak Europako Kontseiluko Claudine Brohy Fribourg/Freiburgo Unibertsitateko hizkuntzalari eta Lurralde hizkuntzen eta hizkuntza gutituen aldeko Eurokartako aditu batzordeko kidearekin bildu ziren.

Trukatze horren ondotik, Mizel Hiribarren Itsasuko au-

zapezak hitza hartu zuen berretaratu ziren guzietan ongietorria egiteko. Oroitarazi zuen Itsasuko herria zerrendan lehena izan zela Europako Kontseiluko ordezkariarekin harremanetan sartzen, 2020ko herriko bozkak aitzin, tokiko xartari buruzko xehetasunak izateko.

Ekimenaren nondik norakoak oroitarazi zituen, baita 2021eko urte hastapenetik orain arte eraman lana ere, hots, tokiko xarta 70 bat herritan eta Euskal Elkargoko lurralde poloetan aurkeztu dutela Euskal Konfederazioak eta Itsasuko euskara batzordeko hautetsiek, herriak euskararen aldeko neurriak hautatzen laguntzeko eranskin bat landu dutela, Xartak herriko kontseiluetan bozkatzeko deliberazio modeloa proposatu dutela...

Hatsaren Poesia Eguna martxoaren 27an ospatuko dute Senpereko Larraldean

2022ko Hatsaren Poesia Eguna martxoaren 27rako antolatatu du Hatsa elkarrekin Senpereko Larraldean. Igandean 11:30ean elkarretaratzea eginen dute eta 12:00etan *Hatsaren Poesia 2022* liburuaren aurkezpena. 13:00etan aperitifa eta zizka-mizken bazkaria.

16:00etan liburuan parte hartu dutenen testuen irakurketa eginen dute, baita Hatsakide batzuen kantu emanaldia eta Antton Larrandabururen kantaldia ere. Egun osoan, Iñaki Bastarrikaren *Margolarien azietak* pintura bilduma ikusgai izanen da.

Aiora Jakarekin lehen literatura geraldia izanen dute larunbatean Lesakan

A. AROTZENA

Literatura geraldia programaren barrunean *Nirliit* liburuaren gainerako solasaldia izanen dute Lesakako Arrano elkartearen martxoaren 26an, larunbatean 11:00etan. Solasaldi horretara Aiora Jaka itzultzailea etorriko da. Arra-

noko irakurle taldearen urteko programazioaren barrunean antolatuko dute solasaldi hau, baina halere ekitaldi irekia da eta nahi duten herritarrek hartzen ahal duten parte. Lesakako Liburutegi Publikoak *Nirliit* liburuaren sorta bat ere jarria du irakurleen esku.



Gizonezkoen eta emakumezkoen podioetan, bigarren Ibon Erdozain eta Ane Elzaurdia beratarrak. UTZITAKOAK

156 kirolarik bukatu dute Lesakako III. Mendi Lasterketa

Soraluzeko Ander De Luis eta Zarauzko Nerea Amilibia nagusitu dira 14 kilometroko ibilaldian

TTIOI-TTAPA

156 kirolarik bukatu zuten martxoaren 13an Beti Gazte elkarteak antolatutako Lesakako III. Mendi lasterketa. 14 kilometro luzeko eta 900 metroko desnibel positiboa (Frain eta Ananu mendiak igo behar zituzten) zuen proba burutzen Soraluzeko Ander De Luis izan zen bizkorrena (1.12.42). Bigarren postua Gure Txokoako Ibon Erdozain beratarrak eskuratu zuen (1.13.59) eta hirugarrena, lehenbiziko edizioan garaile izan zen Joxe Amunarriz hondarribiarrak (1.15.32). Emakumezkoen ar-



Manttale garaile izan zen taldeka.

tean, Nerea Amilibia zarauzitarra izan zen bizkorrena (1.35.27), Manttaleko Ane Elzaurdia beratarra bigarren (1.36.02) eta Beti Gazteko Ana Reina lesakarra hirugarren (1.37.37).

Herri Kirol Jokoetako jardunaldia apirilaren 3an Igantzin jokatu dute

TTIPI-TTAPA

Bortz jardunaldi izanen dituzte aurtengo Nafarroako Herri Kirol Jokoetan. Hain zuzen, martxoaren 13an Antsoainen izan zuten lehenbizikoa; martxoaren 20an Etxarri Aranatzan aritzeakoak ziren eta martxoaren 27an Altsasun ariko dira.

Apirilaren 3an Igantzin jokatu dute laugarren jardunaldia, 10:30ean (kadete mailako azken jardunaldia) eta apirilaren 10ean Betelun (kimu eta haur mailako finalak) jokatu dute azkena.

Eskualdeko taldeei dagokien, Igantzik lau talde aurkeztu ditu –bi kimu mailako proba konbinatua eta bana haur eta kadete mailako proba konbinatua–, Menditarrak taldeak hiru –kimuetan, haurretan eta kadeteetan konbinatuan, azken honetan Amaiurrekin batera– eta Amaiurrek Txantrearekin batera kadete mailako sokatiran ere taldea aurkeztu du. Antsoainen Igantzin nagusitu zen proba konbinatuan haur mailan.

Eskualdeko kirolariei dagokienez, gizonezkoen artean, bosgarren izan zen Manttaleko Asier Apezetxea aranztarra (1.17.34), zazpigarren Anizko Unai Iantzi (1.17.53) eta bederatzigarren Beti Gazteko Aimar Otxoteko lesakarra (1.19.02). Hain zuzen, Aimar Otxoteko izan zen bizkorrena 23 urtez beheitiko kategorian eta bigarren, Beti Gazteko Mattin Lekuona (1.23.40).

Sailkapen orokorrean hamabigarren izan zen Gure Txokoako Joseba Lasarte beratarra bigarren izan zen beteranoen sailkapenean eta hamaseigarren izan zen Beti Gazteko Borja Garcia lesakarra hirugarren.

Emakumezkoetan, bosgarren izan zen Beti Gazteko Mayi Arriola lesakarra (1.46.12), zortzigarren (eta lehenbizikoa 23 urtez beheitiko kategorian) Manttaleko Ainhoa Etxegarai beratarra (1.51.03) eta hamabigarren Maria Yanci igantziarra (1.57.10).



LESAKAKO III. ML

ESKUALDEKOAK

2. Ibon Erdozain-Bera	1.13.59
5. Asier Apezetxea-Arantza	1.17.34
7. Unai Iantzi-Aniz	1.17.53
9. Aimar Otxoteko-Lesak	1.19.02
10. Angeltxo Aranibar-Bera	1.21.07
12. Joseba Lasarte-Bera	1.21.41
14. Iñaki Telletxea-Elizondo	1.22.28
16. Borja Garcia-Lesaka	1.22.53
18. Iker Telletxea-Lesaka	1.23.20
19. Iñigo Lasaga-Bera	1.23.22
20. Mattin Lekuona-Lesaka	1.23.40
22. Mikel Urtxegi-Igantzi	1.24.31
23. Iñigo Goñi-Donamaria	1.24.50
29. Ina Lasaga-Bera	1.27.00
31. Migel Angel Iñarrea-Irurita	1.27.56
33. Asier Irazoki-Bera	1.28.49
37. Iñaki Iantzi-Aniz	1.30.35
38. Adrian Gajate-Lesaka	1.30.52
39. Imanol Arregi-Etxalar	1.31.19
41. Adur Iantzi-Igantzi	1.31.52
43. Oskar Ariztimuño-Leitza	1.33.11
44. Eneko Zabaleta-Leitza	1.33.11
45. Jon Otxoteko-Lesaka	1.33.19
46. Bittor Txantre-Bera	1.33.26
47. Julen Oskor-Arantza	1.34.25
48. Daniel Iparragirre	1.34.25
50. Mikel Arriola-Lesaka	1.34.54
54. Jabier Iparragirre-Arantza	1.35.33
55. Iker Gonzalez-Igantzi	1.35.43
56. Mikel Irigoien-Lesaka	1.35.57
57. Juan Luis Irazoki-Bera	1.35.59
58. Markel Etxarte-Etxalar	1.36.00
59. Ane Elzaurdia-Bera	1.36.02
62. Iñigo Arrieta-Sunbilla	1.37.06
63. Ana Reina-Lesaka	1.37.37
65. Josema Huiji-Bera	1.37.45
66. Imanol Ugaldeberre-Lesaka	1.37.49
71. Joxan Arruti-Lesaka	1.39.59
73. Julen Baleztena-Bera	1.40.28
81. Iñaki Berruet-Lesaka	1.43.37
84. Garai Dendarrieta-Irurita	1.44.21
85. Mikel Leiza-Lesaka	1.44.30
86. Mikel Mutuberria-Lesaka	1.45.36
87. Mayi Arriola-Lesaka	1.46.12
88. Ion Etxebeste-Lesaka	1.46.14
92. Xanti Dendarrieta-Erratzu	1.48.24
100. Ainhoa Etxegarai-Bera	1.51.03
104. Begoña Aroztegi-Amair	1.54.04
107. Ruben Pedrosa-Bera	1.55.59
108. Mikel Aldazabal-Bera	1.56.00
109. Beñat Mitxelena-Bera	1.56.00
111. Maria Iantzi-Igantzi	1.57.10
115. Leire Erbiti-Leitza	1.58.08
125. Virginia Goienetxe-Lesaka	2:00.38
132. Iñaki Larralde-Lesaka	2.05.26
133. Beñat Maia-Lesaka	2.05.28
134. Aitor Mitxelena-Lesaka	2.05.30
135. Mololo Irigoien-Lesaka	2.05.33
136. German Deskarga-Lesaka	2.05.35
139. Andoni Larralde-Lesaka	2.07.14
140. Xumar Altzugarai-Lesaka	2.07.17
141. David Begino-Igantzi	2.07.19
142. Enaitz Telletxea-Igantzi	2.07.19
143. Naiara Altzugarai-Lesaka	2.09.03
144. Ane Berasain-Bera	2.10.44
145. Loly Pardal-Lesaka	2.11.09
150. Jordi Najari-Lesaka	2.16.04
153. Nagore Arretxea-Bera	2.21.03
154. Estibaliz Berrueta-Bera	2.21.05
155. Joxelu Oiarzabal-Bera	2.21.08
156. Iñigo Iparragirre-Ituren	2.21.11



Aizkora eta harri-jasotze txapelketetako finaletan aritu ziren 21 kirolariak, sari banaketaren ondotik. IBON ERRAZU

Nerea Sorondo txapeldun, Etxeberria eta Mindegia podioan

Berako aizkolaria Nerea Arrutirekin nagusitu zen eta Zigako eta Zubietako bikotea hirugarren izan zen

TTIPI-TTAPA

Urrezko Binakako Aizkolaria Txapelketa Eusko Label Sari-ko finala jokatu zuten martxoaren 6an Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Julen Alberdi Txikia IV.a eta Suharri Rodriguezen izan ziren bizkorrenak hamabortz eborkorrek moztzen (25.55), Ugaitz Mugertza II.a

eta Julen Gabirondo bigarren (27.06) eta Zigako Joxean Etxeberria eta Zubietako Patxi Mindegia hirugarren (28.07). Hodei Ezpeleta eta Basozabalen ordeztu zituen Ibai Soroa laugarren izan ziren (39.56).

Emakumezkoen finalean, Nerea Sorondo beratarra eta Nerea Arruti nagusitu zitzaiz-

kien (11.40), Laiene Pikabea eta Irati Astondoari (13.04).

Harri-jasotzaieak ere

Harri-jasotzaileei dagokienez, gizasemeen Urrezko harri-jasotze txapelketa-Zortzi arroako hiru harri txapelketako finalean iMikel Lopetegi Urria nagusitu zen 77 jasoaldirekin, Beñat Telleriak 68 egin zituen eta Xabat Olaizolak 63.

Emakumeen harri-jasotze txapelketan, goi mailan, Kar-mele Gisasola Zelai III.ak 61 jasoaldi egin zituen eta Lucia Orbek 56. Berri mailan, Lur Errekondok 66 jasoaldi eta Lierni Osak 56 eta gazte mailan Udane Ostolazak 56 jasoaldi egin zituen eta Naroa Sanchezek 48.

Eskubaloi teknifikazio campusa eginen dute Lekarozen

TTIPI-TTAPA

Bilboko Burdinbeltz Eskubaloi HBB taldeak eskubaloi teknifikazio campusa eskainiko du aurten ere Lekarozko gazte aterpean, monitore tituludunekin. Bi txanda dituzte antolatuta eta lehenbizikoa, uztailearen 4tik 11ra, guztiz betea badago ere, uztailearen 16tik 23ra bitarteko txandan oraindik badira lekuak, 2006, 2007 eta 2008 urteetan jaiotako neska-mutilei zuzenduak. Burdinbeltz taldetik aipatu dutenez, «azken txanda honetako lekuak Nafarroako gazteekin bete nahi ditugu eta ahal bada BaztanBidasoaldeko gazteekin». Izena emateko epea maiatzaren lehenengo astera arte egonen da irekia eta campusaren prezioa 440 eurokoa da.

Campusaren helburu nagusia »gure txikiek eskubaloi-az gozatzea, ikastea eta elkarlanean aritzea da». Informazio gehiago: campusbalonmano hbb@gmail.com

Malerrekako eskuz binakako 20. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak hogeigarren aldiz antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten martxoaren 5ean Doneztebeko Ezkurra eta Lesakako udal pilotalekuan. Beharbada berdintasun gutti izan zuten partidek markagailuan baina giro polita izan zen bi pilotalekuan.

Lesakan pilotari ttikienak aritu ziren.

Benjaminak: Iguzkiagirre eta Igoa (Bortzirriak), 18 - Sarasa eta Ramirez (Berriozar), 7.

Alebinak: Sagastibeltza eta Ugartemendia (Aurrera), 13 - Leiza eta Ezkurra (Erreka), 18.

Infantil neskak: Martinez eta Martinez (Bortzirriak), 18 - Madariaga eta Bertiz (Erreka), 14.

Infantil mutilak: Etxaniz eta Arregi (Oteiza), 18 - Etxeberria eta Zelaiaran (Oiarpe), 2.

Donezteben nagusienak aritu ziren eta bertan banatu zituzten sariak ere.

Kadeteak: Otaegi (Ilunpe) eta Antimasberes (Lagunak), 7 - Beitia (Joko Alai) eta Canseco (Titin III), 22.



Exposito eta Cuairan nagusitu ziren elite mailan. UTZITAKOIA

Jubenilak: Beñat Apezetxea eta Aitor Agesta (Erreka), 22 - Arrillaga eta Arroita (Ataun), 11.

Seniorrak: Oskoz (Oberena) eta Oliden (Lapke), 22 - La-

rrañaga eta Garmendia (Lapke), 6

Elite: Elizalde (Zugarralde) eta Urruzola (Pagazpe), 15 - Exposito (Hernani) eta Cuairan (Erreka), 22.



Oier Apezetxea erremontista goizuetarra, Berria txapelketaren aurkezpenean. MAIALEN ANDRES

«Damututa nago aurretik erremontea probatu ez izana»

OIER APEZETXEA RUIZ GOIZUETAKO ERREMONTISTA PROFESIONAL BERRIA

Martxoaren 12an egin du debuta, Berria txapelketan. Aldaberekin bikote eginez 35-34 irabazi zien Loitegi eta Zalduari. Aurretik esku pilotan aritua, 30 urterekin iritsi zaio aukera erremontean

AITOR AROTZENA GOIZUETA

Oier Apezetxea Ruizek (Goizuetarra 1991/06/26) martxoaren 12an debutatu du erremontista profesional bezala. Gainera, ez da estreinaldi arrunta izan. Aldaberekin batera Berria Erremonte Txapelketako lehen partida 35-34 irabazi zien Loitegi eta Zaldua I.a ri.

Esku pilotan afizionatutan asko jokatu ondotik erremontean egin duzu debuta. Nola eman duzu urrats hori?

Josu Apezetxea lehengusuak, zoritxarrez orain gutxi hil zenak, aspaldiko urteetan esaten zidan erremontea probatu behar nuela, baina esku pilotan oso sarturik nengoen.

Gero, Larrañaga erremontistak eta Javi Odriozola entrenatzaileak probatzea gomendatu zidaten eta azkenean probatu nuen. 28-29 urte nituen, esku pilotan urte asko, eta frontoian baina zerbait berria nahi nuen. Behin jantzi nuen xestoa Azpeitian eta lehendabiziko pilotakada frontisean sartu nuen. Inpresioa ederra izan zen, abiadurak txunditu ninduen. Gустura aritu eta Galarretara hurbildu nintzen. Bertan, hasieran kosta zitzaidan bi pilotakada frontisean sartzea. Hala ere, gustura sentitzen nintzen, nahiz eta goiko posturarekin ez nuen asmatzen eta asko sufritzen nuen. Ez

nuen hobetzen, jakinda menderatu behar den lehenengo postura dela.

Eskuz aurrelari eta erremontean atzelari... Frontoia ezberdin ikusiko da.

Aipatu bezala, goiko posturarekin arazoak nituen. Entrenamendu batean atzelari bat falta zen eta Kike Elizalde atzelari jarri ninduen. Lehendabiziko sarea izaten omen da zaila eta hori sartu nuen.

«PARTIDAZ PARTIDA IKASTEN JOATEA DA NIRE LEHEN HELBURUA»

Neurriak eta hartzea kosta zitzaidan, baina pixkana-pixkana hobetzen joan naiz, gutxienez berdean pilota gehiago sartzen. Erremontean oso urruti ikusten da frontisa, asko aldatzen da ikuspegia.

Orain Goizuetak bi erremontista dauzka profesionaletan eta eskuz bakarra...

Bitxia da hori, bai. Inoiz ez zen halakorik gertatu Goizuetan, esku pilotak indar askoz gehiago dauka eta. Hiru-lau entrenamendu egin ditugu elkarrekin Zubirik eta biekin. Arraro egiten zitzaidan bere alboan egotea. Laguntzeko prest egoten da beti, beste erremontista guztiak bezala, eta esker-tzen ditut gomendioak. Haundia izanen litzateke finalerdietan edo finalean elkarren kontra jokatzeko.

Zein ezberdintasun daude esku pilota eta erremontean?

Erremontean segundua asko da. Esku pilotan buena egitea errazagoa da, baina hemen gaizki kokatzen bazara pilota badoa beste aldera. Beste erritmo bat da. Pareta ondoan sartuta egotea ere bada beste ezaugarria eta zaila gainera. Esku pilotan, aurrelari bezala, aurkariak pilota jo eta prest egoten zara airez sartzeko. Hemen berriz paretan kontra egon behar duzu. Distantziak edo neurriak ere hartu behar dira, pixkana-pixkana ari naiz egokitzen horretara.

Zein ezaugarri dituzu erremontean?

Nahiko txukun sakatzen dut. Beheko posturan askoz ere hobe moldatzen naiz goiko posturarekin baino. Esku pilotan boleista nintzela esaten zidaten, baina erremontean egia esan kosta egiten zait goiko postura hori. Desberdina da, xestoarekin lehenago moztu behar da kolpea eta zailagoa egiten zait. Denbora beharko dugu. Paretako defentsa beti da oso zaila. Urte asko daramanarentzat da zaila, pentsa 14 hilabete jokatzeko daraman batentzat. Azkenean, kolokazioa garrantzitsua da.

MARTXOAK 24 - APIRILAK 7

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ZUZEU.EUS

ANIZ Baserriko Uzta

EHKolektiboa antolatua. Jauregiko etxaldera bisita, Pettiren kontzertua eta bazkaria. Jauregian, apirilaren 2an. Sarrerak ehkolektiboa.eus webgunean 30 eurotan.

KONTZERTUAK

SARA

Kamuts, Goroldio, Aho Zakil konekxion eta DJ Tirri&Tery

Keinu gelan, martxoaren 25ean, 21:00etan. Sarrerak 5 eurotan.

BERA

Mice

Kataku ostatuan, martxoaren 27an.

LESAKA

Joseba Irazoki & Lagunak

Harriondoan, apirilaren 2an, 19:30ean. Sarrerak 7 eurotan.

JARDUNALDIAK

ELIZONDO

Mahai-jokoen kutxa ibiltaria

Martxoaren 26an eta 27an.

ANIZ

Baserriko Uzta

Jauregian, apirilaren 2an. Sarrerak ehkolektiboa.eus webgunean 30 eurotan.

BERTSOAK

LEITZA

Bertso bazkaria

Jone Uria eta Joanes Illarregirekin. Kornieta elkartean, martxoaren 26an, 14:00etan. Sarrerak Maimurren eta Torrean 28 eurotan (16 euro langabetuentzat).

ZINEMA

BERA

'Joko zikina' dokumentala

Kultur etxean, martxoaren 24an, 19:00etan.

GOIZUETA

'Joko zikina' dokumentala

Udaletxeko ganbaran, martxoaren 26an, 18:30ean.

LESAKA

'Tipularen sehaska kanta' dokumentala

Harriondoan, martxoaren 26an, 19:00etan. Sarrerak 3 eurotan.

Haurrentzako zinema

Harriondoan, apirilaren 3an, 17:00etan. Sarrerak 2 eurotan.

LEITZA

'Uhinak' Korrikako dokumentala

Herri aretoan, martxoaren 31n, 19:00etan. Sarrerak 45 minutu lehenagotik.

Zinema

Bi pase egunean.

Herri aretoan, apirilaren 2an eta 3an. 16:30ean 'Ainbo' 4,5 eurotan eta 19:00etan 'Competencia Oficial' 5,5 eurotan.

TAILERRAK

LEITZA

Haurrentzako masaje tailerra

Udaletxeko lehenbiziko solairuan, martxoaren 25ean eta 31n eta apirilaren 6an eta 8an, 10:00etatik 11:00etara (apirilaren 6an 12:30etik 13:30era).

AURKEZPENAK

DONEZTEBE

'Ene baitan bizi da' liburuaren aurkezpena

Maddi Ane Txoperenarekin. Liburutegian, martxoaren 25ean, 19:30ean.

'El abanico de seda' liburuaren aurkezpena

Liburutegian, martxoaren 28an, 18:30ean.

LESAKA

'Nirliit' liburuaren aurkezpena

Aiora Jaka itzultzailearekin. Arrano ostatuan, martxoaren 26an, 11:00etan.

URDAZUBI

'Herriari kantuz' Korrikako bideokliparen aurkezpena

Kultur etxean, apirilaren 1ean.

AZOKAK

LESAKA

Merkatu ttikia

Behoko plazan, martxoaren 26an, 10:00etatik 14:30era.

ELIZONDO

Baztango artisauak eta zapoak

Plazan, martxoaren 30ean, 10:00etatik 14:00etara.

IKUSKIZUNAK

LESAKA

'Re-Des' dantza ikuskizuna

Danzai taldearen eskutik. Harriondoan, martxoaren 27an, 19:00etan. Sarrerak 5 eurotan.

BERA

'Aporofobia Stop' antzezlan

Ados Teatroa taldearen eskutik. Kultur etxean, apirilaren 1ean, 19:00ean.

«Lana, esfortzua eta ondokoa baloratzen irakatsi dit errugbiak»

SAIOA JAURENA ATXA ELIZONDOKO ERRUGBILARI OHIA



«Errugbia maite duen irakaslea» da Saioa Jaurena Atxa (Elizondo, 1989). 17 urte eman ditu kirol honetan, hainbat taldetan aritu da eta ibilbide arrakastatsua egin du. Aurten, ordea, kirola uzteko erabakia hartu du; «ez da erabaki erraza izan baina hala da».

Bizitza erdia zelaian

16 urte zituela hasi zen Jaurena errugbiarekin; «institutan probatu nuen. Neska pare bat entrenatzen hasiak ziren, eta gustatu zitzaidala eta hain ongi sentitzen nintzela ikustean, hastera animatu ninduten, eta Baztango mutilekin entrenatzen hasi ginen neska batzuk. Egun hartatik aitzineira, geroz eta lotura estuagoa izan dut kirol honekin».

Geroztik, hainbat taldetan aritu da eta ibilbide arrakastatsua izan du; «Iruñeko La

Unika taldean hasi nintzen, gero Getxotik pasatu nintzen, ondotik Baionan urte bat egin nuen eta Zeelanda Berriko talde batera joan nintzen. Handik bueltan, Getxon bertze urte bat egin nuen eta Baionara aldatu nintzen segituan. Han egin ditut azken urteak».

Honez gain, 2013an Espainiako selekzioarekin jokatzeko hasi zen, eta «salto handia» izan zen, «mailari dagokionez eta prestakuntza pertsonalari dagokionez». Postu bakoitza lortzeko «lehia handia» zegoen, «batez ere nire postuan

«KENDU DIDANA BAINO AUNITZEZ GEHIAGO EMAN DIT ERRUGBIAK»

esperientzia haundiko neska zeuden eta ez zen erraza izan lortzeko». Entrenamenduen intentsitatea eta maiztasuna ere handitu behar izan zituen; «denborarekin aldaketa horiek errutina bihurtu ziren, nire gorputza ezagutzen eta lan gehiago zein arlotan behar nuen identifikatzen hasi nintzen».

Esperientzia berriak

Irlandako munduko kopan parte hartu zuen Jaurenak selekzioarekin 2017an. «Esperientzia polita baina gogorra izan zen. Munduko kopak luzeak dira eta egun onak eta txarrak daude, baina han pasa behar dira denak eta psikologikoki ongi eramaten jakin behar da. Etxera bueltatzean izan nintzen kontziente pertsonalki lortu nuenaz».

Mundialera jonanen zela jakin zuen unea da bizi izan duen momenturik hoberenakoa, «kirol honetan jokatu nezakeen mailarik altuenean aritzeko aukera lortu nuela jakitea». Hala ere, «aunitz» izan dira momentu onak errugbiarekin; «Baionan urte onak pasatu ditut, entrenatzaile on bat aurkitu nuen eta aunitz lagundu zidan hobetzen eta kirol honetaz disfrutatzen».

Errugbiak «pertsonea gisa naizen eta ikasi dudak guztia eman dit. Lana, esfortzua eta ondokoak baloratzea zer den irakatsi dit, eta bertze gauzetarako denbora kendu badit ere, kendu didana baino aunitz ez gehiago eman dit».

Azken urteak

Baionan aritu da jokatzeko Jaurena azken urteetan; «kotxeari lotuta ibili naiz, astean

«KIROLARENGATIK ALDE BATERA GELDITU DIRENEN TXANDA DA ORAIN»

hiru egunetan entrenatzen baikin. Partiduendako, liga nazionala denez, Frantzia osoan zehar ibili behar izan genuen. Autobusean ordu dezente pasatuak ditugu!».

Koronabirusak ere «gogor» eragin die jokalariei; «klubean jende gutiago gelditu da, eta maila oneko jende berria bilatzea zaila da. Txapelketetan atzerapenak izan ditugu eta fisikoki ongi mantentzea zaila izan da. Gainera, denbora libre guztia hotelean eman behar genuen, baina elkar hobeki ezagutzeko balio izan digu, beraz, ez da dena txarra izan».

Selekzioari dagokionez, aurtengo munduko koparen atean gelditu da taldea; «maila ona izan dugu eta irabazteko prest geunden, baina presio handiko partidua dira eta hori hobeki kudeatzen duen taldea izaten da irabazle. Pena arras handia izan zen, aunitzendako azken partidua ziren eta lau urte eman ditugu horri begira entrenatzen. Kanpoan gelditu gara elkar ez da erraza izan».

Errugbia uztea «ez da erabaki erraza izan, baina goi mailan jokatzeko egin behar den esfortzua handia da eta gauza aunitz alde batera utzi behar dira. Helburu argi bat dagoenean erraza da, baina Munduko koparik gabe eta ligako maila gorenik gabe motibazio hori itzali zait. Urte aunitz izan dira errugbian zentratuak eta alde batera gelditu direnei kasu egiteko txanda da, nire bizitza ulertu eta jokatzera animatu nautenei eskerrak emateko garaia da».

Etorkizunera begira

Errugbia utzi badu ere, «ez dut harremana galdu nahi, talderen bati entrenamenduetan laguntzeko asmoa dut. Oraingoan, jokatu gabe bizitzen ikasten ari naiz eta mantso-mantso helburu berriak bilatzen hasiko naiz».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gaeuz. ☎647 58 81 63.



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eltzeta plazan 14 metro karratuko bajera errentan emateko. ☎628 03 25 58.

LANA

ESKAZIAK

ETXALAR. Haurrak zaintzeko pertsona gazte euskaldun bila. Egun erdiko lana, astelehenetik ortzirale-
ra arratsalde. Gida baimena eta autoa beharrezkoak dira. Interesatu-
tuek idatzi Whatsapppe. ☎687 31 85 23 / 609 57 58 14.

DONEZTEBE. Titi ostatuan langilea behar dute egun osoan sukaldetan aritzeko. Astean bi besta egun izanen ditu, horietako bat igandea. Interesatu-
tuek deitu edo ostatura agertu. ☎948 45 02 71.

Lesakan irekiko duten hortz klinika batean administrazio lanetan forma-
kuntza eta esperientzia duen langile baten bila ari dira. Hasiara batean lanaldi erdirako, etorkizunean lanaldi osoan aritzeko asmoarekin. Bidali curriculumak: ortodonciamarkel@gmail.com. ☎638 95 64 42.

BERA. Ansonea ostatu-jatetxean bi zerbitzari behar dituzte ortziraletan, larunbatetan eta igandetan lan egiteko. Interesatuak curriculumak ansoneaberri@gmail.com helbidera bidali edo ostatuan aurkeztu. ☎649 33 77 23.

DANTXARINEA. La Jambonnerie dendan langilea behar dute. ☎659 73 27 73.

BERA. Beola Etxea Bentan zerbitzaria behar dute igandetan lanaldi erdian aritzeko, eguerdiko zerbitzuan. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera edo deitu. ☎948 63 07 09.

LESAKA. Iturbena kafetegian zerbitzaria edo sukaldaria behar dute langileen udako oporraldietarako,

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

uztaileko azken hamabortzaldian eta abuztuan lan egiteko. Deitu edo idatzi. itturbenakafetegia@gmail.com. ☎620 70 09 64.

BORTZIRIAK. Astean behin bi orduz etxea garbitzeko pertsona bila gabilta. Kotxea ezinbestekoa. ☎679 29 57 28.

BERA. Beola Etxea Bentan lanaldi jarraian aritzeko frantsesa dakien biltegizaina behar dute. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com helbidera edo deitu. ☎948 63 07 09.

ESKARIAK

Emakume batek interna lan egin nahi luke. ☎612 50 40 27.

Irunen bizi den emakumezko bat adinekoak eta haurrak zaintzen, garbiketan, haurrei etxeko lanetan laguntzen... ariko litzateke. Sorterrian irakaslea izana da, frantsesez eta

ingelesez daki, eta euskara ikasten eta hemengo jatekoa kozinatzen ikasten ari da. ☎641 23 85 99.

Donostiako mutil bat herri txiki batean lan bila, naturan, hiritik ihesi, beste erritmo batean bizitzeko asmotan. Arnas gaixotasun baten ondorioz, ez du maskararik erabiltzen. ☎617 60 53 89.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,65
- 1.koa 4,53
- 2.koa 4,41

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,76
- 1.koa 4,62
- 2.koa 4,51

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,58/4,68
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,90/7,00
- 8-10 kilokoak: 5,60/6,30

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 53 €

Zerri gizona 1,292 €

Zerramak 0,550€/kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua martxoaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)

MOTORRAK

EROSI

Citroen Berlingo autoa erosi nahi dute, 2 ate korredera, 5 atekoa, 110 cv, diesela. 2020tik aitzinerakoa. ☎605 24 30 57.

SALGAI

Audi A4 autoa salgai. 2011koa, 2.0 TDI, 140 zaldi. Egoera ezin hobean dago, gutti erabilia da eta beti garaje-
jean egondakoa. 129.000 km. 12.000 eurotan. ☎653 74 95 54 / 615 70 38 76.



Ford Fiesta autoa salgai. 2017koa. 36.500 km. Egoera bikainean dago, berria bezala. 8.500 eurotan. ☎674 93 19 41.

TAILERRAK



DENETARIK

SALGAI



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. Deitu konpromisorik gabe. ☎690 08 56 65.


DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA

Club AVIA

CLUB AVIA txartelarekin %2ko deskontua erregaian eta %5eko deskontua dendako produktuetan



Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net



Gerezizko armairua salgai. 2,90 metroko zabalera. 200 eurotan. ☎616 38 28 49.



Haritzeko armairua (3 metroko zabalera eta 2,5 metroko altuera) eta **ohatzea** (1,50m x 1,80m) salgai. 600 eurotan. ☎616 38 28 49.



Haritzeko sukaldeko bankua salgai. 2,10 x 1,50 metroko neurriak dituena. 150 eurotan. ☎616 38 28 49.



Aulkiak (15 eurotan), **mahaia** (metro bat x metro bat, 40 eurotan) eta **mahaia** (1,2m x metro bat, 50 eurotan) salgai. ☎667 34 14 75.

BERAKO UDALA

ALKATEAREN
EBAZPENA
- HIRIGINTZA -

Berako Udaleko Alkateak, otsailaren 23an emandako 41/2022 Ebazpenaren bitartez, 7. poligonoko 301. partzelako Xehetasun Azterlana (Itzea Karrika, 8), onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanen da hoguei laneguneko epean, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik (2022ko martxoaren 10eko 50. Zenbaki-dun aldizkarian argitaratu da).

Bera, 2022-03-10
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña



Egoera hagitz onean dagoen Massi Casta Magura markako **aluminiozko bizikleta** salgai. 2019. urtekoa da. Ondorengo ezaugarriak ditu: Gurpilak 29, XT kanbioak, M neurria. ☎609 06 85 20.

Mendaur Motor

Leitza bidea · DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak  

SUZUKI VITARA
1.6 diesel (zilar grisa) · 5 ate



SUZUKI VITARA
(beltza) · 3 ate



www.mendaurmotor.es

ANIMALIAK

SALGAI

OIZ. Bi urteko ahari mutur gorria salgai. ☎606 01 93 37.



744 484 361

 ttipi-ttapa

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

PANELAK-TOTEMAK



INFORMAZIO PANELAK
Egurrezko egiturekin edo gabe

Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta materialen aukerak



ROLL-UP



ROLL-UP
Garraio poltsarekin
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK

AZIDOAK



GARDENAK



MIKROPERFORATUAK



ELEKTROSTATIKOAK



MIKROBENTOSAK



POLIMERIKOAK



 **KULTURKARI**
Diseinu grafikoa | Publizitatea

INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com

OROIGARRIA

Begoña
SAN JULIAN VICENTE

Lesakan, 2022ko otsailaren 21 ean

Afari eta irrien bueltan
Urte aunitz honezkero
Aitzaki denak balio zuten
Batera izanez gero
Maitasun handiz gaurkun zuretzat
Hamar muxu goxo bero
Zuregatik altxatuko ditugu
Kopak asteazkenero.



JOSUNE, UXUE, IMANOL, JOSEBA-ANA, GARAZI, OIER, JOXE MARI, ZURINE ETA MARKEL.

OROIGARRIA

Felipe
MORENO BARRIUSO

Goizuetan, 2022ko martxoaren 5ean

Osasunean eta gaitzean
beti zintzoa, hurbila.
Aio Felipe eta bidai
goxoa izan dadila.



HIRE LAGUNAK

OROIGARRIA

Begoña
SAN JULIAN VICENTE

Lesakan, 2022ko otsailaren 21 ean

Lagun-giroa bizi ta maite
Zenuen berta-bertatik
Beti hain pozik, irribarretsu,
Hain zoriontsu gugatik
Sarri laguntza eskaintzeko prest
Galdetu gabe zergatik
Luze egonen zara gurekin
Hala ez egonagatik
Eskerrik asko bihotz-bihotzez
Eman diguzunagatik.



ZURE LAGUNAK

URTEURRENA



Ignacio IRAZOKI ETXEPETELEKU

Beran, 2020ko martxoaren 19an, 67 urte zituela
II. urteurrena
ZURE FAMILIA

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

- ▶ **Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek % 10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokia
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- ARANTZA


- BERA
- IGANTZI

- DONEZTEBE

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

URTEBETETZEAK



Aritz Portu Iraizozek martxoaren 21ean birtz urte bete ditu. Zorionak eta muxu pila bat Artazkozko eta Lesakako familiaren partez.



Aiert Baleztena Goñik eta **Manex** eta **Mattin Goñi Errandoneak** urteak beteko dituzte martxoaren 29an, martxoaren 30ean eta apirilaren 4an. Zorionak familia guziaren partez.



Lesakako **Unax Maia Larralde** 4 urte beteko ditu martxoaren 31n. Aunitz urtez eta muxu pottolo bat familia guziaren partez.



Aunitz urtez **Ainara** martxoaren 28an urteak beteko dituzulako. Egun ederra pasatzea espero dugu! Muxu haundi bat!



Eñaut Zubieta Garziak 9 urte bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak familia guziaren partez, eta batez ere, atta, ama eta Aimirren partez.

HILBERRIAK

- **Fermina Baraibar Ezkurdia**, Leitzakoa, martxoaren 2an.
- **Milagros Diharasarri Organbide**, Urdazubikoa, martxoaren 3an, 81 urte zituela.
- **Maritxu Indabere Telletxea**, Berakoa, martxoaren 4an, 90 urte zituela.
- **Felipe Moreno Barriuso**, Goizuetakoa, martxoaren 5ean, 66 urte zituela.
- **M^a Carmen Bikondoa Ibarra**, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 6an, 81 urte zituela.
- **M^a Pilar Bazterretxea Arregi**, Etxalarkoa, martxoaren 8an.
- **Juan Mari Ortega De La Fuente**, Legasakoa, martxoaren 11n, 73 urte zituela.
- **M^a Carmen Gamio Inda**, Iruritakoa, martxoaren 11n, 83 urte zituela.
- **Jesús Etxeberria Garaikoetxea**, Amaiurkoa, martxoaren 11n, 85 urte zituela.
- **Alejandro Parra Etxeberria**, Lesakakoa, martxoaren 12an, 72 urte zituela.
- **Angelita Errandonea Zelaieta**, Berakoa, martxoaren 14an, 96 urte zituela.

SORTZEAK


- **Ane Ariztegi Altzugarai**, Lesakakoa, otsailaren 1ean.



Zorionak **Fermin** zure urtebetetze egunean. Besarkada haundi bat Zerunetako familiaren partetik. Muxuak.



Arantzako **Intza Sorli Lizardik**, gure etxeko ttikiak, urte bat bete du martxoaren 8an. Aunitz urtez eta zorionak familia guziaren partez, eta bereziki, zure anaia Suharren partez. Aunitz maite zaitugu!



Ibai Larretxea Eizondok urtea bete du martxoaren 7an. Zorionak etxeko ttikiari Beintza-Labaiengo eta Arantzako familien partetik, bereziki Saioa eta Unairen partetik!



Ezkurrako **Ramona Juantorenak** 90 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.




Sunbillako **Iraia** eta **Iraitz Sarrateak Arretxeak** martxoaren 31n eta apirilaren 13an, 5 eta 8 urte beteko dituzte. Zorionak etxeko partetik!! Muxu haundi bana.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Udane Garmendia Irigoienek 8 urte bete ditu martxoaren 20an. Zorionak eta muxu haundi-haundi bat Arantzako eta Urrestillako familia guziaren partez. Aupa Reala!



Irati Etxeberriak 4 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak pitufi!! Naroa, aita, ama eta Elizondoko eta Elgorriagako familia guziaren partez, ongi pasa zure eguna. Muxuak!


PLAZAN BAZAN



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, oso antzekoak izan arren. Bereiz itzazu.

JOXE, EZ ATERA ATERKIRIK GABE, BEHARKO DUZU ETA. NIRE HEZURREK EZ DUTE ENGAINATZEN.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiuurri)

BAKOITZARI BERA

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.

BAINA
ATERKIA BEHARKO
DUT ALA EZ DUT
BEHARKO?!



LANGARRA

ENBATA

ZIRIMOLA

HOZKIRRIA

ERREKA-LAINO

EGUZKIA BAI,
BAINA EZ DU
BATERE
BEROTZEN




DENA
LANBROTUTA
IKUSTEN DUT



ZER?!

Ba al dakizu nola deitzen zaion tramankulu honi? Haizearen abiadura eta norabidea neurtzeko balio du eta ez da A letraz amaitzen.



ANEMOMETRO

HAIZAGAILU

ISOBARA

ARRANPALO

BELOZIPEDO

UFADA-PALA

ARRANGURA



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

801 zenbakiko irabazleak >



Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Francisco Iparragirre Lukanbio | LEITZA

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Jose M^a Ordoki Otxoteko | BERA

Martiko - Lote bat
Maialen Iantzi Danboriena | BERROETA

Kimetz belardenda - Saski bat
Natalia Rodriguez Aguado | LEKUNBERRI

Galaxy Park - Bi sarrera
Joxean Migelena Ordoki | DONEZTEBE

Okille Tailerra - Eguzkilore bat
Maite Salazar Salazar | ARANTZA

Ibaizabal - Bi liburu
Jose Luis Elizegi Goñi | GARTZAIN

Ibaizabal - Bi liburu
Jose Mari Urroz Etxeberria | NARBARTE

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑA

www.saltingcenters.com



Bi sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

ELIZONDO

www.giltxaurdi.eus



Bi sarrera

WOW PARK

www.wowpark.fr



Sarrera bat



**LI
BU
RU
AK**



Borobilean (Liburua + CD)
Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Katxiporreta

www.katxiporreta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ibaizabal.com



www.giltxaurdi.eus